

# ARGIA

JUANITO LIZARRALDE «ALTXERRI»



«KONTXA  
IRABAZITA DUGU»

## SABIN INTXAURRAGA

«PSE-EEko norbait GAL  
aferan nahastua  
balego, PSE-EE edo EA  
sobera leudeke  
hirukoan»

## SARDINIA

Alguer, Italiako herri  
katalana

## TREBIÑO EGUNA

Arabako konderrria  
Euskal Herriari  
ezagutarazi nahian

## BINGEN MENDIZABAL

«Juanmarenatik izan  
ez balitz, ez nukeen  
zinemarako musika  
konposatuko»



BEREZIA



BERRIRO ESKOLARA

# 1 TXURA BAINO GEHIAGO.



# ANTZA

*Maisuen Eskutik*  
soluzio grafikoak

- 6. Politika kronika. PATXI LARRION.
- 8. Sabin Intxaurreaga: «Astakeria litzateke Eak eta EAJk bat egitea, publiko ezberdina baitute». MIKEL JAUREGI.
- 12. Populazioaren erdia da hizkuntza hau ulertzeko edo mintzatzeko gai. Alguer, katalanak bizirik dirauen Italiako hiria. XABIER ARANBURU.

14. Altzairutegietako hondakinez errepideak egiteko asmoa.

XABIER ARANBURU.

17. Trebiño eta enklabe hau Araba barruan egoteko nahia ezagutaraziko dituzte igandean. Trebiño, konderrri ahaztua. UNAI BREA.

20. Donostiako Euskararen Udal Patronatuak Famili programa zazpigarrenez antolatu du. AITOR AZKONBIETA.

22. Juanito Lizarralde «Altxerri»: «Arraunlariak jotzailea izan behar du ezer baino lehenago». MARTIN AGIRRE.

27. Berriro Eskolara berezia: Motxila lepoan iraileko maldan gora. ARRITXU ZELAIA eta LORE ERRIONDO.

44. Kultura kronika. MIKEL ELORZA.

47. Bingen Mendizabal: «Juanmarenatik izan ez balitz ez nukeen zinemarko musika idatziko». MAITE ARTOLA.

50. Kepa Junkera, Kaxiano eta Maltzeta aita-alabek disko bana kaleratuko dute aurki. Golkoa bete soinu. JON ABRIL.


53. Argitalpenak. MAITE ARTOLA.

48. Irrati-telebista. ARRITXU ZELAIA.

52. Aukeran. GURUTZE IZAGIRRE.


56. Denborapasa.

58. Inkisizio zaletasuna. JAKUE PASCUAL




**JUANITO LIZARRALDE**

«ALTXERRI»: Orioko traineruen historian pisuzko pertsonarengana eraman gaituzte iraileko marea biziek. Kontxako bandera lau aldiz irabazi zuen arraunlari gisara, eta seitian Kanpako patroiz zela. Patroiz lanaz eta arraunaren nolokotasunaz mintzatu zaigu baikor: «jo beldurrik gabe lehertu artean»./22



**BINGEN MENDIZABAL:** Juanma Bajo Ulloaren azken filmeko musika ere Mendizabalen partituretatik aterako da. Hertzainak taldearekin ere aritua, ez zuen sekula pentsatu zinemarko musika konposatzea izango zuenik ogibide. Juanma lagunaren filme guztiak, «La regenta», «Extasis», «Cachito», «Hotel y domicilio» eta beste hainbat ditu kurrikulumean./47



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria




Gipuzkoako Diputazioa  
Kultura eta Euskera Departamendua

Argiztapen honen editorko laguntzaile:  
En la edición de esta publicación colabora:

**kutxa** fundazioa  
fundación

# ORAIN ARGIA REN HARPIDEDUN EGINEZ GER



HAUETAK  
OPARIREN BA  
ESKURATUKO DUZ  
DOHAINI

ANTTON OLARIAGA

*Alukiss*



BASOTIK EDANEZ

IDAZLEEN PIZTIARIOA BARRUAN

erein

ALUKISS-BASOTIK EDANEZ

ANTTON OLARIAGA



POSTERRA (63 x 43): GERRA AURREAN ARGIA REN HARPIDEDUN ZEN FAMILIA BAT SUPAZTER ONDOAN.

KIOSKOAN BAINO  
%20a MERKEAGO

## ARGIA REN HARPIDEDUN IZAN ZAITEZ

Telefonoz ere egin dezakezu harpidetza zenbaki honelara deituz  
9etatik 1era eta 3retatik 7etara  
**943 - 37 15 45**

ANTTON OLARIAGAREN  
ALUKISS - BASOTIK EDANEZ

ARGIA REN POSTERRA

**HARPIDETZA TXARTELA**

**☎ (943) 37 15 45**

**FAXA: (943) 36 10 48**

IZENA _____	1. DEITURA _____
2. DEITURA _____	TELF. _____
HELBIDEA _____	POSTA KODEA _____
HERRIA _____	HERRIALDEA _____
BANKU EDO AURREZKI KUTXA _____	
SUKURTSAL HELBIDEA _____	SUKURTSAL ZKIA. _____
KONTU KORRONTEA/LIBRETA	
<input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/>	<input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/>
Entitate	Sukurtsala
	K.D.
	Kontu zenbakia

**ARGIA: Zirkuitu ibilbidea 15**

**LASARTE-ORIA 20160**

**HARPIDETZA SA**  
(BEZ barne)  
Hego Euskal Herria  
12.100 pztz  
Ipar Euskal Herria  
685 libero  
Espainia 12.100 pztz  
Beste Atzerriak  
15.750 pztz  
Airez 24.850 pztz

Euskal Kulturaren  
URTEKARIA  
etxean jasotzeko

# IRAKUR- LEAK MINTZO

## Bost minutu berandu

PARISEN dagoen La Santé (zelako ironia!!) espetxerako bisita prestatu nuen. Bidaia merkeago izateko treneko txartela gutxienez hamabost egun lehenago erosi nuen (Jocker txartela) Hendaiaiko tren-geltokian. Eguna iritsi zenean eta etxetik abiatu baino lehen ogitartekoa, fruta eta gaileta batzuk prestatu nituen, motxilan sartu eta kotxea goiz hartu Hendaia garaiz heltzeko, aparkatzeko problemarik izan ez nezan, oporrak baitira eta nabari baita jendearen mugimendu handia, gora eta behera. Gaua zen. Trenera igo eta egunsentiarekin batera Paris hiriburuan aurkitu nintzen. Austerlitzeko tren-geltokian bertan karteratik metroko mapa atera nuen. Zein metro hartu eta zein geralekutan jaitsi eta igo behar nuen ikusi eta jarraian lur azpiko labirintoan murgildu nintzen St. Jacques Boulevarderaino.

Urduri naiz, gaur larunbata denez metroak ez dira hain arin eta ez dira hain maiztasun handiz ibiltzen, eta erlojuak esaten dit berantzen hasi naizela. Ez! Ezin naiz berandu iritsi, ezin dut 45 minutuko bisita galdut! Metroa astiro doa. Azkenean St. Jacquesera iristen naiz. Bertatik, motxila bizkarrean dulararik, korrika ateratzen naiz, karreterak gurutzatu, La Santé espetxeko kalea hartu eta arnasestu batean goizeko Setan funtzionarioen aurrera iristen naiz. Nire 'espainol' karneta erakusten diet eta... «a non madame! Ce

*n'est pas possible!! Il est huit heures!.* Ez zidaten sartzen uzten goizeko 8ak zirelako, bertako araudiak zortziak bost gutxira arte ematen baitu aukera bisitariak barrura sartzeko eta ni bost minutu beranduago iritsi bainintzen. «*Ecoutez-moi, s'il vous plait, j'ai le rendez-vous a huit heures...*», arren, zortziatarako dut hitzordua emana...

Zentzudun elkarrizketa bat eramaten ahalegindu nintzen: nire bidaia ia 2.000 kilometrokoa zela azaldu nien, borondate-izpi bat azal zezaten eskatu nien. Giza eskubideak kontutan hartuko balituzte ziur nintzela sar nintekeela adierazi nien. Jacques Chiracek Afrikako Burundi estatuari giza eskubideak errespetatu ditzan atzo bertan, ostirala, eskatu ziola jakinarazi nien, nireak non gelditzen ziren galdetuz.

Ez zen modurik izan. La Santé espetxea inguratzen duen harresi handiaren aurrean kalean gelditu nintzen. Presoa, aldiz, barruan nire bisita itxaroten, zergatik azaldu ez nintzen jakin gabe.

Gertatutakoak ez du itzulbiderik, itzulbide bakarra etxerakoa, Euskal Herrirakoa zen.

Berriro kaleak gurutzatu, metroan sartu, trena hartu, Hendaia iritsi, kotxean igo eta etxera.

Oinarria: inoiz ikusi eta irakurri ez dugun espetxeko araudiaren arabera bost minutu beranduago iritea.

Zer sentitu nuen? Zer sentitzen dugu senideok?

Eta zu..., irakurle..., barka iezadazu nire problema irakurtzen zure denboratik bost minutu galarazi badizkizut.

**MAITE GOIZUETA IABEN (SENIDEAK**

**ELKARTEKO KIDEA)**

**LASARTE-ORIA (GIPUZKOA)**

H I R U K O

T X I K I A N

## Ofizio anitzekoa

**G**aztearoan, ofizio bakarra aukeratu beharra, areago, ofizioaren barnean zerbaitetan bereziki espezializatzearen egokitasuna, oso hedatua zegoen iritzia zen. Eskolan bereziki. «*Ofizio anitzekoa, pobre segurua*». Topiko horren pean zegoen kulturaren hazi izan gintuzten, horren azpiko trankari erreparatu gabe. Izan ere, gaitz bakarrek irakasleen diktadura jasana izan genuen. Ikasketetan izan ezik, bestelakoetan ere pairatu izan genuen iritzi horren ondorioa: musika, aberatsen denborapasarako; kirolean, lehen bait lehen bakarra aukeratu; kirolbakarrenean, lan berezi batean espezializatu... Maisuen —guk ez genuen maistrarik ezagutu— hertsitasunaren semealabak nahi gintuzten. Eta orain, gizarte industrialarekin batera guzua ere bukatzen ari da. Ez omen dugu aski formaziorik gizarte informazionalan konektaturik bizitzeko, sare industrialean konektaturik bizi izan bagina bezala. Guzua, gaia makinan sartu eta piezak kontatzean zetzan, eta agindutako pieza kopuru minimoa lortzen bagenuen gaitzerdi.

**JOXE MARI OSTOLAZA**

# ARGIA

**JABEA:** ZERUKO ARGIA, S.A.L.

**LEHENDAKARIA:** Joxe Mari Irazusta.

**ZUZENDARIA:** Pello Zubiria.

**Kontseilu Editorialeko**

**Arduraduna:** Baleren Bakaikoa.

**Erredakzioa:** Xabier Aranburu, Arantxa Erasun, Mikel Jauregi, Juan Joxe Petrikorena, Arritxu Zelaia.

**Maketazioa:** Berdaitz Goia.

**Dokumentazioa:** Ernesto Ibarluzea, Ainhoa Gerra.

**Administrazioa:** Jasone Larrarte.

**Harpidetzak:** Olatz Korta, Elena Guinea, Maider Amenabar.

**Hedapena:** Ixabel Bereziartua.

**Publizitatea:** Iñigo Txintxurreta, Nekane Zubeldia, Itziar Diaz de Durana, Miren Larrarte.

**HELBIDEAK**

**GIPUZKOA:** Zirkuitu ibilbidea, 15. pabiloia. 20160 Lasarte-Oria.

Tlf: 37 15 45. Faxa: 37 34 03/36 10 48.

**BIZKAIA:** Zabalburu 2, 1. ezkerre. 48003 Bilbo. Tlf: 410 34 34. Faxa: 410 37 15.

**IPARRALDEA:** Xalbardin baita. 64122

Urruña. Tlf: 59 47 60 00. Faxa: 59 47 60 01.

**NAFARROA:** Iratxeko Monastegia 70, 3. ezkerre. 31011 Iruñea.

Tlf: 17 80 78. Faxa: 17 80 77.

**LEGE GORDAILUA:** NA 80-1963.

**ISSN:** 0213-909X.

**BATZORDE PAREKIDEA:** 72562 E.

**INPRIMATEGIA:** Antza, S.A.L.

**INFORMATIKA:** A.S.P., S.A.L.

# Madrilek erabakitzen ohi du

**NAFAR** politikagintza aspaldi dugu bidezidorretatik abiatua. Egun, erabateko krisian dagoen alderdia dugu hizpide. PSNn ez dago giro. Pasa den asteburuan Lurralde Batzordean gertatutakoak alderdi barruko krisia areagotu egin du. Asko ustekabeen harrapatu gaituen erabakia larunbatekoa. Kontraesana badirudi ere, Nafarroako Erribera, onerako edo txarrerako, menpe-raezina bezain erabilia izan da beti. Oraingo honetan, Lurralde Batzordeko bileraren ostean bere dimisioa aurkeztu duen PSNko gestora izan da Nafarroa Garaiko hegoaldekoen *oldarpena* jasan duena. Epelak omen ziren alderdi honetako oinarriak. Bilera aurreko egunetan, zinegotzi sozialistaren batek, bere jarrera azaltzeko unean, UPN baino HB zuela nahiago esan izan du. Nafarroako Erriberan Bigarren Errepublikaren ondareak gaur egun ere duen pisua ote? Ohi den bezala kontrastea nagusi gure lurraldean.

**PSN-PSOE-K** politikagintzan hartu beharreko jokaera genuen Madrilek izendatutako gestoren eginkizuna. Funtsean, UPNk osaturiko gobernuari bide ematea zen bete beharreko lana. Zeren truke? Horixe izan da askoren *kiniela-gaia*. Ugariak eta, erresuma zaharreko politikagintza bideratzen

jaiok direnentzat ezagunak *sozialistoe*k ezkutatzeko dituzten aferak. Teorian baino praktikan eman den hitzarmenaren ondoren, UPNk agintea berreskuratu eta alderdi sozialista oposizio *leiala* egiteko prest. Madrilen prestaturiko jokaldia. Gestorako bozeramaileak esana da, Madril da erabakigunea, berak baitu lehen eta azken hitza. Hitz bakarrekoak nonbait. Alderdi ezberdinetako nafar politikariek maiz salatu izan duten kontua, sukurtsalismoaren afera hain zuzen ere, lotsagabeki baieztatua. Bere burua kritikotzat duen PSNko sektoreak ere, *purgatoriaren* beharra azpimarratuz, gestoren alde jokatu du.

**IRAGANAK** eskaintzen digun behatokitik etorkizun beltza ageri Madrilen kontra *oldartu* direnentzat. Tuterako talde sozialistari gertatutakoa lekuko. Eskuin espainiarrak Nafarroan duen sukurtsalekoen agintaldia amini bat berandutuko da.



Alta, bada gertakizun hauek bestelako moldez aztertzen dituen. Horren arabera, PSN Juan Cruz Allik hondatzen duen bigarren alderdia litzateke. Ustekabeak nonnahi eta datozenak —ziur egon izanen direla— ezin igarri.

Gobernuari bizkarra emanez zutik dirauen Foru Monumentuaren andereak lagundurik igaro ditu abuztu amaiera aldeko gauak. Menturaz, elkartasun mezua adierazteko igo zen bisitariari helarazi dizkio bere igarpenak. Badakigu nori galdetu.

**PATXI LARRION**

## ZABARKERIAREN ERRESUMAN

**ASTE** beterako bederik egunero esku artean dugun errealtatearekin deskonektatzeko modua egin dugu abuztuan gehientsuenok. Eta berriro konektatzerakoan, utzi genituen arazoak ia zeuden horretan aurkitu ditugu. Zergatik ote da hain zaila aldatu ezean gutxienik aurrera egitea, galdetzen diogu gure buruari. Betidanik zintzilik ditugun gai nagusiak mugituko dituen kristorik jaio ez dela dirudi, agintean hamasei urtez aurpegi berak ikusi dituen herri honetan. Etxeratu zara berriro Europatik, Iparraldeko

autopista zati laburra iragan, Hendaia-Irungo muga —omen— desagertuan *kola* egin, Gipuzkoako errepideetan barneratu... urteak joan eta urteak etorri gizakiak ehitatzeko tranpa bihurtu den Donostiako Añorgatik nola edo hala pasa zara, eta Gasteiz bitartean lepoa dozena erdi bat aldiz arriskatu behar izan duzu. Nola asmatuko dute bakea ekartzen Europako autobide nagusi batean argiak behar bezala ezarri eta bide erdian kamioi bat ordu laurdenero traban ateratzea konpondu ezin duten gure politikariek?

**PELLO ZUBIRIA**

## GAL AFERA: GALINDO ETA CESID-EN PAPERAK



### Ezinbestekoa

BAKEA eta demokrazia gizartearen funtzio-namendu normalerako ezinbesteko jotzen ditugunontzat eta ideia ezkertiarren porrota kalte nagusizat dugunontzat, larriak dira azkenaldion azaltzen ari diren gertaerak eta haien inguruan agertutako zenbait jarrera.

Euskal Herria suntsitze ia osoraino ekarzen ari den ETaren eta bere zenbait ingurueren indarkeriari aurre egin nahian denbora eta ahalegin asko daramat. Herritar askok ontzat eman badute ere ahalegin hori, beste askoren jarrera behar bezain kementsua eta ausarta izan ez delakoan nago.

Nere hitz publiko oro nere alderdiarena baino koalizio gobernu baten eta hiri baten alkatearenak behar dute izan, hiriko herritarren sentsibilitate eta eskubideen erantzu-

na izanez. Horregatik nireganatu ditut bakearen aldeko lehia eta herritarren arteko elkarriketa bidez kontsentsu politikoa lortzeko apustua. Apustu horretan erakunde eskudunak gara nagusi, bakoitzari eman zaigun ardura zintzo eta leialki betez.

Gure herriaren normaltze politikoa eta herritar guztien elkarbizitzazko eta askatasuneko etorkizuna, eta garapen ekonomikorako beharrezkoa den bakea, premisa hauetatik bakarrik abia daiteke. Beraz, 1984an ere gauza bera esaten nuen, ezin ditut ahaztu gerra zikina, gehiegikeria eta ustelkeria, eta horrek demokrasiari eta askatasunari egin dizkion kalte larriak; eta aldi berean, askatasunaren etsaiei eman zaizkien abantailak eta argudioak.

Bereziki azipimarratzen dut Rodriguez Galindori eman zaion askatasuna. Epaitegiari eta bere erabakiei begirune ezinbestekoa zor diegu eta hala adierazten diet, baina Galindoren fidantzarik gabeko askatasunarekin burutzen diren gertaeren bilakaerak eragiten

duen nahasmena eta ipar galtzea larriak dira.

Zalantzarik ez dago euskal gizarteak alor askotan gertaera honek alarma handia sortzen duela eta dudan ardura politikotik ezin nintekeela isilik gelditu. Gure gazteek, gero eta ugariago diren bakezaleek, kezka politikodun herritarrek eta, zergatik ez esan, neure alderdikide ugarik ere sinesgarritasuna eta bermeak eskatzen dizkiete erakundeek. Eskaera horretan bat gehiago naiz. Horregatik defenditu dut Estatuako erakunde guztiei sumario hauen instrukzioa erraztu eta bizkortzeko eskaera, legezkoatasunetik atera gabe eta legearen aurrean herritar guztiok dugun berdintasuna errespetatuz.

Gertaera triste hauei irtenbidea emateko ahaleginik zuzenena hori da, horren baitan dagoelako erakunde botereen eta demokrazia honen sinesgarritasuna, eta terrorismoaren kontrako borrokan gordetzen dugun koherentzia osoarena. Azkeneraino jo behar da ardura guztiak argitu arte, okerrena zauria gaiztoaren gainean uztea litzateke.

**Xabier Markiegi** EAeko Arartekoak adierazi duenez, «*guraso askok ez diete egia historikoa kontatzen seme-alabei eta Euskadi beti biktima gisa aurkezten dute.*

Bestalde, **Alberto Perez Calvo** desagertu berri den PSNko gestora zenaren buruak ondokoa adierazi du: «*Gestoraren kontrako PSNko sektorearekin kolaboratu du Allik, EAk eta Ardanzak berak bezala. Harrigarria da autonomia elkarte bateko lehendakariak horrelako interferentzia lanak gauzatzea beste alderdi bateko kontuetan, beste elkarte autonomo bateko gobernu-osaketan eragina duten kontuetan.*

Sakabanaketaz eta euskal presoen gerturatzeaz hitz egin du **Jaime Mayor Oreja** Espainiako Barne ministroak: «*Jakina denez, ETako presoen egoera gogortzeko edozein tratamendu desio du iritzi publikoak. Eta alderantziz, hobekuntza bat dakarren tratamendu ororen aurka dago gizartea, baita preso senitartekoen aldeko hobekuntzak badira ere.*»  
**Juan Mari Atutxa** EAeko Herri-zaingo sailburuak ere gai berari

heldu dio: «*Legeak dio presoak etxetik ahalik eta hurbilen egon behar duela. Pentsatu behar dugu egunen batean gure artean biziko direla. Hau guztia irentsi dugun txikle handi bat bezalakoa da, eta liseritu egin behar dugu. Ezin dugu pentsatu suntsiketetan. Beraiek hala egingo lukete abal balute. Ziur. Faxistak baitira.*


Bestalde, **Floren Aoiz** HBren bozeramailearen aburuz, «*multizine areto batera joaten bagara eta bakar batean sar bagintezke, sartuko gara edo ez, baina inork ezingo du esan filme ezberdinak ikusteko aukera libre izan dugunik. Euskal gizarteak aukera ezberdinen artean noiz erabaki duen esan diezadatela.*



Sabin Intxaurrea, EAko erakunde politikarako arduraduna eta legebiltzarkidea

# «Astakeria litzateke EAK eta EAJk bat egitea, publiko ezberdina baitute»

**O**rain 46 urte Zeanurin jaioa, egun ere bertan bizi da (herriko zinegotzi dugu). Garaikoetxea lehendakariaren idazkari berezia izan zen. Lanbidez ekonomilaria da, baina baita ikaslea ere, egun master bat egiten ari baita.



**Irailaren 4an hamar urte bete dira EA sortu zela. Zer balorazio egingo zen nuke hamar urteotan egindako lanaz?**

Orain hamar urte bi alderdi abertzale genituen: EAJ eta HB. Honen aurrean, euskal gizarteak eskaintza ezberdin bat eskatzen zuen, egun EAK islatzen duena: eskaintza aurrerakoia, sozialdemokrata. Nahiz eta nahi genukeen adina indar ez eduki, eremu egokia betetzen ari gara. Gainera, indarkeriaren ara-

■ «Ez dugu independentzia lortu, eta ondorioz, ezta gure helburua ere». (Argazkia: Alberto Elozegi).

zoa gaindituz gero, etorkizun oparoa izango du EAK. **Zertan dira ezberdinak gaur egungo EA eta duela hamar urtekoa?**

Alderdiak ez da gertatu nahi genuen berritzea, beste alderdietan gertatu ez den bezala. Europan, Estatuan eta Euskal Herrian bertan, orain dela hamar urteko liderrak eta egungoak berak dira.

EAK ilusioa sortu zuen jaio zenean. Urteen poderioz, ordea, ilusio hori itzali egin da zenbaitengan. Baina ez EAri dagokionean soilik; oro har, politikarekiko ilusioa galdu egin du gizarteak. Gainera, ez gara gai izan indarkeriaren arazoari aurre egiteko.

**Alderdi barruko berritze falta aipatu duzu. Etorki-**

**zun burbilean arazo bilaka daiteke bori.**

Azken bi urte hauetan jende berri asko etorri zaigu, oso prestatua. Beraz, orain hamar urte ez genuen jende gaztea daukagu, eta erreleboa ziurtaturik daukagu epe laburrera.

**Hasieran jarri zenituzten helburuak bete dituzuela esan al daiteke?**




Alderdi abertzalea gara, eta alderdi abertzale batek Euskal Herriaren askatasuna izan behar du helburutzat. Argi dago independientzia ez dugula lortu, eta ondorioz, ezta gure helburua ere.

Gizarteari begira, gizarte aurrerakoiago bat nahi genuen. Tamalez, azken urteotan ildo kontserbadorea gailendu zaigu, mundu osoan gertatu den bezala. Kasu batzuetan, orain dela hamar urteko egoera berean jarraitzen dugu. Beraz, ez daukagu harro egoteko arrazoirik. **Hauteskunderaz hauteskunde, alderdi abertzaleak beberanzko joera jasaten ari dira azken urteotan, EAJ izan ezik. Ezer berezirik adierazten al dizu horrek?**

Denok izan dugu errurik horretan. Hau aitortu ondoren, esan behar dut abertzaletasunari ez diola batera mesederik egiten indarkeriak. Indarkeria gaindituko balitz, herriarengan beste ilusio bat piztuko litzateke eta horrek alderdi abertzaleak indartzea ahalbideratuko luke. Irtenbidea bilatzeko, alderdi abertzaleok gutxieneko batasuna behar dugu lehenik, eta irtenbide bateratua adostu ostean, espainiarrekin negoziatu, beti ere herritar gehienek borondatean oinarrituz eta bake bideak erabiliz.

**Indar abertzaleen gainbehera indarkeriak soilik azal al dezake?**

Ez dakit soilik indarkeriak azaltzen duen, baina neurri handi batean bai. Europari begiratuz, inguruko nazioe-



**«Egin behar dena da alderdi abertzaleak indartu eta alderdi espainolistak ahuldu». (Argazkia: Alberto Eloseggi).**

tan honelako arazorik ez dagoela ikus dezakegu. Ipar Irlandan egon da antzeko arazo bat, baina soluzio-bidean da jada.

**Abertzaletasunaren beberanzko joera nabarrena da oso Bizkaian. Zeanuriko semea izanik, zein etorkizun ikusten diozu abertzaletasunari Bizkaian?**

Indar abertzaleak gai izango bagina etorkizunera begira beste ipar bat jartzeko, egoera honek badu konponbiderik. Baina epe laburrera ezkorra naiz. Hala ere, gazteek

konpon dezakete guk konpondu ezin izan duguna.

**Ezberdintasun pertsonalak desagertuz gero, urte batzuk barru EAK eta EAJk bat egin dezaketela esatea astakeria al da?**

Elkarlanean jardun dezakegula argi dago, egun ikus daitekeenez. Baina astakeria handia litzateke EAK eta EAJk bat egitea, beraien publikoa ezberdina baita. Bien eskaintzak beharrezkoak dira herri honentzat: EAJren eskaintza abertzale kontserbadorea eta EAren eskaintza abertzale aurrerakoiagoa, sozialdemokrata. Egin behar dena da alderdi abertzaleak indartu eta alderdi espainolistak ahuldu.

Indarkeriarik gabe, HBko eta EAKo kide askok, bien

## HAMARREKOA

### JOSEBA AZKARRAGA

«Lagun ona eta abertzale handia; uneotan, faltan botatzen dugu GAL aferan»

### LUIS MARI RETOLAZA

«Abertzale historiko bat; bere garaian, giza-eskubideak alde batera utzita, bere lehendakaria zenaren kontrako jarrera izan zuena»

### NICOLAS R. TERREROS

«Bere aitaren izena erabiltzen ari da, baina aitaren oinazpira ere ez da iristen»

### JON IDIGORAS

«Tortazaila frustratua; gizon sinpatikoa da, baina bide okerrak erabiltzen dituena»

### CARLOS ITURGAITZ

«Espainolista izan arren, kasu honetan euskarak zerbaiterako balio izan duela dirudi»

### JASONE IRARRAGORRI

«Laguna eta nire abokatua»

### KARLOS RODRIGUEZ

«Formak ondo zaintzen dituen arren, sakonean oso pertsona gogorra da»

### JAVIER MADRAZO

«Bere ideiak aurrera eraman nahi ditu, baina erakaragarritasunik gabeko gizona da»

### JOSE ANTONIO ARDANZA

«Gobernua bere esku izanik, ez du lidergorik»

### INAXIO OLIVERI

«Hezkuntza sailburu ona»

**«Euskal gizarteak eskaintza ezberdina eskatzen zuen orain 10 urte, EAK islatzen duena: eskaintza sozialdemokrata»**



«Ajuria Eneko Mahaiaren lorpen bakarra kontzientziatuz lana izan da». (Argazkia: Alberto Elozegi).

botoak gehituz, alderdi indartsua osatuko genuke. Beraz, EAJk eta EAK bat egitea ez da bidea. Alta, etorkizunari begira, ikuspegi aurrerakoa dugun alderdiok bat egitea da jorratu beharreko aukera. Nola? Denborak esango du.

**EA eta HBren arteko harremanak sekula baino botzagoak direla dirudi.**

Zoritxarrez hala da. Baina denon artean saiatu behar dugu HBk erakunde guztietan parte har dezan, berauean lan eginez.

**Ajuria Eneko Itunak ez al du egoera hori eragin neurri handi batean?**

EAK beti izan du HB gabeto batean edukitzearen aurkako jarrera. Indarkeriaren arazoa gaintitu nahi badugu, ezinbestekoa da HBren harreman onak edukitzea. Beraz, Ajuria Eneko Mahaia fase berri batean sartzea proposatu du EAK.

**Ekainean ETak astebeteko ekintza armatuen ete-**

**naldiak sortutako aukera ez zen ezertan gauzatu. Noiz eta nola bitz egin behar da ETarekin?**

Denon erruagatik galdu genuen aukera hura, baina batak bat ETaren erruagatik. Une horretan alderdi espainolistak denok uste baino urrunago joan ziren, baina ETak ez zien aukerarik eman bake-bideei.

Noiz hitz egin ETarekin? Edozein unetan. Baina badi-rudi ETarentzat bitartekariak ETak berak eta Espainiako Estatuak izan behar dutela. Hori, ordea, hutsegitea da. Ekintza armatuak alde batera utzita, indar abertzaleon arteko gutxieneko adostasuna lortu behar dugu. Ondoren, Espainiako Estatuarekin negoziatu beharko genuke.

**Horren arabera, ETA alde batera geratuko litzateke negoziaketetan. Ez al du zeresanik erakunde armatuak?**

Irtenbidea alderdi politikoen negoziatu behar dute, ETak ez bezala, beraiek jasotzen baitute herriaren sostengua. Hala, HBk hartu beharko luke parte horretan.

**Enfrentamendu egoera areagotu egin da udan, eta horren seinale dira azken asteotako kale istiluak. Enfrentamendu zibilerako arriskua aipatu duenik ere bada.**

Bide horretatik ez goaz ino-rra, sufrimendua areagotzea besterik ez da lortzen. Ilusioa berpiztu behar dugu. Kale istiluen aurrean legea aplikatu egin behar da, baina giza eskubideak erres-

**«Indarkeria gaintituta, beste ilusio bat piztuko litzateke eta horrek alderdi abertzaleak indartzea ahalbideratuko»**

petatuz. Beraz, bideo-kamerak jartzea ez da egokia. **Indarkeriaren aurkako borrokan Eusko Jaurlaritzaren gidaritzza eskatu du EAK, eta kritika gogorak jaso ditu ordainetan.**

Ajuria Eneko Mahaiaren lorpen bakarra kontzientziatuz lana izan da: duela hamar urte herritar askok indarkeria ez zuen arazotzat hartzen, eta egindako salaketen ostean, orain abertzale gehienok argi ikusten dugu indarkeria kaltegarria dela. Baina Ajuria Eneko Ituna normalizazioa eta bakea lortzeko sortu zen, eta honetan ez dugu urratsik eman. Mahaia urtean birritan biltzeko baldin bada, eta gainera ETaren indarkeria soilik salatuz, sobera dago.

Fase berri bati ekin behar dio Mahaia, eta fase berri horretan gehiengoz funtzionatu behar luke. Bestetik, Eusko Jaurlaritzak gidaritzza hartu behar luke.

**Cesiden paperak ez desklasifikatzeko Aznarren Gobernuak hartutako erabakiari eta Galindoren kaleratzeari buruz egindako Mahaiaren bileraren ostean, Ituna ETaren aurkako tresna soila bilakatu dela esan al genezake?**

Sozialistek eta PPK ETaren aurkako tresna bezala ikusten dute, eta ez bakea lortzeko tresna gisa. Beraz, lehen-dakariak fase berriari ekiten ez badio, Ardanza itun bat hausten arituko litzateke.

**Asko esan eta idatzi da PSE-EEK eta PPK bilera borretan izan zuten jarrerari buruz. Zuri zer sensazio geratu zaizu?**

Afera isilean mantendu nahi dutela argi dago. Esaterako, Aznarrek erabiltzen dituen

argudioak bere aurka doaz. Iragana argitzeko bere esku dituen tresnak ez baditu Justiziaren esku uzten, Justiziaren lana oztopatzen ari da. ETari bere ekintzak aurrera eramateko arrazoiak ematen ari da Aznar.

**EA alderdi borietako batekin dago EAko Gobernua, eta duela gutxira arte Nafarroakoan.**

Behin baino gehiagotan eskatu izan dizkiegu kontuak. Akordioak errespetatzeko asmoa dugu, baina akordio edo alderdi sozialistako norbait GAL aferan inplikaturik dagoela azalduko babiliz, alderdi hori edo EA hirukoan sobera leudeke.

**EA izan da EAeren eta Nafarroaren arteko batzordearen bultzatzaile nagusienetakoa. XXI. mendeari begira, ikusten al duzu Hegoaldearen artikulazio formularik?**

Nafarroan abertzaleek nahi adina indar ez badute ere, abertzaleak ez diren alderdiek ere ikusten dute Nafarroa Euskal Herriaren bihotza dela, eta arrazoi asko daudela elkarlana sustatzeko. Hala ere, guk haruntzago joan nahi genuke, egitura politikoa komun batean denok egotea baita gure nahia, Iparraldea gehituz. Momentuz, EAeko eta Nafarroako

**T A N T O A**

**Natura eta baserria**

EAJ-KO garaietatik ezagutzen dut Sabin, urte asko dira jada. EA sortu zenean, berriro berarekin jardutea egokitu zitzaidan. Gustura gainera. Bizkaiako batzorde eragilean, bederatzirentzako aritu izan gara elkarlanean biok. Bera bertako lehendakari zenean, nik idazkari nagusi gisa jardun nuen. Ç Beraz, eta hainbat urtez berarekin lan egitearen poderioz, bera ezagutzeko aukera eta sortea izan dut.


Politikagintzan lehen urratsak EAJn eman arren, egun urrun dago EAJtik. Izan ere, oso aurrerakoa baita, politikoki zein gizarte-ereduari dagokionez: politika sozial ezkertiarra Euskal Herrian uztartzea du helburutzat.

Pertsona zintzoa da: pentsatzen duena argi eta

garbi defenditzen du, edonon. Benetako abertzalea da, goitik behera eta behetik gora. Hala, Euskadiren independentzia du helburu.

Horretaz gain, ezin aipatu gabe utzi euskaltzale amorratua dela, eta euskal kulturaren defendatzaile sutsua. Bertsolari saio asko entzuten du urtean zehar, eta trikitixa eta euskal doinuak ditu gogokoen.

Sabinen ezaugarri nagusienetako bat zera da: beti arduratu izan da ikasketez, modu horretan etorkizunari aurre egiteko prestatu asmoz. Izan ere, Sabinekin ondo aski daki etorkizunak edo zer ekar dezakeela, eta politikagintzaz gain, bizitza normalerako prestakuntza ez du sekula ahaztu. Horren adibidetzat, orain burutzen ari den masterra.



**Juan C. Goienetxea  
EAko Bermeoko  
alkatea**

Inon galduko ez litzatekeen pertsona da, baina bere bizi-filosofia beti naturaren defentsaren aldekoa izan da. Hori dela eta, naturaz eta honekin zerikusia duen guztiaz inguraturik bizitzea du gustuko. *«Zeanuritik at, arraina uretatik kanpo bezala»*, dio berak. Baserri giroa izugarri maite du, hiri handi batean nekez biziko litzateke.

legebiltzarretan onartutakoa mantentzea da lortu beharrekoa. Izan ere, Nafarroako Legebiltzarrean adostutakoa atzera botatzea iruzurra litzateke.

**Iparraldeari dagokionez, ordea, gauzak zailxeago daude.**

Iparraldean ez dago erakunde propiorik eta hori oztopo handia da. Dena den, aurrera begira akordioak lortzea litzateke helburu nagusia.

**Estatutua agorturik dagoela esan izan du hainbatetan EAk. Autogober-**


**nuaren garapenerako zer planteatzen duzue?**

Autogobernuaren mugak denon artean adostu behar genituzke eta honetarako autodeterminazio eskubidea ezinbestekoa da.

**MIKEL JAUREGI**

**EGUZKITARAKO  
BETAURREKOAK**

**IKUSTEKO  
BETAURREKOAK**



Betaurreko bakar batzuetan den-dena daukazu. Eguzkitarako diseinurik modernoena eta zure ikusmenak behar duen graduazioa. Eta 9.800 pta.n baino ez, montura barne.

MULTIOPTICAn dena dago zure alde, lehenean asma dezazun. Estatuko Optika Sarek handienaren garrantia ere bai.

**9.800** PTA. N  
**AURRERA**

**ZINKUNEGI**

**MULTIOPTICAS**

**ZERBITZU OPTIKOETAN 1a**

**Hernani, 4 - DONOSTI**

Populazioaren erdia da hizkuntza hau ulertzeko edo mintzatzeko gai

# Alguer, katalanak bizirik dirauen Italiako hiria

**A**sterixen komikiek dioten legez, inguruak erabat irentsi ezin izan dituen herriak badira oraindik. Sardinia irlako Alguer hirian hoge mila lagunek katalanari eutsi diote egundaino.

KATALUNIATIK ehundaka kilometrora ere bada katalanez mintzo den herririk. Sardiniako Alguer hirian - 40.000 lagun inguru- biztanleen erdiak dira katalanez hitzegiteko gai. Bertakoek 'alguerera' deitura erabiltzen duten arren, adituen ustez ez dago zalantzarik: Katalunian, Valentzian, Andorran, Rossellón, Balearietan eta Aragoako ekialdean mintzatzen den



**Turistentzako trena Algueren, katalan heredentziaren adierazgarri. (Argazkia: El Temps).**

berbera da Alguereko hizkuntza ere. Katalana, alegia. Ingurune geo-linguistikoak eta historiak erantsitako ñabardurak agerikoak dituela ahoz gabe. Sardinierak, gaztelerak, italierak, proventzerak eta beste dialekto zein hizkuntza ba-

tziek utzitako eragina nabarmena baitu alguerarak.

Konkistatzaile askoren menpe ibiliak dira, izan ere, sardiniarrak, Feniziarrek, erromatarrek, bandaloek, pisatarrek, genoarrek, Aragoako erregeak, ingelesek, eta azkenik, italiarrek be-

renganatu izan dute. Katalanaren eragina aspalditxokoa dute, beraz, Jaime II.a Aragoakoak Sardinia konkistatu zueneko, XIV. mendean. Eta sasoi hartan katalana zen Aragoako gortean hizkuntza ofiziala. Alguer hiria -Alghero italieraz,

## Katalanaren eragina aspaldixokoa dute Algueren, Jaime II.ak Sardinia konkistatu zueneko, XIV. mendean

L'Algher sardinieraz- zuen erdigune geografikoa Katalunia-Aragoako erresumak, Valentziatik Napolirako erdibidean baitzegoen.

### Herri ekimena

ASPALDIKO kontuak herriek. Mende luzez ahantzi zuen gero Kataluniak bazuela Mediterraneo erdian bere mintzaira bereko herri-rik. Ignazio Pillito izeneko artxibari alguertarrak 1864ko Bartzelonako Lore-Jokoetara poema batzuk -katalanez- bidali zituen arte. Orduan jabetu ziren katalanak Sardinian noizbait ibiliak zirela beren aurrekoak, baita hizkuntz-hazirik utzi ere. Eduard Toda diplomatikoak, Sardinian destinatuta zegoela, «Un poble catalá d'Italia. L'Alguer» liburua idatzi zuen 1888an eta «Berraurkikuntza»ren idazkitzat jo izan da harrezkero.

Egun, Algueren katalanez bizi nahi dutenek ez dute lantergi erraza. Italiara da nagusi kaleetan eta jende helduari entzun ahal zaio, gehien bat, katalana. Italiako Gobernuak, berriz, ez du aparteko borondaterik ageri hizkuntza gutxituak sustatzeko. Badago egon horretarako lege eta erakunderik: «Tutela e Valorizzazione della Cultura e della Lingua della Sardegna» izeneko legea, adibidez. Baina herri ekimenari esker ari da bere buruari eusten alguerera. Carles Sechi alkateak burubelari bultzatu du katalana irakaskuntzan murgiltzeko kanpaina; Omnium Cultural elkarteak badu indarririk;

helduei katalana irakasteko eskolarik bada (Escola d'Alguerés Pascual Scanu), edota aldizkaririk.

Irratia katalanez entzuteko aukerarik ere izan zuten Algueren 1982tik 1994ra bitartean. «Radio Sigma»k entzuleen % 20tik gora bereganatu zuen tarte horretan eta, gainera!, bizirik irauteko adina publizitate. «Mami» legea medio isilarazi zuten «Radio Sigma» baina Antoni Soggiu zuzendariak badu berriro martxan jartzeko itxaropenik. Irratiarekin batera «Verd Alguer» hilabete-karia ere (10.000 ale) plazaratzen zuten, erdia italiaraz erdia katalanez. Irratia isiltzean eten zuten aldizkariaren kaleratzea. Udazkenerako, ordea, kalean izango da berriro.

### Esperantza

ALGUEREKO beste pertsonaia ezagun bat Antoni Nughes apaiza da. Katalanez ematen du meza Sant Francesc elizan, «L'Alguer» aldizkaria zuzentzen eta inon diren saltsatan aritzen. Kezka bikoitza azaltzen du Nughesek alguereraren geroaz. Bata, 20.000 hiztun besterik ez duen mintzairak bizirik irautea. Bestea, katalanak itsu itsuan ez irenstea. Bere ustez, alguererak etxe barrutik eskola eta elizarako bidea egin behar du lehenbizi, prentsara gero. Nola nahi ere, baikorra da: «*Kapilaua naiz, eta kapilau batek ez badu esperantzarik, nork orduan?*».

XABIER ARANBURU

## MUNDUA EZ DA BIRIBILA

### Etorkinen amesgaiztoa Europako gotorlekuan

**E**UROPAKO hainbat lurraldetan kanporatu dute aurtengo udan inmigranterik, afrikar-magreb-iarrrak gehienak. Bi adibide aski ditugu argi ikusteko zenbateko jautzia emana duten alor honetan Europako Batasuneko gobernuak, Schengengo taldea osatzen duten gogorrenek batik bat. Lehenbizikoa Espainiako hegazkin militarretan kanporatutako 103 afrikarrena dugu. Jipoiu eta drogatuta kanporatu ere. Bigarrena Askatasun, Berdintasun eta Elkartasunaren Frantzia horretatik datorkigu. Saint Bernard elizan zeuden 300 etorkinak indarrez kaleratzeko aginduzio gobernuak polizia. Eta horietako batzuk ere hegazkinez deserriratu zituzten.

**ADIBIDE** biok hainbat burutaziotarako aukera dakarkidate. Lehenbizikoa, etorkinen kanporaketak ez dituztela gobernu eskuindarrek soilik burutzen. Frantzia eta Espainian sozialistak agintean zirenean charter edo ferry bidez jende ugari Afrikaratu zuten. Espainian, eguneroko kontua da txalupetan bertaraten diren afrikarrak atxilotu eta kanporatzea. Frantzia, berriz, kanporatutako zenbaitzuk urte luzeak egin dituzte bertan bizitzen eta lanean. Baina bapatean klandestinitatean, dokumenturik gabe aurkitu dituzte beren buruak, 1993 eta 94ko lege aldaketak medio.

**HEGAZKIN** militarrek erabiltzeak kanporatze lanetarako eta Belgikako Armadako ofizial batzuek idatzitako txostenak («*inmigranteen komunitateak mehatxu garbia dira gure Erresumarentzat*») zera adierazten dute: gaia militarizatzen ari direla. Schengengo Esparrua indarrean jartzeak eta G-7 taldearen bilerek *inmigranteak kriminalizatze*ko diskurtsoa jarri dute martxan, eta bidenabar, «Hegoaldeko Etsaia» deritzaioten horri aurre egiteko errepresio neurriak. Garapena Sustatzeko Dirulaguntzak, bestalde, arazoa begi bistatik ezkutatzeko besterik ez du ekiten. Eta konponbide bakarra bururatzen zait: eskubide berdintasuna European bizi diren etorkinentzat, beren sorterrietan Zuzenbidezko Estatuak osatzen laguntzea, eta justizia-berdintasunean oinarritutako Ordena Ekonomiko Berria.



KEBIR SABAR  
Analista politiko

# Altzairutegietako hondakinez errepideak egiteko asmoa

**E**uskal Autonomi Elkarteko altzairutegiek sortzen dituzten zepa edo hondakinak errepideak asfaltatzeko erabili ahal izango dira agian, Oñeder enpresaren ekimenak aurrera egitea lortzen badu.

EUSKAL Autonomi Elkarteko altzairutegiek 600.000 tona hondakin sortzen dute urtean, Espainia osoko kopuruaren erdia kasik. Horiek guztiak zabortegetan jartzea 420 milioi pezeta kostatzen da -17 milioi libera-; hots, 700 pezeta tona bakoitzeko. Enpresei diru galera, batetik, eta ingurugiroari mesede handirik ez, bestetik, labeetako sarrak horrela pilatzeak. Eta aldeantiz eginez gero? Alegia, hondakinei dirutan probetxua atera eta ingurugiroari



**Ingurugiroaren mesederako omen litzateke altzairu-zepak asfalto bihurtzea.**

kalterik egin ez? Bada, egiterik badago, eta horretarako sortu zuten Oñeder enpresa EAEko hamar altzairutegi pribatuk.

Bostehun milioi pezeta

inguruko fakturazioa izan zuen iaz Oñederek altzairutegietako errautsen tratamendua medio. Beste zeregin bat izango du aurrerantzean enpresak: sarrak edo

labeetako hondakinak asfalto gisara erabiltzeko baliagarriak direla ziurtatzea. Teknika eta ingurugiro alorak, biak izan beharko ditu kontuan Oñederrek. Le-



**Bidea asfaltatzen, mende honen hasieran. (Argazkiak: Kutzaren fototeka eta Auñamendi Entziklopedia).**

henbizikoari dagokionez, hondakinez egindako bideetan autoen gurpilak nola eransten edo labaintzen diren ikusi beharko da; euri, eguzki, elur, izotz eta gainerakoei nola eusten dieten; orain arteko sistemek baino gehiago edo gutxiago irauten duten; garestiagoak edo merkeagoak ote diren material berriak, eta abar.

### **Kalte ttikiagoa**

INGURUGIRO atalean ere izango da zer azterturik. Batez ere fundizioetako hautsek lurrari kalterik egin diezaioketen ala ez. Xabier Eliasek, Oñedereko gerenteak dioenez, abantaila gehiago ageri ditu asfaltatze sistema berriak kalteak baino. Hasteko, karaitzezko idorki gutxiago erabili beharko litzateke errepideak egiteko edo konpontzeko. Ondorioz, harrobiek ere gutxiago hondatuko litzukete gure mendiak. Biga-

renik, altzairutegiekin zabor-tegi gutxiago beharko litzukete labeetako hondakinak jaurtitzeko.

Alderdi teknikorik itzuliz, hor ere mesederako izango omen hondakinen sistema, gurpilak hobeto atxikiko baitzaizkio bideari eta 'gozoago' ibiliko autoak. Bestalde, merkeagoa litzateke errepideak altzairutegietako hondakinez egitea karaitzezko harriez baino. Azkenik, balukete balizko beste erabilera bat ere altzairu labeetako zepa edo eskoriekin: ongarri modura zabaltzea zelai eta soroetan. Izan ere, kare, fosforo eta magnesio asko du zepak eta lurraren emankortasuna handitu eta hobetu egin omen lezake. Dena den, esperimentazio mailan dabil oraindik zepa eta nekazaritzaren arteko harremana.

Altos Hornos de Bergara, Esteban Orbegozo, Marcial Ucín, Aristrain, Nervacero,

# La Casa del Café

— Juan Iriondo S. A. —  
DONOSTIA



## ■ Lege aldetik sortu beharko da arau berririk, Espainian ez baitago asfaltotarako hondakinen legedirik

Productos Tubulares, Sidenor, GSB, Aceralava eta Tubos Reunidos enpresek bulztatu zuten asfaltorako hondakinen ekimena eta Oñeder sortu. Eusko Jaur-laritzak badu parterik, akzioen % 10. Ehun milioi pzetakoa da guztira enpresaren kapital soziala. Laguntza teknikorik ere izango du Oñederek: Gipuzkoako Inasmet enpresarena, material berrien alorrean aritzen dena, eta Bizkaiko Labein zentro teknologikoarena. Hiruen artean aztertuko dute zepak errepideak egiteko erabil ote litezkeen.

### Araurik gabe

LEGE aldetik, bestalde, sortu beharko da arau berririk gai honi dagokionez. Espainian ez dago, izan ere, asfaltorako hondakinen erabilera arautzen duen legedirik. Nora jo, orduan? Kataluniarra, hortxe bai baitago baimendua sarrak edo zepak errepideak egiteko erabiltzea. Eusko Jaur-laritzak ere antzeko legerik kaleratu zain dira EAEko enpresak. Eta, bien bitartean, Europako zenbait herrialdeetako legedia aipatzen dute erredutzat. Ingalaterrako hegoaldeko altzairutegiek azken 30 urteotan indarrean dutena, adibidez. Horien hondakin ez toxikoez badute birziklatze tratamendurik, beti ere Heckett Multiserv multinazionalak ezarritako arauen baitakoa.

Irakurleren batek irribarrerik ere egingo zuen honezkero zepa edo eskoriarren kontuok irakurrita, ba-

serrikoa bada batez ere. Hego Euskal Herrian bederen, baserrietarako estradak eta galtzadak altzairutegietako zepaz estali izan dira asfaltitik. Espainiako Gerraren ondorengo bizpahiru hamarkadetan zabortegi merkeak izan zituzten fundizioek. Estratetan jaurtitzen zuten hondakin zama kamioiek. Baserriarrak, gus-tura, debaldeko jeneroz ber-ritzen baitzituzten bideak. Altzairutegietakoak, pozik horiek ere, hondakinak hutsaren truke urrutiratzen zituztelako.

Eta orduan ere bazen *feed-back* deritzaion fenomenorik. Ekologia hitza bazenik ere ez zekien apenas inork, baina birziklatze bikoitza egin ohi zen. Lehenbizikoa, lantegitik baserrietako galtzaretara zepa edo eskoria eramatea. Bigarrena, baserriarrek egin ohi zutena, beren probetxurako gainera. Kamioiek garraiatzen zuten jenero guztia ez baitzen hondakina. Burdina ere asko zen tartean. Horren puskak jaso eta berriro Patricio Echeverria, Esteban Orbegozo edo beste edozein altzairu enpresari saldu ohi zioten baserriarrek. Txatarraren prezioa oso goitik zebilen garai haietan (1940-50-60ko hamarkadetan) eta hori medio mila pezetako batzuk irabaztea ez zen harrizkekoa izaten. Diru asko sasoirako. Kontu berria ez da, beraz, altzairutegietako hondakinen birziklatzea.

XABIER ARANBURU

## DIRUAREN HOTSA

### Txekorrak ezin atera ukuilutik

**E**Z da berriketa, ez, txahala gizentzea hainbeste kostatzen eta ezin saldurik ibiltzea! Aurtengo udak ez dio inongo onik egin haragiaren salmentari behinik behinik. Udaberrian, sobera jakingo duzue honezkero, Erresuma Batuko 'behi eroen' asuntuak haragiaren kontsumoa asko jaitsiarazi zuen; udako opor garaiak, berriz, beheerako joera horri eutsi egin dio. Egoera latz honek berehala eragin beharko lioke hausnartaririk edonori, burua gehiegi nekatzen aritu gabe ere. Eta hau da baserriar askoren galdera: Euskal Herrian ekoizten den kalitatezko haragia ongi identifikatua eta bereiztua balego, derrigor behar luke 'salida' edo irtenbide ona merkatuan; ez da, baina, horrela gertatzen. Zergatik ote? Zer eragiten ote gure ukuiluetako txahalak ezin saldurik ibiltzea baserriarrek, haragia ezin merkaturaturik?

**MESFIDANTZA** litzateke arrazoi nagusietakoa, nire ustez. Izan ere, euskal kontsumitzaileek ez diote konfidantza nahikorik harakinak saltzen dion haragiari. Zer dela-eta ote horrelako jarrera Euskal Herriko haragi erosleek? Informazioz ezak, batetik, eragiten du delako mesfidantza hori. Bestetik, bertako kalitatezko haragiak behar bezainbateko identifikazioz ez izateak. Zer egin ote liteke egoera honi aurre egiteko? Nire iritzirako, Euskal Herriaren nortasuna eta kultura defendatzen duten orok, abertzale guztiek alegia, badute erantzunkizunik gai honi dagokionez ere.



MARTA AGIRREZABALA  
EHNEko kidea

**BERTAKO** nekazal produktzioa beheeraka joan beharrean gorako bidean jarriko bada, eta txekorrak ukuiluetan alferrik galduko ez badira, hiru zutabedun etxea eraiki beharko da. Lehenbizikoa eraikitzea baserriarroi dagokigu: kalitatezko produktzioa -haragia- ekoiztea eta plazaratzea. Bigarrenarena kontsumitzaileen esku dago: bertako produktuak kontsumitzea. Hirugarren zutabea, azkenik, administrazioaren erantzunkizuna da: erosleari, haragi kontsumitzaileari, behar hainbateko informazioa eskaintzea esku artean duen produktuaz. Eta produktu hori argi eta argi bereizi eta identifikatzeko hartu beharreko neurriak hartzea. Edozein herriaren eraikuntza prozesuan atal garrantzitsua baita ekonomia ere, eta honen baitan, lehen sektorea.



Trebiño eta enklabe hau Araba barruan egoteko nahia ezagutaraziko dituzte igandean

# TREBIÑO, KONDERRI AHAZTUA

**T**rebiño ezagutarazteko helburuz burutuko dute igande honetan Trebiño Eguna, hau Araba barruan izatea aldarrikatuz. Bertatik txangoa egin dugu, azterketa historikoa medio. Trebiñoko euskaldunen zailtasunak ezagutu ditugu.



Trebiño Araban sartzeko erreferenduma proposatzen du Uda elkarteak. (Arg.: Joseba Olalde).

AURTENGO Trebiño Eguna Euskal Herri osoari ezagutarazi nahi dion enklabea Euskal Herriko mapan Arabaren erdikaldean bereizita ikus daiteke, Trebiñoko konderria. Lurralde hau Burgosko probintziari dagokio administratiboki, baina bertakoek arabartzat dute beren burua. Sentimendu hori praktikotasunagatik omen datorkie; Gasteiz on-

do-ondoan dute, eta hantxe dago trebiñotarren jarduera ekonomiko eta sozial gehienaren gunea. «Aizu! Trebiño hortxe duzu». Igande honetan ospatuko den Trebiño Egunaren leloak argi adierazten du antolatzaileen asmoa. Trebiño, eta Trebiño Araba barruan egoteko aspaldiko nahia Euskal Herrian ezagunagoak izatea dauka helburu jai aldarri-

katzaile honek. Trebiñok bi udalerrri dauzka: Trebiño eta Argantzun. Guztira, 1.100 biztanle inguru, 44 herrixkatan banaturik. Hiriburua Gasteiz dela esan daiteke, han 2000tik gora trebiñotar bizi baitira. Arrazoia, migrazio bortitza. Trebiñon ez dago nekazaritzaz gain beste lanbiderik, eta gazteek nahiago izaten dute hirira aldegitia. Lurralde pobre eta

ahaztua da.

XV. mendean Trebiño konderri bihurtu zen, baina bere lurraldea mende bat lehenagotik zegoen jauntxo baten menpe. Honek gaur egungo Arabako beste herrietatik bereizi zuen juridikoki. XV. mendearen amaieran Arabako Ermandadea eratu zen, Argantzun barruan zegoelarik, baina 1501. urtean, Arabako be-



**Pedro Portilla Trebiño Eguna antolatzen duen Uda elkarteko lehendakaria da.**

hin-betiko mugak finkatu zirenean, Argantzun ez zegoen bertan, arrazoi ezeza-

gunak medio. Trebiño, Ermandadearen aurka zegoen konde baten menpean

egonik, hasieratik geratu zen Arabatik at. 1833. urtean, oraindik indarrean dagoen banaketa probintziala ezarri zenean, aurrez existitzen ziren lurralde historikoak errespetatuak izan ziren. Horrela, Trebiño eta Argantzun Arabatik kanpo geratu ziren. Gaur egun, enklabe osoa Trebiño izenez ezaguna da, Argantzun Trebiñoko kondearen menpekoa ez den arren. Historia albo batera utzita, trebiñotarren bizitza betidanik Arabarekin lotua dagoela esan behar da. Gerora, lotura hori areagotu egin da. Gazteek Gasteizko institutuetan ikasten dute, nekazariak Araban saltzen dituzte beren produktuak, gaitxoak Gasteizko ospitaletara doaz, guztien dirua arabar aurrezki kutxetan gordetzen da...

### **Trebiñotar izatea Araban**

ESTATUKO administrazioak, baina, errealitate honi bizkarra ematen dio. Trebi-

## **Trebiñok bi udalerrri dauzka: Trebiño eta Argantzun; guztira, 1.100 biztanle inguru, 44 herrixkatan banaturik**

ño, legez, Burgos da. Trebiñotar batek ehun kilometro inguru ibili behar ditu bere hiribururaino heltzeko, Arabako Foru Aldundiak errepideetan egindako hobekuntzak ez dira Trebiñora iristen, eta abar. Ofizialki burgostar izateak trebiñotarren bizitzak baldintzatzen ditu. Horregatik, Araban sartzen ahalegindu dira historian zehar. Azkeneko hamar urteotan Uda elkarteak egin du aldarrikapen zahar honen alde borroka.

### **Uda elkarteak**

BURGOSKO Diputazioan elkarte sozio-kultural gisa legezztatua, Uda elkarteak ideologia anitzeko lagunak biltzen ditu, eta helburu baktzat Trebiño Araba barruan sartzea du. Horretarako, Trebiñon erreferendum bat egitea eskatu du, baina legedia bere aurka dago. Gaztela-Leongo estatutuak prozesu luzeago baten azkeneko urrats moduan jasotzen du erreferendumen aukera. Aurretik, Argantzun eta Trebiñoko udalek herrialde aldaketaren aldeko mozio bana onartu beharko lukete, eta ondoren, Burgosko Diputazioak baiezkoa eman beharko luke. Argantzuneko Udalak onartu egin du dagoeneko Araban sartzearen aldeko mozioa, baina ez Trebiñokoak; honetan, PP

## **Burgosen euskaraz**

Legalki burgotarrak izateak sortarazten dizkien arazoak nolabait leuntzeko, Trebiñoko udal biek Arabako Foru Aldundiarekin zenbait hitzarmen sinatu dituzte. Horien artean, konderriko OHOk 40 ikasleak biltzen dituen eskolak, euskara ikasgai ikasteko aukera egotea.

Trebiñon ez dago Irakaskuntza Ertaineko zentzurik eta bertakoek konderritik kanpo jo behar dute Derrigorrezko Hezkuntza amaitu ondoren ikasten jarraitzeko. Gehienek Gasteiz aukuratzen dute, eta han, euskara ikasgaia hartzera beharturik daude. Honek arazo handia sor diezaieke aurretik euskaraz

hitz bakar bat ere ikasterik izan ez dutenei. Condado de Treviño ikastetxe publikoa Gaztela-Leongo komunitate autonomoaren menpe dago, eta bertako Gobernuak ez dio inoiz deskribatutako errealitate honi kasurik egin. Trebiñoko haurrek euskara ikasgaia hartzeko daukaten beharrei aterabidea emateko, Argantzun eta Trebiñoko Udalek, alde bategatik, eta Arabako Foru Aldundiak, bestetik, akordio bat sinatu zuten azken honek ikasketa-egitarauan ikasgai berri bat ezartzeak sortaraziko lituzteen gastuei aurre egin ziezaien. ume burgostar batzuek, beraz, euskara ikasteko aukera dute.

## Borroka luze bezain antzua

Trebiñotarrek Araba barruan egoteko nahia Araba bera bezain zaharra da. Edo zaharrago, Arabako Ermandade bat sortzeko lehendabiziko ahalegina Agurainek, Gasteizek eta Trebiñok egin gaitzuten XV. mende hasieran. Egitasmoak ez zuen aurrera egiterik izan eta azkenik, Trebiño Arabatik kanpo gelditu zen. Gogoratzen den hurrengo integratze-saiakera 1646koa da. Garai hartan gaur egun baino hobeto uler zitekeen tra-

biñotarrak arabar izateko irrikitan egotea, arabarrek Foruak baitzituzten eta ez baitzuten Gaztelako biztanleek zeuzkaten zerga gogorrek ordaindu beharrik.

Historiak hobekien jasotako integratze-saiakerak 1833. urtea ezkeroztik egindakoak dira. 1880an, Arabako Diputazioak trebiñotarren arabar izaera aldarrikatzea eskatu zion Madrilgo Gobernuari, baina ez zuen lortu. Arrakasta bera eduki zuten ondo-

rengo saiakerek. Elkarte pribatu bat 1919an, Argantzun eta Trebiñoko Udalak 1938an eta 1950ean, konderriko auzokide talde bat 1978an, guztiak ahalegindu ziren Trebiño Araba izan zedin eta guztiek porrot egin zuten, Burgosko Diputazioak ezarritako eragozpenen erruz. Inoiz errepresioa ere erabili zen konderriko biztanleen aurka, baina 300 urteren buruan trebiñotarren nahia berean jarraitzen du.

baita 1100 lagunok egin dezakeguna, adierazi digu Udako partaide batek. Arzoa konponbidean egon daitekeela dio. «1994an Madrilgo Senatuan eraturtako batzorde batek, Gaztela-Leongo Juntak eta Eusko Jaurlaritzak gaia aztertuko lukeen lan-talde bat eratzea proposatu zuen. Hau mesedegarri izan liteke guretzat, Gaztela-Leongo Juntak Burgosko Diputazioak baino ikuspegi zabalagoa baitauka Trebiñori dagokionean». EAEko Gobernua, bere aldetik, prest eigo dago Trebiño Araba barruan egon dadin. Gainera, Genikako Estatutuak ez dio aldatetari inolako oztoporik ipintzen. Bitartean, igande honetan ere Trebiño Burgosena da.

da nagusi, Burgosko Diputazioan bezala, eta alderdi hau Trebiño Burgosen mantentzearen alde dago.

Lege-eragozpenei aurre

egiteko, Uda elkarteak hainbat ekintza antolatu ditu. Horien artean Trebiño Eguna. Duela hiru urte, Trebiño Eguna kanpora zabal-

tzearen beharra ikusi zuten.

«Batetik, arzoa ezagutzarazteko; bestetik, oztopo legalen aurkako presio soziala areagotzeko, urria

UNAI BREA

# JOKIN ZAITEGI

## X. ITZULPEN LABURREN SARIKETA

**AEDK ANTOLATUTA**

**Gipuzkoa Donostia Kutzaren  
eta Arrasateko Udala eta  
Gipuzkoako Foru  
Aldundiaren laguntzarekin**

**Arrasate 96**



**GAIA: Librea**

**EPEA: 1996ko urriaren 30a baino lehen**

**SARIA: Lehenengo saria: 250.000 pta.  
Finalistak: 50.000 pta. bana**

**INFORMAZIOA: AED Elkarte  
Pablo Uranga, 4 behe  
Tel. 77 12 28, Faxe: 79 74 01  
20500 Arrasate (Gipuzkoa)**

**X.  
URTEMUGA**

Donostiako Euskararen Udal Patronatuak Famili programa zazpigarrenez antolatu du

# FAMILIA BERA EUSKALTEGI

**D**onostiako Euskararen Udal Patronatuak arestian sortutako Famili programak zazpigarren urtea beteko du. Inaxio Agirrek programaren nondik norakoak azaldu dizkigu.

EUSKO Jaurlaritzak Donostian egindako azterketa soziolinguistikoaren arabera, 1989. urtean euskararen erabilera %10,30koa zen Gipuzkoako hiriburuan. Datu hauek ikusita, Euskararen Udal Patronatuak euskara ikastaro berezia jarri zuen martxan. Donostiarrak soilik har dezakete parte eta egitasmo honen helburuak bi dira: alde batetik, seme-alabei beren gurasoak euskaraz hitz egin ahal izatea eta bestetik, familia gunean euskara indartzea.

Horretarako, orain dela zazpi urte euskarazko ikastaroak ematen hasi ziren



**Gazteluko barnetegian egindako ekintzetan hamaika lagunek hartu zuten parte.**

familia ingurua osatzen duten guztientzat: guraso, pediatra, ginekologo, etxeko laguntzaile... Lehengo urtean 252 lagunek eman zuten izena eta Euskara Teknikaria den Inaxio Agirrek azaldu bezala, «kopuru po-

*lita da, gainera urtetik urtera handituz doala esan behar dugu. Guraso gehienak alfabetatze prozesuan hasitakoak dira eta umeentzat oso motibagarria da euskaraz ikasten ari direla ikustea».*

Aurten ere irailean hasiko dira ikastaroak eta, 1995. urtean bezala, ekimenaren bigarren zatiarekin jarraitu nahi dute, hau da, euskararen erabilera familia banean bultzatzeko asmoz barnetegiak antolatzen jarraitu nahi dute oraindik ere, esperientzi pilotu bat besterik ez baita, «bi barnetegi egin ditugu, bata Gaztelun eta bestea Abaltzisketan. Ez dira familia gehiegi ani-

**«Umeentzat motibagarria da gurasoak euskaraz ikasten ari direla ikustea»**

**INAXIO AGIRRE**

matu (guztira 27 pertsona) baina joan diren guztiak oso gustura etorri dira eta esperientzia positibotzat jo dute», argitu digu Inaxio Agirrek.

### Familia gutxi

ARRAZOI ezberdinak direla eta, ez dira guraso gehiegi bildu egitasmora. Guztira 27 ordu pasatzen dituzte etxetik kanpo hainbat ekintzetan parte hartzen. «Larunbat goizean irteten gara eta igande arratsean Donostian gaude bueltan. Hain jende gutxi joatearen arazoak aztertu ez baditugu ere, nonnabi aurkitu ditzakegu: elkarbizitze arazoak, ekonomi arazoak... Kopurua gebitzen ez baldin bada, beste zerbait pentsatu beharko dugu», dio euskara teknikariak.

Balorazio bat egin dezan eskatu diogunean, gustura azaldu da Euskara teknikaria. «Baikor agertzeko arazoak baditugu. Hala ere, oraindik mugatua da egiten dugun esku-sartzea; sakondu egin behar dugu eta areagotu gurasoek egiten dituzten igorpenak galerririk izan ez dezaten eta famili gunean euskeraren erabilera guztion artean sendotzeko».

Aurrerantzean egiteko ditzuten egitasmoen artean, barnetegietako ekintzak bultzatzea dago. «1995. urtean izan genituen 252 ikasleetatik 27 joan ziren eta oso kopuru eskasa da. Famili gebiagok parte hartzea zoragarria litzateke. Baina argi dago oraindik ez dugula sistema egokia aurkitu eta horretan gabiltza momentu bonetan», adierazi du Agirrek.

AITOR AZKONBIETA



## ALFONSO SANZ

EHEko kidea

**Kanpezuko Udal Euskaltea Arabako mendialdeko helduak euskalduntzeko tresna bakarra izanik, HABERen dirulaguntza murriztu egingo da eta Udalak fotokopiak bakarrik finantziatuko dituela onartu berri du. Dirulaguntzarik gabe nola aterako da euskaltea aurrera? Euskaraz ikastea ez al da guztion herritarren eskubidea? Udalak ez du lagundu beharrik?**


## MIGUEL GARCIA

Kanpezuko alkatea

Galdera hauek ez daukate zentzurik, gainera, arazo honek sutan jartzen nau. Ez da nere buruari loreak botatzeagaitik, baina zonalde honetan euskararen alde lan egiten hasi zen taldeko partaideetako bat naiz. Horretaz gain, ikastolaren lehendakari izan nintzen makina urte. Euskaraz hitz egiten ez baldin badakit ere, hiru urtez saiatu nintzen AEK-k euskaltegiaren ardura zuenean, euskalduna sentitzen naiz.

Diru laguntzei dagokionez. IKAK, 1996ko ikasterterako, 2.120.146 pezetako aurrekontua aurkeztu zigun; 1.804.706 irakasleari dagozkion gastuak ziren, 90.000 bidaiei zegokien eta 225.000 irakaslearen alokairukoak. Udal Batzaraldia egin ondoren aurrekontua onartzea

erabaki genuen alokairua eta bidaiak (astero kurtsoa koordinatzeko Gasteizera egin beharrekoak salbu) ezik. Argi dago aurrekontuaren zati handiena Udalak ordainduko duela. Irakaslea lehengo urtean Udalak utzitako pisu batean egon zen xoxik ordaindu gabe eta aurten ere, nahiz eta Udal Batzarrean aurkakoa erabaki, litekeena da soberan dautzagun pisua irakasleari utzea. Beraz, Kanpezuko euskaltegiak aurten ez ditu arazorik izango aurrera ateratzeko Kultur Etxe berriko gelan.



## URREA



● Nafarroako Antzerki Eskolak eta Iruñeko Udalak antzerkia euskalduntzeko hitzarmena sinatu dute, herritarrei antzerki-ikuskizun jarraia eskaintzeko helburuarekin.

## GOROTZA



● Hernaniko Jauregin sega apustua jokatzen San Inazio egunez. Segalariak euskaldunak ziren, eta ikusleak ere halaxe, baina... txartel honek ematen zuen apustuaren berri.


# «Arraunlariak jotzailea izan behar du ezer baino lehenago»

**K**ontxako banderaren lehenengo saioa jokatu berritan Orio aldera jo eta arraunaz hitzegiteko, inork gutxik arraun munduan duen palmaresa lortutako gizonarekin topo egin dugu erreka bazterrean.

*Kontxako estropada olinpiada dela diote, ezta?*

Hitz hori darabilkite bereziki komunikabideetan baina Donostiako estropadak dituen ezaugarri bereziak gutxietsi gabe, arraunlari batek lehertzeraino jo eta lehian gailendu dela ikusteak eragiten duen momentuko poza berdina da, Santurtzin, Ondarrun Orion edo Kontxan izan.

*Hala ere zuri ere Kontxan arraunlari eta patrioi lanetan irabazitako*



■ «Kirol honetan sakrifikatzea funtsezkoa da». (Argazkia: A. Elosgi).

*hamar banderak behin eta berriz ekarriko dizkizu gogora.*

Hori komunikabideen errua da. Urte sasoi honetan inoiz baino gehiago idatzi eta hitz egiten denez estropadetaz iritzi bila jotzen dute nigana, baina neuretzat bederen, entrenamenduekin hasten ginenetik azken saiorte, une guztiak dira garrantziz-

koak, izan ere, oriotarrontzat irabazteak besterik ez baitu balio.

Orain, hala ere, estropada gehiegi jokatzen da ene idurirako. Lehen, esaterako, Kontxan irabaziz gero eta herrira etorrita, arraunlariak ia-ia extralurtarrak bailiran miresten zituzten arraunza-leek.

*Arraunlariak beste kasta*

*batekoak direla uste al duzu?*

Nik baietz esango nizuke. Urte osoa entrenatzen jardun eta ordainean zenbat irabazten du arraunlari batek denboraldi amaieran bandera mordoska bat irabazi arren; asko jota hirurehun mila pezeta?. Kirol honetan sakrifikatzea funtsezkoa da, gorputzari gogor

egitea gustatu behar zaizu. Nekea atseginez hartu behar da, bestela arraunketan zer-bait izan nahi duenak jai dauka. Teknika beharrezkoa da gutxiago nekatuta etekin gehiago ateratzen delako, baina aldi berean teknika jotzeko behar da. Arraunlaria ezer baino lehenago jotzailea izan dadila, gero erakutsiko zaizkio jakin behar dituenak.

**Jotzailea eta sufritua behar du, beraz, arraunlariak?**

Horrela da. Mutikotan beti borrokan eta errietan jarduten genuen kirola zela medio: korrika, bizikletan, harria altxatzen eta orain ere berdin.

Lagunek esan ohi didate ea hemezortzi urteko gazte bat naizen pentsatzen dudan. Ez! badakit, berrogeita lau urte gehiago bakarrik, baina gorputzari osasuntsu antzera egoteko egurra eman behar zaio. Zer egin behar dut bada, bastoiarekin ibiltzen hasi segititik hiltzeko? Nik medikuekin azterketak egiten ditut, zintan korrika, odol analisiak eta abar, ez pentsa inozo horietakoa naizenik; baina ezer arrarorik ez badut sentitzen segi, ibili eta eman!

**Oriotarra izaki arraunlari izatea derrigorrezko izango zen garai baitan.**

Lehen aipatu dizudanez, nik denetik aproba egin nuen, Zarauzko hondartzan ere futboleko aritutakoa naiz eta pare bat txapelketa irabazitakoa. Ez nintzen teknikoa, taldeko motorra baizik. Hogeita urte nituela beste hiru lagunekin Tolosan batel bat salgai zutela jakin eta hara abiatu ginen bizikletan. Untzi xaxtar bat zen baina gustokoa iruditu eta mila pezetan batela geureganatu



«Egun, patroitzan ehunetik larogeita hamar entrenamendura etorri, eseri, tira, dutxatu eta etxera aldegiten duen horietakoa da». (Argazkia: Alberto Elosegi).

genuen. Festaz festa antolatzen ziren estropadetan (Aizarnazabal, Orio, Getaria...) irabazitako sariei esker ordaindu ahal izan genuen txalupa hura. Arraunak ere erosi behar genituen eta horretarako arrantzaleei sare artean ihes egindako angulak bildu eta saltzen genituen.

**Zorionez, alde borretatik asko aldatuko zitzaizkizuen gauzak.**

Aldatu jakina, beharko gainera, baina klub batek urtetik urtera trainerua aldatzen ibiltzeak, esaterako, Oriok hiru traineru izateak, dirua errazegi gastatzen denaren seinale da, ez beste-

rik. Ehuneneko batzuren mesedetan alferrikako gastua dela iruditzen zait. Guk 1946ean Axpen egindako traineru batekin Kontxa irabazi genuen eta handik hemezortzi urtera txalupa berdinarekin estatuko txapelketa irabazi genuen Bermeon.

Traineruak egurrezkoak ziren lehen, orain zuntzezkoak baina egun araudiak markatzen dituen neurriak zehatzak dira eta ez zait iruditzen mirari asko espero daitekeenik.

Gure garaietan, gainera, Kontxako estropadan Donostian Kultur eta Turismo Ekintzetxeak berak jartzen

zitzen untiak, denentzat berdina, baina azken finean lehen bezala gaur ere arrauna sakon eta indarrez sartzen ez duen txalupa, edozein eratakoa izanda ere, ez dabil.

**Arraunlari bezala lau bandera irabazi dituzu, eta patroi lanak eginez beste sei, harro egoteko moduan izango zara, ezta?**

Eta gehiago ez genituen irabazi joan ez ginelako. Baina badakizu arraun mundu honetan gure arbasoengandik jasota, saltsa asko pizten dela eta urte bat edo besten, diruaren aitzakitan, ez genuen jokatu. Estropadarik



«Aurten bati tokatutakoa hurrengoan bueltan etorriko da eta ez dago aitzakiarik jartzerik Hamar segunduko aldea handi samarra da eta nire ustez datorren jaietan ohorezko txandan lasai irteteko moduan gaude». (A.: A. Elozegi).

kuriosoena 1956koa izan zen; hartan bandera irabazteko hiru estropada jokatu behar izan genituen; lehendabiziko jaian San Juani irabazi genion, bigarrenean oraindik ere abantaila handiagoz nagusitu ginen, baina pasaitarrek balizak mugitu zirelakoan estropada

inpugnatu eta hirugarren bat ere jokatu behar izan genuen asteazkenez, hura ere irabaziz.

Beste gauza bat ere esan nahi nizuke: Kontxako tradizioaren izenean batere ez dakitenek jakin dezaten, 1955, 56 eta 57ko ediziotan estropada hiru ziabogetara

## «Zenbat irabazten du arraunlari batek denboraldian bandera mordoska irabazi arren? Asko jota hirurehun mila pezeta

jokatu zela.

**Oraindik sasoitsu zeundela patroi lanetara zerk bultzatu zintuen?**

Nik arraunean segitzeko gogoia nuen, hogeita hamasei urte nituela, ondo zaindutakoa izaki beste urte batzutan gorputzari egurra emanez jarraitu nahi nuen, baina Orion koadrila berri bat prestatu behar zela-eta ia derrigortuta erabakia hartuarazi zidaten. Mobilean arraunean jarraitu nuen 1974.eraingo (Oxford eta Cambridgeren kontrako estropadatan arraun egin nuen).

**Gidatze lanei ere laster hartu zenion neurria. Patroi izateko zer behar da?**

Arraunean ibilia, dudarik gabe, eta gero zerbait berezia esatekotan zentzu guztiak horretara jarri behar dituzula. Eseri eta arraunean egiteak bakarrik ez du balio. Enbarkazioan zerbait falta denean gainean egon, edozein kezka dela, arraunlari batek une txarrak bizi dituen... beti gainean. Egun patroitza % 90 entrenamendura etorri, eseri, tira, dutxatu eta etxera aldegiten duen horietakoa da. Eta, hori bai, jotzailea izan dadila ezinbestekoa da.

**Beraz, patroi ona izateko arraunlaria ona ere izan behar da.**

Derrigor ez!, baina jotzaile



sena hori berezkoa izan dezala, bere mutilei arraunerako eta borrokarako grina hori kutsatu beharko baitie txalupa barruan. Itsasoaz ere jakituna izan behar du, korronteak nondik jotzen duen, estropada eremu bakoitzak dituen bereizgarritasunak ezagutu eta abar. Olatuak hartzen ere iaioa behar du izan; olatua orain beranduegi hartzen dute, sakonean dagoenean eman behar zaio eta ez gainera datorrenean, hau da, «*neurrian hartzen ez badek joan dek*».


Gogoia izanez gero, norberak ibiliz eta arreta jarriz ikasten ditu patroitzaren sekretu guztiak. Ibaietan, esaterako, igerri egiten zaio. Bilbon bezala edo Australiara joanda ere nik berehala antzemango diot zein den horietatik kalerik onena.

Bilbon, adibidez, orain lehenengo kalea onena dela esan diezazuket eta marea-ren gora-beheran handik ordu erdira agian laugarren kalea izan daiteke denetatik onena.

**Traineru barneko kokapenak zenbaterainoko garrantzia duen gauza jakina da. Kokatzeko garaian, ordea, teoria ezberdinak daude ezta?**

Nik beti mutil txiki samarrak aurrean jarri izan ditut. Hala ere, patroia mutil kozkor bat izanez gero hankekoa indartsua eta sendoa izan behar du, patroia segida izan eta erritmoa markatzeko.

Nire kasuan edo Korta bera ere, lehendabiziko biak, leku estu samarra izaten dute eta hor estilistak, untiak salto egiten duenean heltzen dutenak jartzearen aldekoa naiz, arraunlari biziak; erdirako arraunlari handiak be-



har dira, guk esaten ditugun «*zaldiak*».

Errekan denak antzera eman behar dute kolpea baina itsasoan, sarritan haitze olatua edo trapaila denean, kolpea eman eta huts egin, hurrena kateatu, az-

kenerako mangatu edo nazkatu egiten zara, nekatu gabe erritmo bat jarri ezinean ibiltzen zara horrela. Erdian behar diren arraunlariak, berriz, motorrak dira, pala sakon-sakonean hartuko dutenak.

**«Lehen Kontxan irabazi eta herriko arraunlariak ia-ia estralurtarrak bailiran miresten zituzten arraunzaleek». (A.: A. E.).**


## NORTASUN AGIRIA

Juanito Lizarralde «Altxerri» duela hirurogeita bi urte jaio zen, «Orion noski!» ● Goitizena, «Altxerri», bere amaren baserritik omen datorkio. Hala ezagutzen dute herrian eta herritik kanpo ere ● Kontxako estropadetako lau bandera irabazi zituen gazte denboran arraunlari gisara eta beste sei, berriz, patro-

lanetan ari zela ● Hiru seme dauzka eta horietatik gazteenak igande honetan bertan hamaikagarren bandera eramanez ezake etxera Oriok irabaziz gero, Orioko traineruan arraun egiten baitu

● Nahiz eta arraun mundutik erretiratuta egon, bere autoan, oraindik ere, hiru kronometro eramaten omen ditu beti badaezpada ere ● Orioko erreka gertu ei du bere etxetik, bistara ● Ziurtzat du aurten Orioko traineruarena izango dela Kontxako bandera





«Itsasoaz ere jakituna izan behar da patroï ona izateko». (Arg.: Alberto Elozegi).

**Joan den igandeko estropada aipatu gabe oraindik: oriotarrak pozik ala?**

Pentsa ezazu, gure azkeneko bandera Kontxan, 92an ekarri genuen eta herri honetan Kontxa gabeko urteak oso luzeak gertatzen dira. Estropada osoan zoragarri jardun ziren mutilak eta nahigaberen bat beharko da aurten Kanpa ez nagusitzeko. Gure garaian itsasoa gaiztotzen zenean edozer gerta zitekeen baina orain ez da horrenbesteko gorabeherarik.

Ni oraindik akordatzten naiz Kontxan arraunean jardun eta olatuaren kolpetan, Artzai Oneko dorrea bistatik galdutako saioak. Egia esatea nahi baduzu, Kontxako bandera irabazita dauka Oriok.

**San Pedro kanpoko zia-bogatan aurretik izanda zer gertatu zen?**

Txiki Larrañagak egin zuen maniobra kanpoko zia-bogatan eredu gisara utziko nuke nik; eta ez hori bakarrik apenas zen olaturik baina mugimendu txiki guzti horiek untxiaren abailaren mesedetan maisu erabili zituela esango nizuke. Barrurako bidean Libiari hamasei segundu kentzeak dena adierazten du.

Datorren jaiean itsaso zakarra egonda ere ez zait iruditzen egokia patroia aldatzea jaiean eginiko lanagatik bakarrik bandera bere eskutan astintzea merezi baitu Txikik. Horrez aparte herrian iskanbila sortuko litzateke baldin eta Kortak bere lekua hartuko balu.

**Tiran galizarra da une**

**bonetan, bamar segundura, zuen arerio nagusi?**

Hala da, Castron zaplastako ederra eman ziguten Espainiako Estatuko Txapelketan eta garbi dago oso koadrila sendoa osatu dutela. Joan den igandean lehenengo txandatik bigarreneira haize pittin bat ekarri zuen eta horrek kalte egingo zion, noski, untxi galiziarrari batipat kanpokaldera arraun egin dutenean.

Bestalde, eta hori aitortu beharra dago, aldameneko kaleetan zirikatzeo trainerurik izan ezean topera erritmo tinko eta jarraitu bati eustea arrunt zaila dela eta erlojuz kontrako saio baten antzera, kale zozketak ez ziela inongo mesederik egin. Baina aurten bati tokatutakoa hurrengoan bueltan

etorriko da eta ez dago aitzakiarik jartzerik. Hamar segundutako alde handi samarra da eta nire ustez datorren jaietan ohorezko txandan lasai irteteko moduan gaude.

**Orioko patroï bazina, nola planteatuko zenuke datorren igandeko estropada?**

Eutsi egin behar da. Buruz jokatu, sailak jartzen erotu gabe, gustoko erritmo bat hartu eta aldameneko traineruen erreferentziak kontuan hartuz, azkenera arte bederen, txalupa barruan ahalik eta erosoan joan.

Orain, badia barrukaldera gatzela, ohorezko txanda irabazi dezakegula ikusiz gero, jo beldurrik gabe leherthu artean.

**MARTIN AGIRRE**



**BEREZIA**

# BERRIRO ESKOLARA

ARGIaren 1.590 zenbakiaren orri bereziak / 1996ko irailak 8



**Matrikulak eskuratzeko lehia**



**Gurasoen poltsikoko mina**



**Euskarazko eskola - liburua urri izatetik konpetentziara**



**Haur eskolak gainezka daude**


## IRAILEKO MALDAN GORA MOTXILA LEPOAN HARTUTA



Azken hamabi urteotan Euskal Autonomi Elkartearen 210 ikastetxe desagertu dira

# Matrikulak eskuratzeko lehia

**I**kasleak lortzeko borroka nabaria izan da ikastetxeen artean, apirilean beste edozein salmenta produktu bezala iragarri ziren egunkarietan. Urtean urtean urriago diren matrikulazio bila jo dute Euskal Herriko ikastetxe gehienek.



210 ikastetxe desagertu dira EAEn azken hamabi urteotan. (Argazkia: Alberto Elozegi)

AURTENGO ikasturterako aurrematrikulazio garaian orain arte ia ezohikoa zen publizitate mota ikusi dugu egunkarietan: ikastetxeena. Egunkariak, irriatiak, errepide ondoko kartelak, postontziak... aurrematrikulazio kanpainak ekarritako publizitate gutxi hainbat euskari izan ditu.

Ikastetxeak beste edozein salmenta produktu bezala iragarri dira udaberri hasie-

rako hilabeteetan. Eskaintzen dituzten ikasmilak, eskolaz kanpoko ekintzak egiteko baliabideak eta ikastetxea ikustera joateko gonbiteak agertu dituzte besteak beste, bai ikastetxe pribatu nahiz publikoek egin dituzten iragarki gehienek.

Ez da harritzekoa ikasle bila aritzea ikastetxeak, matrikulazio kopurua urtean urtean gutxituz baitoa.

Lehen ikasmila bakoitzean hogeitau haurretako bi edo hiru gela egotea ohikoa bazen, gaur egun ikastetxeetan haur txikien mailan gela bat baino gehiago egotea harritzekoa da.

Euskal Estatistika Erkundeak emaniko datuak matrikulazio gutxitzearen adierazgarri dira: 1994-95 ikasturtean, 1993-1994koan baino baino 12.917 ikasle gutxiago matrikulatu ziren,

%ko 2,6 gutxiago orotara. Ikasle gehien galdu zituzten maila OHO izan zen.

## 1984an baino 210 ikastetxe gutxiago

HAUR matrikulazioaren jaitzierekin eragin handia izan du ikastetxeetan. Hainbat ikastetxe atekatu behar izan dira. Azken hamabi urteotan Euskal Autonomi Elkartearen 210 ikastetxe desagertu dira. 1994-95 ikastur-

tean 1.175 ikastetxe zeuden, aurreko ikasturtean baino 38 gutxiago.


1984tik hona desagertu diren 210etatik gehiengoa haur eta lehen mailako irakaskuntza arloan aritzen zirenak ziren.

Lanbide Heziketa arloan ere desagertu dira ikastetxeak azken hamabi urteotan, aldiz Batxilergo Balio-naiztun Bateratu eta Irakaskuntza Ertainen Erreforma mailako ikastetxeak gehitu egin dira.

### Haurrak D eredia nahiago

AURTEN Irakaskuntza Ertaina arteko ikasmaitan 367.393 ikasleek egin dute aurrematrikulaketa Euskal Autonomi Elkartearen, hoi-etatik gehiengoa Bizkaikoak izan dira, 195.732 hain zuzen ere.

Urtean urtean matrikulatzen direnen artean gehiago dira euskararen aukera egiten dutenak. Horrela erakusten du aurten lehen aldiz matrikulatzen diren haurren ikasmaitak. EAEn ia 60.000 haur daude Haurren Hezkuntzan aurrematrikulaturik, eta horietako erdiak D ereduaren aukera egin dute. Datu esanguratsua Irakaskuntza Ertaina arteko maitetan dauden D ereduko



Haur Hezkuntzan D eredia da aukeratuena, EAEn erdiak baino gehiagok aukeratu du D eredia aurrematrikula egiteko orduan. (Arg: A. Bayo).

ikasleak % 31 osatzen dutela kontuan izaten badugu.

Gipuzkoan matrikulatu dira haur gehien D eredian, Haur Hezkuntzan matrikulatu direnen % 64ak eredu hori aukeratu baitu, A eredian matrikulatu direnak aldiz % 3,95a besterik ez dira

izan. Ikasmaita berean Bizkaian % 47ak aukeratu du D eredia, aldiz %30a izan da Araban euskarazko eredian matrikulatu dena.

Nafarroako datuak bestelakoak dira, aurten 13.871 haur aurrematrikulatu baitira Haur Hezkuntzan eta

hauetatik 3.250 dira D ereduaren aldeko apostua egin dutenak.

Urtean urtean haur gutxiago matrikulatzen dira, baina gero eta gehiago euskaraz.

ARRITXU ZELAIA

**txiki park**

Errekalde etorbidea  
(Coca Cola ondoan)  
20009 DONOSTIA  
Tfnoa.: 36 61 93



✓ Aparkaleku zabala eta dohainik!

✓ Kafetegia

**TARIFAK**  
ORDU BAT 300 PTA.  
2 ORDU 500 PTA.

**DONOSTIAKO BIXITAN EZAGUTU BEHAR DUZUN PARKERIK DIBERTIGARRIENA ! ZATOZ TXIKI PARKERA... ETA ONDO PASA!**




100.000 pezetakoa da batez beste haurrak eskolaratzearen aurrekontua

# Gurasoen poltsikoko mina

**H**eldu da iraila eta honekin batera guraso askoren buruko mina. Liburuak, arropa, matrikula, autobusa... ordaindu beharrekoen zerrenda amaigabea da. 100.000 pezetara hurbiltzen da eskolaratzearen aurrekontua.

IKARA eragiten dio guraso bat baino gehiagori iraila heltzeak. Izan ere, ez da txantxetakoa, Gipuzkoako Kontsumitzaileen Batasunak emandako datuen arabera haurra eskolara eramateak 100.000 pezeta (4.000 libera inguru) inguruko gastua esan nahi baitu guraso askorentzat.

Baina zifra asaldagarri honek osagarri ugari ditu. Matrikula ikastetxe pribatu, kontzertatu edo publikoan



eginez gero, jakina da prezioen aldaketa handia izaten dela: batez beste 21.000 pezetako matrikula pribatua aukeratuz gero eta 7.500 pe-

zeta kontzertatua bada.

Matrikulazioarekin batera, ekidin ezineko gastuen artean eskola-liburuak daude. Liburu berriak erostean

15.000 pezeta inguru ordaindu behar izaten dituzte gurasoek urtero. Beraz, haur bakoitzeko nahitaez gutxienez jarri beharreko dirua,


Iturria: Gipuzkoako Kontsumitzaileen Batasuna

## Haur bakoitzeko ikasturte hasieran nahitaez jarri beharreko dirua, 15.000 eta 36.000 pezeta bitartekoa izan ohi da

15.000 eta 36.000 pezeta (600 eta 1440 libera) bitartean izan ohi da.

Oinarrizko kopuru hau ez da bere horretan geratzen. Haurra doan eskolan uniformea eraman behar izanez gero, zifra hori nabarmen gizentzen da, horretarako 60.000 pezeta inguru behar-kobaituzte gurasoek. Ikastetxea etxetik gertu ez baldin badago poltsikoa hustutze-ko beste arrazoi bat: haurrak autobusa hartu beharrean aurkituko dira, eta honetarako 4.000 eta 10.000 pezeta bitartean jarri beharko dira hilabetero.

Honetaz gain haurrak etxetik kanpo jaten badu, jo beste 7.000 eta 12.000 pezeta bitartean. Orain artekoak batzen baditugu, gutxienez 26.000 pezeta beharko dituzte gurasoek haurra eskolaratzeko eta garestienara joz gero, 118.000 pezetarekin egingo lukete iraileko



Iraileko eskolaratzea dela eta dendeke promozio kanpaina handiak egin ohi dituzte. (A. A. Elozegi)

oinarrizkoena.

Ez dira zerbaki horiek amaitzen ikasturte berriko kontuak. Uztarri beretik etorri ohi dira haurrentzako oinetako berriak, jertse berria, liburuentzako motxila, kaierak... Halako markako kirol oinetakoak direla, bestelako futbol talderen baten txandal berdina dela, eta antzeko eskakizunek, lehenago merkea ez zena garestitu egiten du. 12.000 pezetako kirol oinetakoak, 7.000ko prakak edo

antzekoak oinarrizko gastuei gehituz gero gutxienez 40.000 pezetatik gorako zerbakiak dira emaitza. Zifra esanguratsuak dira ordaindu behar dutenentzat, areago etxean haur bat baino gehiago izanez gero.

Isidro Oscozek, bi seme alaben aita denak, aurten semea lehen aldiz eskolaratuko du eta sei urteko alabak ere ikastola pribatu berean ikasten du. Bere hitzetan, «izugarria da ikasturtearen hasierarako be-

har izaten den dirutza. Bi seme-alabentzako autobusa, matrikula, jangela, arropa berria eta antzekoetarako ia soldata osoa behar dugu»

### Dendariak pozik

URTEKO promozio kanpaina garrantzitsuenen artean lekua du iraileko eskolaratzeak. Ez da harriztekoa, izan ere irailean ikasturte berriaren hasiera gerturatzearekin batera, eskolarako jantzi, hiztegi, liburu, eta



**LIBURUAK - DISKAK**

Pannecau, 52, - 64100 Baiona  
Tel.: 59254390 - Faxes: 59255439

## ETXEKO JANARIA TALDEENTZAKO



- ✓ Ospakizunak
- ✓ Eskolak
- ✓ Enpresak
- ✓ Herri bazkariak...

Ugaldetxo poligonoa, 27-28 / Telf. eta Faxes: (943) 49 39 69 - OIARTZUN

**Supermerkatu kate batek irailean 175 beka zozketatzen ditu, eta beste batek ordainketa epeka egiteko aukera eskaintzen du**

bestelako enrosketek dendari en diru kutxako soinu martxan jartzen dute.

Arropa dendetakoek ere argi dute, gabonetan bezain beste ez, baina beste kanpainetan baino haurrentzako gauza gehiago saltzen dira irailean. Eneka Lazkano kirol dendariak adierazten duenez, «*urte garai honetan saltzen ditugu haurrentzako txandal eta kirol oinetako gebienak. Ikasturtearen hasiera eta urtaroaren hasiera ia batera datozenez jendeak irailean seme-ala-bentzako gauzak oraintxe erosten erosten dituz.*



**Ikastetxeko jangelan jatea hilero 7.000 eta 12.000 pezeta bitartean izan ohi da. (A: J. Picón)**

Supermerkatuek egun hauetan apaletan leku ezohikoa izaten dute boligrafo, karpeta, eta eskolarako beste hainbat gauzen eskaintza berezientzako. Aurten supermerkatu kate batek, hes-

tebete marka jakin bateko edo bertako arraindegi, fruitategi edo harategian erositako 200 gr. bakoitzeko, 10.000 pezetako 175 beken zozketan parte hartzeko txartela ematen dute. Beste

supermerkatu batek iraileko erosketen ordainketa epeka egiteko aukera zabaldu du. Hala ere, irailekoa arinduko duenik ez da.

**ARRITXU ZELAIA**

## **IRAKASKUNTZ PROIEKTU OSOA**

**Haurtxoa (3-6 urte)**

**Axelko / Otsoko / Beleko (6-12 urte)**

**Ostadar (12-16 urte)**



**Euskaraz  
Euskal Herri osorako  
burututako proiektua**







# Euskarazko eskola-liburuak, urri izatetik konpetentziara

**E**uskarazko lehen testuliburua XVI. mendean argitaraturiko haurrentzako dotrina izan zen. Harrez gero hainbat eskola-liburu argitaratu dira, haserako urteetako dotrina eta gramatika euskaraz lantzeko eginiko liburu haietatik urrun daude gaur egungoak.

EUSKARAZKO lehen argitalpenak, XVI. mendekoak ditugu, bere urritasunean, erlijio gaiak dira gehien jorratzen direnak edota elizgizonak idatziak. Haur literatura eta eskola-liburuak beranduago hasten dira argitaratzen eta hauek ere gutxi.

Nahiko berria da euskarazko testuliburuaren erabilera, ohikoena gaztelera edo frantsesez argitaratutakoak erabiltzea izan da. Euskarazko testuen argitalpena, XIX. mende amaierako ideologia aldaketari loturik agertzen zaigu, abertzaletasunari hain zuzen ere. Garai honetan, kristau ikasbidea eta gramatika dira nagusiki eskolan euskaraz lantzeko argitaratzen diren liburuak. Aipaturiko gaiak ziren bestalde 1876ra arte eskolatan euskaraz ametitzen ziren testu bakarrak.


1890etik 1937ra bitartean hasten dira argitaratzen

ikuspegi abertzalea duten euskarazko silabario, irakurketa liburu, geografia edo aritmetikaren irakuntzarako eskola-liburuak. Bilakaera hau bi atal nagusitan banatu daiteke: hastapenetatik 1937ra arte lehenengoa, eta 1938tik 1982ra arte bigarrena, Euskararen Erabilera Arauzkotzeo Legea sortu artekoa alegia.

## Testuliburuaren hastapenak

URRITASUNA da 1937 bitarteko urteetako testuliburu-gintza definitzeko hitzik egokiena. Dotrinak, gramatika eta silabarioak, ipuin eta alegiak eta eskola-liburuak dira urte hauetako argitalpenak Pauli Davilak «Los libros escolares en euskera» liburuan agertzen duen legez.

1571.ean argitaratu zuen Leizarragako Joannesez «ABC edo Christionen Ins-



1804ko Bizenta Mogelen «Ipui onac» izan zen euskaraz idatzirik lehenengo alegi bilduma. (Argazkia: Alberto Eloegi)

tructionea othitz eguitero formarequin». Hurrei zuzenduta zegoen eta oitotzez gain, euskarazko irakurketari buruzko aholkuak ere bildu zituen. 1596an Bertolaza Doktoreak, «Doctrina

Christiana en Romanze y Basquenze» argitaratu zuen. XVIII.mendean erahonetako argitalpenak areagotu egingo dira eta mailarik gorena Martin de Arzadunen katiximak lortuko du.

1713an, Jose de Otxoa de Arin-ek Donostian argitaratuko du «Doctrina Christianaren Explicacioa Villa Franca Guipuzcoaco onetan itz eguiten den moduan».

1732an Baionan «Guititionoen doctrina laburra haur gastei irakhasteco», argitararaziko du Baionako gotzaiak baita «Bayonaco Diocesaco bigarren Catechima» ere, 1733an.

1735.ean argitaratuko du goi- nafarreraz Elizaldek Iruñean «Apecendaco doctrina cristiana euskeraz». 1747an berriz, Aita Larramendirena izan daiteke «Icasbidea, Cristauen doctrina azalqueta laburraquin galdeaz eta erantzuteaz», Burgosen argitaratutako Aita Asteteren dotrinaren itzulpena dena. Hamar urte beranduago, Larizko Xabierrek elebietan argitaratuko du Madrilen «Cristau dotrinaren esplicacioa aur-entzat ta andientzat-Explicación de la doctrina cristiana para los

## ■ Euskarazko lehen argitalpenak, XVI. mendekoak dira, garai horretan erlijio gaiak dira gehien jorratzen direnak

niños y los mayores».

1760an Agustinek Kardaberazek ere Asteteren katixima itzuliko du honako izenburu honekin: «Christauaren doctrina». Olaetxeako Bartolomek 1775ean Bilbon bizkaieraz argitaratuko du «Cristinauben doctrina».

### Gramatika eta silabarioak

EUSKARAZKO gramatikak, XVIII. mendearen amaieran sortu zituzten, 1741ekoa izan zen lehena, Martin Harrieten «Gramatica eskuaraz eta francesez», Baionan argitaratutakoa, euskara ulertu ahal izateko gramatika eta hiztegia barnebiltzen zituen.

1761.ean Agustin Kardaberazek «Eusqeraren berri

onac eta ondo escribitceco, ondo iracurteco, ta ondo itzeguiteco Erreglac: Cura Jaun, ta escola maisu celo-soai Jefuf-en Compaiaco Aita Aguftin Cardaberaz ec efquetcen,ta dedicatcen dieztenac» argitaratu zuen Iruñean eta apaiz eta maisuei eskaini. Bertan, haurrak gaztetandik alfabetatu behar direla agertzen du. Hau dugu dudarik gabe XVIII. mendeko gramatika testurik aipagarriena.

1852.ean J.M. Archuk «Uskara eta Franzes Gramatika, uskalherrietako haurrentzat eguina» haurrei zuzendutako gramatika argitaratzen du.

1912.ean, B.tarP.k Bilbon argitaratzen du «Euzkerazko ikasbide eza» esaldien bat-bateko itzulpenean oi-

narritutako euskara ikasteko metodoa. Honekin batera ikasleak hartzen duen konpromezua bitxia da, euskara ikasiko duenarena alegia, eta hala ez izatekotan, isuna ordaindu beharko du erakunderen batetan, Alderdi Jeltzalean gehienetan.

1913.ean, J.M. Lertxundik «Euskal-iztiya» argitaratzen du, gipuzkeraz aditzak ikasteko.

Gramatikak utzi eta irakurketaren ikasketarako, honako hauen berri dugu: 1875.ean G.Z.k Tolosan «Iracurtzaren asierac edo lenasteac euscalerrico aurrentzat» argitaratu zuen, euskarazko irakurketa lan-zteko.


1896.ean Res. M Azkuek, «Agakia euskeras irakurten ikastekoa» argitaratzen du, silabarioa hau ere. 1897.ean, Sabino Aranak, «Umiaren lenengo aizkidia bizkaiko euzkeraz irakurtzen ikasteko» argitaratu zuen, bizkaitar batek izenean sinatutako silabarioa.

1920.ean, Isaac Lopez de Mendizbalek «Umearen laguna, irakurtzen ikasteko biderik erezena» argitaratuko du eta 1931.ean, honen laburpena den «Martin Txilibitu. Irakurbide labura».

1931.ean, Eusko Ikaskuntzak sustatuta «Txomiñ-Ikasle» argitaratuko da, gipuzkeraz eta bizkaieraz. Agertzen dituen irudietatik abiatuta irakurketa landuko du.

1931.ean ere, B. Estornesek «Sabin euskalduna» argitaratuko du gipuzkeraz, irakurketaren bigarren mailara egokituta. Guzti hauek, metodo silabikoak dira, marrazkiak oinarritzat hartu eta hitzen ezagutza landuko dituztelarik.

Ipuin eta alegiak haur eta



«Lenengo aizkidia» Bizkaitar Batek goitzenarekin izenpetu zuen Sabino Aranak. (Arg.A. Elozegi).

nagusientzako irakurgai bilakatu ziren, baina gehienetan itzulpenak izan ohi ziren.

Mota honetako lehena, euskaraz idatzi zuen lehenengo emakumearena dugu, Vicenta Antonia Mogelena hain zuzen ere (1782-1854); 22 urte zituela argitaratu zuen «Ipui onac, ceintzuetan arquiteco dituzten euscaldun necazari, ta gazte guciac eracaste ederrac beren vicitza zuentze-co». Fabula bilduma dugu honetan, Esoporenak diragehienak; hauetaz gain, Vicentaren osabak (J. Antonio Mogel) idatzitako zortzi ipuin ere jasotzen ditu. Bixiak dira liburuan jasotzen duen animalien euskarazko izenen zerrendatxo baten gaztelerako itzulpena eta hauen etimologiaren azalpena: «*Ontza: Bubo. Todo lo bueno, o que no daña; Astoa. Asno. De paso lento, de asti doa.*

Goyhetche apaizak «La Fontaine» itzuli zuen bertsoan eta 1852an Baionan argitaratu honako izenburu honekin: «Fableac edo aleguisc Lafontenetaric berechiz hartuac».

### Eskola-liburuak

OSO gutxi dira euskara eta euskal kultura azpimarratzen dituzten liburuak. Ahozko tradizioa eta folklorea izan da gehienbat gorde dena. Sarreran aipatu bezala, XIX. mendearan amaieran, abertzaletasuna indartzearekin batera eraikiko dira euskarazko irakaskuntzaren aldarrikapenerako oinarriak, mende honen hogeigarren hamarkadan nagusituko dena. Honen eraginez, euskarazko eskola-liburuak sortu eta zabalteari ekin zitzaion; izan ere,



1931n argitaratu zen «Txomiñ-ikasle»-k irakurketa lantzea zuen helburu. (A: A. Eloegi)

garaiko irakaskuntzaren errealitatea erdalduna zen erabat, euskara ezagutzen ez duena batetik, eta bestetik abertzaletasunarekin zerikusirik ez duten eduki curricullarrak lantzen dituen. Egoera hau dela medio, indar politiko abertzaleek ekimen anitz bultzatuko dituzte: ikastolak, auzo eskolak, euskal eskolak... eta hauen inguruan sortuko dira hain zuzen eskola-liburuak, euskaraz eskolatuko diren euskaldunentzat alegia.

Eusko Ikaskuntza eta Lopez Mendizabalen argitatekoa euskarazko eskola-liburuak zeregin honetan arituko dira buru-belarri.

Eusko Ikaskuntzak, 1918. urtean Oñatin antolatutako lehenengo kongresutik aurrera aldarrikapen abertza-

leak indartu egingo dira bere inguruan bilduko dituzten euskal kulturaren pertsonaia esanguratsuenak. Irakaskuntza Atalak -garrantzitsuenetakoa- euskal eskolaren aldarrikapenaz gainera, Bizkaiko auzo eskolek eragindako euskarazko testugintzaren beharra asetzeko euskarazko eskola-liburuen argitalpena sustatuko du; batez ere, historia eta irakurketa liburuak, baina Primo de Riveraren diktadurak mota honetako argitarapenak eragotziko ditu, 1931tik aurrera berreskuraketari ekin artean.

Aita Zabala-Aranak sortutako lan handia burutu zuen eta aurrekoekin batera, hauek izango dira Euzko Ikastola Batzaren babespean 1932 eta 1937 artean

sortutako ikastoletan, baita Donostiako Muñoa fundazioko ikastetxean erabiliko direnak ere. Hona hemen Aita Zabala-Aranaren ekarpena: 1921ean, «Edesti Deuna, ume ikaslarientzat»; 1922.ean, «Eusko Lutelesti Txikia» geografia irakasteko; «Daneurtiztia» geometriarako eta «Zenbakiztiya», aritmetikarako; 1929.ean, «Euskerazko zenbakera», «Revista Internacional de Estudios Vascos» aldizkarian argitaratuta agertu zena; 1931.ean «Josutxu, umientzako Otoi-daztiua».

### Lopez de Mendizabalen uzta

ESAN bezala, Isaac Lopez de Mendizabalen ekarpena (1879-1977) oso garrantzitsua izan zen: 1907an, «Aita Santu Amargarren Pioren dotriña laburra»; 1913an, «Ume koxkorentzat euzkeraz egindako zenbakiztiya edo aritmetika»; 1920an, «Umearen laguna»; bost urte

## XIX. mendera arte oso gutxi dira euskara eta euskal kultura azpimarratzen dituzten eskola liburuak



## Isaac Lopez de Mendizabalen testu ekarpena oso garrantzitsua izan zen, ordura artekoak baino modernoagoak egin zituen

beranduago, hain ezaguna dugun «Xabierto», erlijioaren eta orduko euskaltasunaren baloreak biltzen zituena; 1929.ean, «Nekazaritza»; 1931.ean, «Martin Txilibitu»; urtebetera, «Seaska Abestia» eta 1933.ean, «Erleak, beren bizitza eta oiturak». Isaac Lopez de Mendizabalen testuak, modernoagoak dira ordura artekoak baino; izan ere, dagokion irakaskuntza mailara egokitzen ditu alderdi materiala dela eta, irudi, mapa, kolore eta beste berrikuntza tipografikoez ornitzen ditu.

Bi egile garrantzitsu hauetaz gain, izan ziren eskola-liburuen esparrua jorratu zuten beste batzuk ere: 1900 urtean, A.M. Azkuek Bilbon lehen geografia testuliburu argitaratu zuen: «Erkindea-Geografia», haur txikiei zuzenduta eta galde-erantzunez osatutako bi zutabetan antolatua zegoen.

1920.ean, Luis de Elizalderen «Lenengo ikasle malarako Euskal-Zenbakiztia» argitaratu zuen Bizkaiko Foru Aldundiko Irakaskuntza Sailak.

1932.ean Pirmin Iturriotzek «Lutelestia». «Iru maletan» argitaratu zuen Eusko Ikaskuntzaren babespean, irudi, argazki eta mapez



Lopez de Mendizabalen «Xabierto»-k erlijioa eta euskaltasunaren baloreak biltzen zituen. (Arg: A. Elozegi).

hornitua, gipuzkeraz zein bizkaieraz. 1933.ean, «Daneurtzitza» geometria liburu agertu zen Lopez de Mendizabalen zerrendategi batean 1935.ean, Gabriel Jauregik fisikaren ikaskuntzarako «Pisia» kaleratu zuen, eta 1936.ean, «Kimia», kimikaren oinarriko kontzeptuen ikaskuntzarako

Hauetaz gainera, ugariak izan ziren argitaratutako ipuin, abesti eta irakurketa liburuak, baina denak aipatzea luze joko luke. Gauza bera gertatzen da dotrinen arloan.

Xabier Monasterio eta Seve Callejaren «La literatura

infantil vasca. Estudio histórico de los libros infantiles en euskera» liburutik jaso ditugu 1938ko ondorengo urteetako eskola-liburuen uztaren ingurukoak.

### Debekuaren ondorengo urteak

1938TIK 1949ra arte, erabat debekatuta zegoen euskaraz edozein liburu argitaratzea. Hemendik aurrera, alde zurretatik aztertutako haurrentzako liburu batzuk baimentzen dituzte baldin eta abertzaletasuna sustatzearen aztamarik agertzen ez badute.

Nemesio Etxanizek


1950ean «Kartak, nola idatzi euskeraz?» argitaratu zuen. 1952.ean, Euskaltzaleen Biltzarrak, «Battitta eta Mariagno (Haurrak ikhas eskuaren irakurtzen)» argitaratu zuen, Iparraldeko eskolatan euskara ikasteko.

1959.ean, A. Onaindiak, Lopez de Mendizabalen «Xabierto» itzuli zuen bizkaierara. Laister hasiko dira garai modernoko ikastolak eraikitzen eta liburu honen erabilera oraindik ere ezinbestekoa zaie. Garai honetako ekimenak dira era berean Nafarroan bultzatutako «Umeen Deia» (umeentzako aldizkaritxo 1957.eko abendutik aurrera) eta Baionan Ikas erakundeak sortuko zuten ihardunaldi pedagogikoak. 1960.eko otsailean, «Zeruko Argia» aldizkariak eranskin gisa argitaratu du «Pan- Pin» haurrentzako komikia.

1968.tik aurrera, Timun Mas argitaletxe katalandarrak, «Margo Ederdun Entziklopedia» argitaratu zuen: «Abereen mundua», «Afrika, Landareen Mundua», «Sortalde urrutia», «Xomorroen mundua», «Mundua guztioi erakutsia», «Jainkotxoaren eta gizagurenen mundua» eta beste hainbat izenburu.

Urte honetakoa dugu Arantzazuko Batzarrean hartutako Euskararen Bataunerako Erabakia, euskal liburugintzarako beste erabakiorra izango dena; izan ere, ikastoletarako liburu argitalpena hemendik aurrera euskara batuz egingo da.

Idoia Fernandezek «Oroimenaren hitza. Ikastolen historia 1960-1975» liburuan



■ Haserako testuliburuetatik egungoetara eduki eta itxura aldaketa handia izan da. (A: A. Eloseg).

jasotzen denez ikastolen garapenak eta hedatzeak, behar zehatzak agertzen ditu baita irakasleagoak ere, materialea sortzeko, zein esperientziak elkartrukatzeko sortzen dute 1968/1969 ikasturtean Donostian Gordailu talde pedagogikoa; Bilbon, 1972an, antzeko ezaugarriak zituen Iker sortu zuten, irakaskuntza eraginkorrean oinarritutako proiektua kaleratzen du «Saioka» modura ezaguna duguna: «Projeektuak» eta «Esperientziak», 1978.ean desagertu zelarik.

### Eskola-liburuen jauzi kualitatiboa

GORDAILUREN lehenengo argitalpena «Ikastola hiztegia» (1969), esanguratsua izan zen, eskola gaietarako behar ziren hitzak bildu eta estandarizatu baitzituen. Argitaratu ziren liburuak asko izan ziren, hala nola, hiztegegintzan: «Ikastola Hiztegia», «Idazketa Hiztegia»,

«Nire Lehen Hitzak»; eskolaurrerakoak, O.H.O.rako liburuak ere kaleratu zituen, matematika, hizkuntza, esperientziak,...; kontsulta liburuak: «Ikastola Liburutegia» izenekoa, lau sailetan banatutako gai monografikoak: Natur Zientziak, Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia. Mapagintza ere landu zuten: Eskualdeak, Mendi eta Ibaiak, Komunikabideak.

Hauetaz gain, irakasleei zuzendutako zenbait argitalpen ere kaleratu ziren, ikastoletarako materialea batzutan: Larresorok euskaratutako «Pedagogia Ikastaroa», baina zabalduena Irakasleen liburutegia izeneko saila izan zen, besteak beste ondoko liburuak argitaratu ziren: L.Haranburu Altuna-

### ■ Egungo egoeran zerbait azpimarratzekotan, irizpide bateratu eza eta kalitatearen garapen urria dira

ren «Eskoletako Aldizkariak» eta «Gizartearen Eskola»; Larresorok 1972.ean euskaratutako C. Freineten: «Berezko irakurpidea», «Freinet teknikak lilitegian», «Zenbait aholku gazteentzako», «Zientzien erakaskuntza». Aurrekari bezala ikastoletan erabilitako «Xabiartxo» liburu hartzen badugu, jauzi kualitatiboa ekarri zutela argi dago

1971 Jean Barbiereren «Antxitxarburu-ko buhamiak» argitaratu zuen Ikaskek, Iparraldean irakaskuntzan euskara sustatzeko sortuko den elkarte. Oso erabilia izan zen Seaskan lehen urteetan elkartzen ziren ikastoletan.

Anaya argitaletxea 1975ean sartu zen lehen aldiz euskararen munduan,

«Kosmos I,II,III» izeneko entziklopediaren itzulpena bitartez.

Urte horietan, Elkar eta Erein argitaletxeak sortuko dira. Elkar Donostian sortuko da eta urte gutxiren buruan, Oinarrizko Hezkutza Orokorretik hasita, B.B.B eta U.B.I.ra arteko testuak argitaratuko ditu. Azken hauetarako, Elhuyar eta UZEI izango ditu elkarlanean, bai eta Lanbide Heziketarako ere.

Gipuzkoan Ikastolen Federakundea ere hasiko da OHOrako zenbait testu argitaratzen. 1975.ean, Loiolan burututako topaketa pedagogikoen ondorioz sortuko da GILE (Gipuzkoako Ikastoletako Langileen Elkarte). Bizkaian, IKA-Ibaizabal argitaletxeak bizkaieraz argitaratuko ditu testuak. Egun, batuan ere argitaratzen ditu.

### Euskara eskolotara

1979. urtean sartzen da euskara irakaskuntza sisteman, Elebitasun Dekretuaren bitartez. Hauek horrela, hurrengo urratsa euskara eskolatan sartzeko bidea diseinatzea izan zen eta hau A, B eta D ereduaren finkapenaren bitartez gauzatu zen eta 1982.an Euskararen Erabilera Arautzeko Legea dugu.

Egungo egoeran, argitaletxeen arteko lehia nagusitu zaigu eta testuliburuaz baino eskola-liburuez hitzegin beharko genuke. Egoera hau deskribatzekoan zerbait azpimarratzekotan, irizpide bateratu eza, kalitatearen garapen urria dira; laburbilduz Euskal Herri osorako proiekturik ez izatea.

LORE ERRIONDO



Planifikazio egokia eta sare publikoan sartzeko aukera eske ari dira

# Haur eskolak gainezka daude

**H**aur jaiotza tasek behera egin badute ere, haur eskolak ikasleez gainezka daude. Buruhaustek ere ez zaizkie falta ordea: hainbat ikastetxeek bi urtekoentzako gelak ireki dituzte, sare publikotik kanpo dira...

EUSKAL Herriko haur eskola gehienak 1970eko hamarkadan zabaldu ziren, emakume asko etxetik kanpo lan egiten hastearekin batera. Izaskun Madariagak, Gipuzkoako Haur Eskolen Koordinakundeko kide denak haur eskolen sorrerari buruz argitzen duenez, «emakumea lan mundura sartzearekin eta bezkuntza irekiagoan sinesten bastean sortu ziren haur eskola gehienak. Haurrak sozializatzeko esparru natural falta sumatzen genuen eta bestalde



Euskal Herriko haur eskola gehienak 1970eko hamarkadan zabaldu ziren. (Arg: Alberto Elozegi)

*euskara haur bezkuntzan integratu beharra ere ikusten genuen».*

Haur eskolek beraien lekua egin dute haurraren hezkuntzan, askotan haurtzaindegia eta haur eskola gauza beratzat izan ohi dira. Baina izenak argi adierazten du bata eta bestearen artean dagoen aldea, haurtzaindegia laguntza edo haurra zaintzearen ikuspegiari lotua dago, aldiz haur eskola

hezkuntzaz arduratzen da.

Haur eskoletan laupabost hilabetekoetatik hasi eta hiru urte bitarteakoz izaten dituzte. Haur eskolara joateko egokiena batzuren ustez haurra oinez hasten denean, indarrean dagoenean izan ohi da beste batzuen ustez kontrakoa, horrela dio Madariagak: «oinetz hasten direnekoa da haur eskolara eramateko adinik txarrena, egokitzapena askoz okerra-

goa izaten delako. Hobe da haurrak 4-5 hilabete dituen eramatea, prozesu normal bat abalbidetzen baitiozu».

Gurasoak larri izan ohi dira haurra eskolan uzten duten lehen egunetan, horrela dio Teresa Agirrek, «haurra 20 hilabeterekin eraman nuen lehen aldiz haur eskolara. Hasiera ez zitzaidan erraza egin, baina egun haur eskola nola-

## ■ Hezkuntza Sailak ez ditu bere baitan hartzten haur eskolak, haur eskola publikoak udalaren menpe egon ohi dira

koa den ikusi ondoren ez naiz batere damutzen».

### Haur eskolak gainezka


HAUR jaiotza kopurua urtez urte gutxituz doala aipatu izan da hainbat komunikabideetan, baita aldizkari honetako orriotan ere. Baina helduagoekin gertatzen denaren alderantziz, haur eskoletan urtean urtean haurrak gehituz doaz, eta egun eskaera eskaintza baino handiagoa da. Helduagoen hezkuntzan gero eta aulki huts gehiago geratzen badira ere, haur eskolak gainezka daude, eta hainbat eskari kanpoan geratu ohi dira.

Haurrak lekua izan dezan, beste hainbat haur eskola publikotan gertatu ohi den bezala leku eskariak galbahetik igaro beharko dira. Iruñeko Udal Patronatuak datorren ikasterterako 296 leku plazaratu ditu. Bahea igarotzeko kontutan izango dira hainbat baldintza: haurraren gurasoek duten lan egoera, hauen ahalbide ekonomikoa, haurrak alde aurretik eskola berean izan

dituen neba-arreba kopurua, bizilekua eskolatik geratu den edo ez, eta haurraren izaera berezia, hau da, integrazio arazoak dituen den edo ez. Antzeko baldintzak bete behar izaten dira beste haur eskola publikoetan lekua lortu ahal izateko.

Haurra haur eskola publikoan onartu ezker, ordaindu beharrekoa erabakitzeak gehienetan baremo batzuk ezarri ohi dira gurasoen soldataren arabera. Adibidez Hendaiako Maison de la petit infancko Françoise Fernandezek agertzen duenez «*Hilabetean zenbat ordaindu behar duten gurasoen soldataren arabera erabakitzen da. Hileroko zenbateko soldata jasotzen dutenaren egiaztagiria eskatzen zaie, horren araberea jakingo da hurrengo hilabeteetan zenbat ordainduko beharko duten*».

Izaskun Madariaga ez da ados baremo hauekin «*bi soldata haurraren eskolaratze osoan dute gurasoek, ez haur eskola garaian ba-*



Gipuzkoako Haur Eskolen Koordinakundeko partaide da Izaskun Madariaga. (Argazkia: Alberto Elozegi)

karririk. Baremoen asmakizuna ez da batere zilegizkoa, batzuk bi aldiz ordaindu behar dute irabaziaren baitan, eta hori ez da pertsona batek dituen zerbitzutara berdinean egokitzen, denok berdinean ordaintzen baitugu. Herriko zerbitzuak

ordaintzerakoan ez dizute baremoa irabazien baitan jartzen».

Haur eskoletan ordaindu beharreko hileroko kuota hasi 15.000tik eta 50.000 pezetarainokoa izan daiteke. Haur eskola publikoak udalaren menpe izatean

## erein PROIEKTUA DBH

- Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia
- Natur Zientziak
- Matematika
- Euskal Hizkuntza eta Literatura { Esaizu Murgil

BILBO: (94) 413 03 86

DONOSTIA: (943) 21 82 11

# Alborei, S.L.

ESKOLA ETA IKASTOLENTZAKO MATERIALA

- ✓ papergintza
- ✓ informatika
- ✓ altzariak
- ✓ liburuak

Ubarburu Pasealekua, 100  
27 Industrialdea  
MARTUTENE  
Tel.: (943) 47 30 00  
Faxa: (943) 47 10 94  
20014 DONOSTIA

EUSKAL HERRI OSORAKO ZERBITZUA

# LIMPIEZAS ELURRA S.L.

## ZERBITZUETAKO ENPRESTA



- ERAIKINEN MANTENIMENDU OSOA

- JANGELETAKO ZERBITZU OSOA

- Janari prestaketa
- Mahaietako zerbitzua
- Garbiketa...

Avda. Carlos I, 17 (Olaeta Eraikina)

Telefonoa 943 - 46 61 50 Faxa: 943 - 45 21 95

20011 DONOSTIA



## ■ Helduagoen hezkuntzan gero eta aulki huts gehiago dira, haur eskolak aldiz gainezka daude, asko kanpoan geratzen dira

-Hezkuntza Sailak ez baititu sare publikoan hartzen haur eskolak—, udalak erabakitzen du ordaindu beharreko hilerokoa, zenbaitetan haur eskola publikoak pribatua baino garestiagoak izan ohi dira.

Haur bakoitzaren urteko kostua, 700.000 pezeta eta 900.000 pezeta bitartean egon ohi da. Garestia bada ere, derrigorrezko hezkuntzako gelak garestiagoak dira, kostua handiagoa baitute. «Helduagoetan dobaineko gelak egon behar direnik inork ez du dudatan jartzen, 0 eta 3 urte bitartekoetan berriz zalantzan jartzen da, eta hor hasten dira bereizketak egiten kuota ordaintzeko orduan» argudiatzen du Madariagak. Haur eskola asko defizitarioak dira, batzuk egoera horri aurre egin diote udalek eman dioten laguntzarekin.

### Bi urteko haurren gelak tokia hartuz

GOIZETIK gauera egoera aldatu egin da ordea, ikastetxeek gero eta ikasle gutxiago dituztela ikusirik beraien ikasleko kopurua zabaldu asmoz bi urtetako haurrentzako gelak zabaldu dituzte, orain arte haur eskolen eremua izan denean matrikula borroka hasi dute. Haurra ikastetxean bi urterekin sartuz gero, inork ez du irakaskuntza horren do-



■ Haur eskoletan laupabost hilabetekoetatik hasi eta hiru urte artekoak izaten dituzte. (A: A. Elozegi)

haintasuna zalantzan jartzen. Horretxek sortu du listakarra.

Bi urtekoen gelak direla eta, Gipuzkoako Haur Eskola Koordinakundekoek Hezkuntza Sailak lehenik zegoenari jaramonik egin ez eta bi urtekoentzat legez kanpoko gelak irekitzen hasi direla salatu dute hainbat erakunderen aurrean.

Legedi kontuak bakarrik ez, gela hauen hezkuntza ereduaren egokitasuna ere zalantzan jarri da hainbatean. Izaskun Madariagak ikastetxeetako bi urtekoentzako gelen inguruan adierazten duenez, «abiapuntua ezberdina izan denez eskaintza ere ezberdina da. Gure abiapuntua familiarren beharretara moldatzea zen, eta haurrentzako eskaintza egokia izatea. Eskaintza egokitua eta tajutua dugu, alde batetik familiak dituzten behar psikologikoak eta bestetik haurrentzako bateratu ditugu. Ikastetxeetan aldiz goitik

behera egin dute euren planteamendua, goiko eredu behekoentzat molda-

tzen joan dira. Hiru urte bitarteko haurren beharrak ez dituzte kontuan hartu



## URRETXUKO MINERAL ETA FOSILEN MUSEOA

Maletin didaktikoa: mineralak, fosilak eta arroak ezagutzeko ezinbesteko materiala.

Alokatu, erosi edo museoan bertan erabiltzeko aukera

Informazioa: Kultur etxean - Tel.: 72 41 70

«Dituzten aukeretatik abiatuta planifikatu dituzte bi urtekoentzako gelak, ez haurren beharren arabera»  
IZASKUN MADARIAGA

eta eredu puskaketak eman dira. Dituzten aukeretatik abiatuta planifikatu dute eskola eta ez adin horretako haurren beharren arabera.

Egungo egoera honi irtenbidea eman nahian dabil Gipuzkoako Haur Eskolen Koordinakundea. Koordinakundeak 70. hamarkadatik honuntza sortutako haur eskola publiko eta izaera publikoa nahi dutenak biltzen ditu.

1988-1989 ikasturtean hasi zen Hezkuntza Sailekoekin harremanetan Koordinakundea, sektoreari irtenbide aproposa bilatu nahiean. Sortu zirenetik oraindano, LOGSE legean aipatzen den Haur Hezkuntzako Lehen Zikloari erantzuna eman dietela aitortzen dute. Lehenago aipatu bezala Hezkuntza Saila bi urtekoentzako legez kanpoko gelak irekitzen hasi dela salatu dute.



Bi urtekoentzako gelak zabaltzea ezlegala dela diote Haur Eskolen Koordinakundeok.

Egoera hori dela eta, hainbat eskaera bideratu dizkionte Hezkuntza Sailari: errealtatetik abiatutako planifika-

zio egokia egitea, Hezkuntza Lehen Zikloari dagokion banaketa errespetatzea eta haur eskolek sare publikoan

sartzeko aukera izatea izan dira eskaerak.

ARRITXU ZELAIA

4 urtetik aurrera



hilabetekaria  
40 orrialdeko  
jolas/irakurketa

8 urtetik aurrera




bihilabetekaria  
52 orrialdeko  
gozamina

IPUINAK, JOLASAK, ERREZETAK,  
ESKULANAK etabar luzea ...

emaiozu zure haurri  
irakurketaren lehen pausuak  
atseginez egiteko aukera, bere  
adinari dagokion aldizkariaren  
harpidetza eginez

XIRRIXTAzaleak elkarte 502 p.k. - 64705 HENDAIA  
LETRAZOPA elkarte 306 p.k. - 20300 IRUN

# TEKNOLOGIA ETA HISTORIA



# HILTZEAR DAUDEN KULTURAK



Gizakiaren lehen erremintak eta teknikak.  
Naturako metalak eta energiak. Euskal  
Herriko burdinolak. Energia eta teknologiak  
gizarte modernoan.

*Kultura eta euskara bat eginik*

**ESKATU ZURE LIBURUDENDAN!!**

Australiako aborigenak. Trobriand irletako  
biztanleak. Tuaregak, basmortuko erregeak.  
Andeetako ketxuak eta aimarak. Afrikako  
pigmeoak, Amazonetako yanomani india-  
rrak, inuitak eta elurretako tigreak (sherpak).  
*Udarorako irakurgai ederrak, eta euskaraz!!*

**LIBURUDENDETAN JADANIK!!**



**GAIK ARGITALDARIA**

# Udako kontu eta kantuak

**PETRIKORENAK** joan den irailean idatzitako lehenengo kronika hartu eta, esaldi batzuk bikoiztuz eta beste batzuk tokiz aldatuz, hura hona ekartzea izan da iraila hasierako ajean ukan dudan estreinako ideia. Ez litzateke arazo handirik izango, gure kriterioen Dow Jones-ean oso merke negoziatzen baitira etika baloreak, balore komertzialek opa basati baten bitartez suntsitu baitzituzten. Ikus-entzule kopuru bat mantentzen dugun bitartean errepikatu beldurrik gabe!

«Egunero zerbait ezberdina» lelopean jardun dugu. ETBk udan. Eta ez dute gezurrik esan, egunero zerbait ezberdina izan baitugu (egunero errepikapen ezberdina, alegia). Kirol gaindosiaz ez dut jardungo orrialde hauek duten deiturari diodan errespetoagatik. Telebista da, zoritxarrez, gaur egungo mito-sortzaile, pertsonaia-egi-

le, agenda-paratzaile eta kultur-animatzaile nagusiena. Hori oinarri hartuta, bada, bururatu zitzaidan kronika errepikatzearena, baina ohartarazi dinate badela diferentzia txiki bat, aldea ikaragarria egiten duena. Irakurle kopurua mantentzekotan, bale, errepikatu. Eta ez bada mantentzen? Etxe honetan sosez arduratzen denak garbi asko azaldu dit ez dela telebistan bezala, gure diru-bularra lehortu egiten dela. Ez beste batzuen bezala. Beste upel bateko ardoa da, gainera, irakurle ardia zaldi-karreretan baino gehiago aspertzea. Ikasturteari, beraz, Petriren laguntzarik gabe heldu beharko diot (izpirituzko laguntzak, nolana ere, balio du, eta hori badaukagu).

**UDAKO** olatua da iraileko kultur orrialde asko hartuko dituen. Aipatu baino ez dut egingo Donostiako Zine-

maldia. Izango dugu betarik uhin kementsua edo lehertzen ez den baga leuna ote den aztertzeko. Udazkeneguko olatua dirudi Tarregako antzerki azokak. Udan aurkeztzen den ikuskizunak 87 antzerki talde bilduko ditu, gehienak katalanak. Tarregan (Lleida) baina, ikusleez gain, programatzaileen presentzia da nabarmena. Azoka derizkio, eta ez jaialdia, hara

■ **«Egunero zerbait ezberdina» lelopean jardun dugu. ETBk udan. Eta ez dute gezurrik esan, egunero zerbait ezberdina izan baitugu (egunero errepikapen ezberdina)**

Donostiako 57. musika hamabostaldia irailaren lehenean amaitu zen Bavierako orkestra sinfonikoaren emanaldiarekin. Abuztuaren zortzian hasitako egitarauan Cleveland orkestrak biztu du ikusmenik handiena. Argazkian ageri den Euskadiko orkestra sinfonikoa musikari gazteei eskainitako zikloan aritu zen. Musika, dantza, opera eta kale ikuskizunek osatu dute aurtengo egitaraua. (Argazkia: Leire Arzuaga).



tratura joaten baita asko. Bost ordezkari izango ditu Euskal Herriak: Hika, Trapu Zaharra, Legaleon-T, Sobradun eta Iris. Lehenengo laurai, EAEkoak, laguntza eman die Eusko Jaurlaritzak. Antzerki taldeentzako ate berria den aldetik, ongi. Euskarazko obrarik ez egonik, ez hain ongi. Irakaspena, nolahi ere, ez datorke hizkuntzaren aldetik. Talde askoren kontratazio iturri den azokaren garrantziagatik baizik; urte asko daramatzana, oso serioa, Donostian urrian izaten den antzerki maratoiak eta antzeko ekimenek badute zer ikasirik. Nahiz eta, agian, gaur egun ikasteko askorik ez egon, programatzailerik eta zer programaturik ere apenas dagoelako.

**GAIA,** baina, serioegia da gauden garairako. Freskotasun apur bat behar dugu oraindik, jertse potoloak janzen hasi baino lehen. Barkatuko didazue atrebentzia, baina kontu txiki bat aipatu nahiko nuke. Euskal kulturara -euskarazko bizimodua baizik ez dut esan nahi kasu honetan-, bezero berezia iritsi zaigu: udako kantua. Ezau-garriak: festa eta jai guztietan presente izaten da, lagunartean askok aitortzen dute ez dutela batere gustuko, gorroto dutela, baina horiexek beraiek letra osoa dakite buruz, eta griña sutsuz dantzaten dute. Esanen nuke, eta hona komentario eta eztabaidagaia fenomeno bitxia dela. Los del Rio, Georgie Dann, edozer *mix* eta tankerakoek Euskal Herria ere izaten dute pausaleku (Hegoaldeaz ari naiz, jakina), baina euskarazko kasuan bestelako kanturen bati uzten zaio udako nagusitasunaren tokia. Eta nik dakidala behintzat, hemen, bakailauarena oraindik arrantza eta gastronomi kontua da. Aztertzea litzateke.

Beste zalantza bat ere geratzen zait. Neure taberna-ibili umilean, bizkaieraz kantatutako abestiak jo du *top-a*. Gipuzkoan bizkaiera egiten den tokietan eta bereziki Bizkaian zenbaterainoko arrakasta izan duen jakin nahiko nuke. Hori ere aztertzea baita.


**MIKEL ELORZA**

## Buru karratu ala borobila?

**E**z dugu bete aukerarik! Lehen eta orain, buru karratua (edo cuadratua), berea besterik ikusten ez zuen hura zen; karka hutsa batzutan eta atzerakoia gehienetan. Nahiz eta mila arrazoi eman, hark bereari eutsiko zion inondik ere.

Ez dauka beraz buru moeta honek lore asko jasotzeko motiborik: ez pentsakeragaitik, ez itxuragaitik. Itxura ere Martin Villaren betaurrekoena du edo partxiseko dadoarena edo pantaila plano duen telebistarena (honek pantaila plano, hark encefalograma).

**BAINA** aurrerantzean, buru hauek bakarrik izango dira beren ikuspegiari eutsi eta zerbait pentsatzeko gai. Izan ere, lehenaz gainera, astean ia egunero futbola ematen hasten zaizkigunean, nor egingo dio aurre sofan ipurdiari atsedean emateko tentazioari? Nor hasiko da liburu bat irakurtzen bi edo hiru mila milioi ordaindutako golak barra-barra ikusi ditzakenean? Nor izango da kapaz partidua jokatuko dela, partidua jokatzen ari direla, jokatu dela, jokatu zela... behin eta berriz zortzi telebista kate eta beste hainbeste irrati, han, hemen eta leku guztietan esaten ari direnean entzungor egiteko?



**IÑAKI MURUA**

**NIK** uste nuen telebista kate gehiago jarri behar zituztela jakin nuenean (bi bakarrik baitziren ordu hartan eta batzuk autonomikoak izango zirela gainera eta...) aukera gehiago izango genuela gauza itxurazkoak ikusteko. Pentsarazten zuten programak, kultura ezagutzeko aukera demasa, elkarriketak, filme interesanteak... ez dakik, eskaintza normala egiteko konpetentzia nolabait esateko. Baina kia! hau standarizatu da eta ez dauka bueltarik. Denok buru borobileko bihurtu gaituzte; baloi, pelota... formako buruak. Denok berdina ikusi, entzun eta esaten dugunak. Edonondik begiratuta ere borobil, borobil, borobilak. Aurrean jartzen diguten maldan behera, esaten digutenean, programatutako abiadan eta ixuriak agintzen duen aldera joan beste erremediorik gabe geratu gara.

**OHARRA:** Etorkizuneko lanbidea telebistari aurre egiteko bitartekoak diseinatzeko eta desintoxicazio ikastaroak izango da.

## TXUTXU - MUTXUKA

## EUSKAL ANTZERKIAZ LLEIDAKO JAIALDIAN

Lleidako Tarrega herrian irailaren 5etik 8ra izandako XVI. nazioarteko jaialdian euskal antzerkigintzari leku berezia eskaini zaio. Eusko Jaur-laritzako Kultura Sailaren dirulaguntza jaso dute Legaleon, Sobradun, Hika eta Trapu Zaharra taldeek Lleidan parte hartu ahal izateko. Nafarroatik, bestalde, Iris taldea joango da baina honek ez du jaialdi honetarako dirulaguntzik jaso. Lehen aldia da euskal antzerkiak leku berezia duela jaialdi honetan, eta hau antolatzaileen eta Eusko Jaur-laritzaren arteko akordioari esker lortu ahal izan da. Guztira mundu guztiko 87 talde bilduko dira lau egunez.

## N O R - N O R I - N O R K



## AITA DONOSTIA

hil zela 40 urte bete ziren abuztuaren 30ean. Donostian jaio arren, Nafarroako Lekarozko konbentuan eman zuen ia bizitza osoa. Euskal folklorea biltzen lan eskerga egin zuen, baserriz baserri ibili baitzen kantu zaharrak jasoz. Musika konposatzaile euskaldunen artean aitzindarizat hartu izan da, inpresionismo frantsesaren eragina jasoz zuelarik. Idazle gisa antzerkigintza landu zuen nagusiki●



## ALEX DE LA IGLESIARI

begira jarrita daude zinemako fokoak, filme berriaren grabaketari ekingo baitio aurki. «Perdita Durango» izeneko Mexikon grabatuko da. Filmea Barry Gifforden idazle amerikarraren eleberrian oinarritua dago eta 1225 milioi pezetako (49 milioi libera inguru) aurrekontua du. Gringoak, narkotrafikoa, giza organo eta enbrioi trafikoa dira filmearen ardatzak●



## JOXAN GOIKOETXEAK

Txomin Artola, Alan Griffin eta Josean Martinekin batera osatzen duen Alboka taldea zuzeneko emanaldiekin hasiko da datorren udazkenean. Aitzinako kantu herrikoiak jotzen dituen taldeak 1994an grabatu eta iaz argitaratu zuen orain arteko lan bakarra. Gure inguruan hain ezagunak ez izan arren, Euskal Herri-kanpo emanaldi ugari eskaini dituzte, kritikaren laudorioak jasoz●

## TEILAK

## ■ OSKORRIK 25 URTE BETE DITU KANTAGINTZAN

Euskal Herrian eta Euskal Herri-kanpo ere sona handienetakoa-ko aduen taldeak, Oskorrik, 25. urteurrena betetzen du aurten. Unibertsitate garaian elkartu eta ekin zioten folk musika lantzeari. Taldekideen artean joan-etorriak izan diren arren, Natxo de Felipe buru duen taldeak kantu zahar-ak eta sormenekoak elkarrekin uztartu ditu hasieratik.

Zilarrezko ezteien aitzakira, festa itzela prestatu dute irailaren 7rako Getxoko Folk jaialdiaren barruan. ETBk zuzenean eskaini-ko duen kontzertuan izen handi-ko hainbat musikagilek hartu-ko du parte eta zuzeneko disko bikoitza grabatuko da. Bertan izango dira Kepa Junkera, Mikel Laboa, Ruper Ordorika, Joseba Tapia, Fermin Muguruza, Jon Sa-rasua, Niko Etxart eta Juan Carlos Perez euskaldunak.


Nazioarteko hainbat izen op-setsuk ere ostatu izango dute Getxon egun horretan: Martin Carthy ingelesak, Espainiakoen artean azken belaunaldiko izen-ik garrantzitsuenetakoa den Pedro Guerrak, Gwendal-en folk britainiarrak, Anton Reixa gali-ziarrak, Korsikatik etorritako I Muvrinik, Liam O'Flynn irlandar-rrak, Albert Pla kataluiniatik eto-rritako bakarlariak, Patrick Vail-lant okzitaniarrak eta Gabriel Yacoub frantziarrak.

Kantari guzti hauek, Euskal Herria eta euskararekiko atxiki-mendua erakusteko, euskaraz kantatuko dute Oskorriren kantu bana; aldi berean, Oskorrik kan-tu hoietako zati bana gonbidatu bakoitzaren hizkuntzan.

Bajo Ulloaren «Airbag» filmeari musika jartzea, Bingen Mendizabalen azken lana

# «Juanmarengatik izan ez balitz ez nukeen zinemarako musika idatziko»

**P**olanskyren filmeei musika jartzea amesten duen bitartean, «Airbag» du orain enkargu. Hertzainakekin aritu zenak, Bajo Ulloarenak ezezik, «La Regenta», «Extasis», «Cachito»-rako... musikak konposatu ditu.



**Juanma Bajo Ulloa. Zer diotsu izen bonek?**

Talentu ikaragarria duen zuzendaria. Eta zinemarako bidea zabaldu didan pertsona, jendea ezagutaraziz... «El reino de Victor» Juanmaren lehenengo laburmetraia izan nuen lehenengo lana; ondoren, «Alas de Mariposa» bere lehenengo filmea iritsi zen eta «La madre muerta»

**Zinemarako konposatzeko musika heziketa handia behar dela dio Mendizabalek. (Arg.: J. Olalde).**

beranduago. Azken honekin batera hasi zitzaizkidan kanpotik deitzen: Mariano Barrosok «Mi hermana del alma»-rako, Enrike Urbizurekin bi filme: «Como ser infeliz y disfrutarlo» eta «Cuernos de mujer»; eta horien ostean, «Hotel y domi-

cilio», «La regenta» eta berriek «Extasis» eta «Cachito»... Juanmarekin hasi ez banintz ez nukeen ziurrenik zinemarako musika idatziko; musikoa izango nintzateke baina bestelakoa. Gustatu arren, oso urruneko giroa zen niretzat.

**Nolakoa da ba inguru bori. Zer hartu behar da aintzat zinema musika konposatzerakoan?**

Alde onak eta txarrak ditu. Onen artean, maiz grabatzeko aukera, urtean agian bizpahirutan eta gainera, proba ezberdinak egin di-

## « Ofizio honetan egin behar ez dena zure burua nabarmentzea; eszenari indarra ematea da axola duena »

tzakezu. Zenbaitentzat traba da istorio bati musika jartzea baina niri gustatzen zait. Kontuan izan behar da, filmearen zati bat egiten ari zarela eta guztiak duela eragina: filmearen barrukoak, gertaeren lekuak, istorioak, horren arabera jeneroa hautatzeko, argiak...

**Filmeko beste partaide batetaz ari gara beraz; baina zenbateraino mugitzen da balantza musikaren ontzira?**

Filmearen arabera. Filme asko dira musikarik gabe ere aurrera ondo egiten dutenak: zinema ingeleseko asko. Oso errealistak dira eta musika ia kasualitatez sar-

tzen da: esaterako, irratia piztu eta musika ateratzen da. Aldiz, suspensean ia ezinbestekoa da musika.

Alferrik da, ordea, musika ona egin eta filmearekin bat ez egitea. Pentsatu beharrekoa zera da: eszena hau indartzeko zer egin behar dut?

**Eta hori kosta egiten da?**

Oso filme lauak direnean, egoerak asko errepikatuz, zerorrek atera behar diozu punta eszenari. Badira beste batzuk gehiago laguntzen dizutenak...

**Horrek esan nahi du filmeetako musika egileak erraz aurreikusi dezakeela filmearen arrakasta edo porrota.**

Bai. Zuzendari gazteek asko begiratzen diote emaitzari baina aurreko bi belaunaldietako zuzendariak gidoia edo testua zuten kezka nagusi. Nabari da oraingoak beste inguru batean hezi izan direla: telebista, bideo-klipak... Aurrekoek baino hobeto ikusten dute filmearen osotasuna. Horretan saiatzen gara guztiok baina zaila da, bideotik pantaila andira asko aldatzen baita.

**Zer barreman duzue zuzendariarekin?**


Nahiko bakarkako lana da gurea. Etxean ordenadorez musikak osatu, tarteka zuzendariarekin elkartu eta ikusi. Oso ofizioa lana da. Gidoia eskuan, ideia motzak atera, batzuetan bost segundu ingurukoak, eta artxibo modukoa osatzen da. Lehenengo muntaia iristen zaidanean, frogak egiten ditut zatitxo hauekin. Ondoren luzatu, moztu, non sartuko diren erabaki eta amaitzeko sinkronizatu egin behar da. Hirugarren muntaiarekin, azkenarekin, orkestratu eta zehatz-mehatz sinkronizatu behar da musika. Arazo nagusia, denbora juxtuarena da, hilabete bakarra eta lau artekoa.

**Zein dira zuzendarien setak musika aukeratzeko?**

Nahiz eta gehienetan musikaz gehiegi jakin ez, bada-kite zer ez duten nahi. Zer nahi duten adieraztea ez da ohikoena ordea. Eta askotan gertatzen da musika gustuko izan baina gero honek irudiarekin bat ez egitea.

**Eta zer behar du gidoiak zuzendariarekin?**


Zinema musikoarentzat errazagoa da filme dramatikoa musika ipintzea eta gainera hobeto nabarmendu daiteke norberaren lana;



komedia zailagoa da. Eta noski zuzendaria nor denari ere begiratzen diot. Hala ere, ez dut halako lehenasun argirik. Denbora gehiago banerama, akaso hautaketak egin nahiko nituzke baina gaur gaurkoz guztia ere berria eta erakargarria zait. **«La madre muerta»; «La regenta»; «Extasis»... Oso tonu ezberdineko filmeak dituzu kurrikulumean eta guztietara moldatu behar.**

Malgua izan ezean ez duzu zineman lekurik, ez behintzat arlo honetan. Ezin da aukeratzeko hasi, ofizioa behar da filme oso ezberdinetarako musika konposatzeko. Euskal zuzendarien artean ere ez du ikustekorik Juanmak eta Urbizuk egiten dutena eta nik guztietarako bidea egin behar.

**Izakerak laguntzen al du borretan?**



**MAIZPIDE**  
euskaltegia  
**LAZKAO**

**Urte osoan, EUSKARA IKASIZ EUSKARAZ BIZI**

**BARNETEGIAN NAHIZ KANPO - IKASTAROETAN ✓ MAILA GUZTIAK**

**ESKATU INFORMAZIO GEHIAGO HABEREN DIRULAGUNTZAZ**



**Tel.: 88 92 31 / 32  
Faxa: 88 92 32**

**20210 LAZKAO GIPUZKOA**





**Gasteizen grabazio estudio handiagoa eskura noiz izango dutenaren zain dira. (Arg.: Joseba Olalde).**

Agian. Ez dena egin behar, zure burua edo musika nabarmentzea. Axola duena filmeari indarra ematea da. Zineman ez du azalarazi behar norberarenak. Hau ofizio lana da, aulkiak egitea bezala. Egokiena, aukeraturako estiloaren barruan ahal den indar guztia eman

edota beharrezko baliabide dramatikoak aurkitzea. Bada jendea ilerako lehenean egoteko eta baita ezkutuan gelditzea nahiago dugunak. **Irakurtzen al dira zuen errotuloak zineman?**

Orain arreata handiagoa jartzen da. Niri ere garai batean Espaniako Estatuko zinema

**«Gaurko zuzendariak aurrekoek baino arreata gehiago jartzen diote emaitzari eta ondorioz, baita musikari ere»**

musiko konposagile baten izena galdetu eta Bernaola erantzungo nuke, hark irakatsi zidalako, baina hortik aurrera ezer gutxi. Gaur musika dendetan badira zinema musikarako apalak. Berriz indartzen ari den jeneroa da. **Kanpoko eraginetatik asko jaten al duzu?**

Zineman oroimenak asko laguntzen du. Ezustekorik eman nahi baduzu, badakizu zeintzu baliabide erabili. Ahalegindu behar da gauza berriak egiten baina denbora gutxi dugunez aurrekoei begiratu behar. Denborarekin asmatzen ere has zaitezke baina guztia asmatuta dago eta asmatu asmatzeagatik ere ez du merezi. **«Extasis» eta «Cachito» filmeetarako musika Gasteizen grabatu zenuen. Zer dugu eta zer ez industria bonetan?**

Gasteizen, gutxieneko azpiegitura osatzen saiatu gara, bertan ahalik eta filme gehienak grabatzeko. Orkestrakoak lagunak ditut eta gainera oso eroso da mugitu beharrik gabe lan egitea. Biko estudioekin ari ga-

ra lanean. Eta haien proiektuetako bat, estudio handiagoa egitea da. Honek burohausterik kenduko liguke grabatzerakoan. Orain arte kultur etxe edota antzekoetan grabatu izan baitugu.

**Euskal zinematik, ordea, Madrilen ditu begiak.**

Une honetan Euskal Herrikoak dira zuzendari punta-koenak baina hala ere hemen ez dute beharrezko babesik jaso. Euskal Herrian ere egin litezke estudio batzuk. Beste hainbat kultur arlotan gastatzen dena kontuan izanda, gehiago egin zitekeen honen alde.

**Madrilen amaitu berri da Bajo Ulloaren «Airbag» filmaketa, zure musika eramangu duena. Zer itxura hartu diozu?**

Gaur iritsi zait muntaiaren zati bat baina gehiegi ere ezin dut aurreratu. Oso filme konplexua da eta beraz musika nahasketa ugari izango ditu. Tonu oso ezberdinak agertuko dira ziurrenik eta noski horrek zaildu egingo du niri dagokidana.

**MAITE ARTOLA**



## TOLOSA ETA GASTEIZ

- ✓ Liburugintzako azken berriak eta euskal diskorik hoberenak
- ✓ Tolosa: Irailaren 20tik 29ra - San Frantzisko kalea
- ✓ Gasteiz: Irailaren 20tik urriaren 6 arte - Avd. Gasteiz
- ✓ % 10eko beherapena

**BIZI IRAKURRIZ**

**EUSKADIKO LIBURU AZOKEN BATZORDEA**


Kepa Junkera, Kaxiano eta Maltzeta aita-alabek disko bana kaleratuko dute aurki

# Golkoa bete soinu

**S**oinu handia edo txikia izan, harengandik musika oso ezberdina entzungo dugu, batek ala besteak jota. Horren lekuko dira udazkenean kaleratuko diren hiru lanak. Atzean, Junkera eta Ibon Coteron, Maltzetatarak eta Kaxiano.

AUSPOA indarberriturik dabil azken aldi honetan. Modu anitzetako auspoak dauden bezala, hauek jotzeko erak ere ugariak dira. Elkar argitaletxearen eskutik hiru berrikuntza ageri dira udazken honetarako: Kepa Junkeraren trikitixa berri-zailea eta Ibon Coteronen alboka; Maltzetatarren trikitixa klasikoa eta Kaxianoren akordeoia.

Berrikuntzarik nagusiena



**Alboka eta trikitixa izan dira Kepa Junkeraren lan berriaren ardatz nagusiak. (Argazkia: Edurne Koch).**

Kepa Junkera eta Ibon Coteronen diskoa izango da. Bi bilbotar hauen lanean trikitixak leku garrantzitsua izango duen arren, albokak du nagusitasuna. Gutxi za-

baldua dago alboka musikagintzaren arloetan, bereziki diskogintzan. Albokarako prestaturiko kantuak grabatu dituzte. «Lan handia egin behar izan dugu.

*Albokak sei nota baino ez ditu eta zortziren bat egitera ere ez da iristen. Musika konposatzeko orduan, eta batez ere musika berria, ezaugarri horiek dituen tresna batekin aritzea latza da», dio Ibon Coteronek.*

Arruntena alderantzizko bidea da. «Albokarako prestaturiko doinuak dira hauek. Gainerako tresnak hauetara moldatu ditugu. Gebienetan tinbre gisa erabiltzen da alboka, laguntzaile gisa. Instrumentu oso exigentea da, asko mugatzuen duena, beti doinu berdina duena».

## **Alboka eta soinu txikia bikote**

ASPALDIDANIK ezagutzen dute elkar Coteronek eta Junkerak. Trikitixaren maisu den honek alboka jotzen zuen soinua jotzeari ekin aurretik. «Trikitixa lantzeari ekin nion eta alde batera utzi behar izan nuen alboka. Hala ere, betidanik maitatu izan dudana tresna da».

Musika berritzailearen aldeko apustuak egiten dituzte proiektuz-proiektu Junkerak. Orain ere, alboka eza-gutarazteko asmoarekin bere trikiti doinuak erantsi

«Gutxi landutako instrumentu bati ekin diogunez, beste kulturetako musikariak ere bildu nahi izan ditugu»

## KEPA JUNKERA

ditu. «Ederki uztartu dute auspoak eta albokak. Ez da hau lehendabiziko saioa. Kantu soiletan askotan sartu izan da alboka. Leon Bilbaok kantu tradizionalekin egin zuen, trikitixarekin bainbatetan nabastu dute Joseba Tapiak, Maixa eta Ixiarrek... Folk musikan ere erabili izan dute Azalak, Oskorrik...», azaldu du Junkerak.

Udazken honetako sorpresarik handiena izango dela iragarri dute egileek. «Erabat berria da. Jendeak sorpresa izugarria era-



Hamasei urtez isilik egon ondoren, Juanito eta Mari Karmen Garatek, «Maltzeta» aita-alabek, bigarren lana kaleratuko dute Elkarrekin. (Argazkia: Garikoitz Garaialde).

mango du entzutean, inork espero ez duena baita. Perkusio aldetik kanpoko tresnak erantsi ditugu, beste kulturetakoak, bide etnikoak jorratu», jakinarazi du albokari bilbotarrak.

Baina ez dira biak bakarrik arituko proiektu honetan. Eurekin bat goi mailako musikariak aritu dira dis-

koaren grabaketan. «Ja landu gabe dagoen instrumentu batekin hasi garen, beste kulturetako musikariak ere bildu nahi izan ditugu. Javier Pasarinio saxofoi-jole eta flautista andaluziarra new age musikan punta-puntakoa dena; Rafa Martin fanfonarekin; Galiziako gaitan Jose Manuel Budinio; Gaztelako La Mudania taldeko Carlos Bezeiroren bouzouki eta baxua; Luis Delgadoren perkusioa eta Tomas San Miguel txalapartaria». Hauekin bat, Maixa, Ixiar eta Garbiñek eta Natxo de Felipe eta Anton Latxa Oskorrikideek parte hartu dute grabazioan.

## Maltzeta aita-alabak bueltan


TRIKITITXA zaharraren zailek ere klasiko baten itzulerara entzuteko parada izango dute. Juanito eta Mari Karmen Garate «Maltzeta» aita-alabaren bigarren lana iraila bukaera edo urria hasierarako izango baita kaleratu. Duela hamasei urte kaleratu zuten euren lehendabiziko eta orain arteko lan

bakarra. «Bi lan hauen arteko denbora luzearen tartea azaldu liteke, beste zenbait gauzetan aritu baikara. Ez genuen inongo plangintzarik egin eta inork ez zigun ezer eskatu. Orain, aitari zerbait grabatzeko gogo sartu zitzaion, kantu batzuk prestatu eta baiezkoa eman ziguten», kontatu digu Mari Karmen Garatek.

Ilusio handia erakutsi du Juanitok lan berri honengatik. «Hamasei urte badira aurreko lana egin genuenetik eta kaleratu ere ez zuten gutxi jotzen dudanez, nire lana kaleratu nahi nuen», azaldu du trikitilariak.

Garai batean asko ibilitakoak dira, elkarrekin erromerietan aita eta alaba. Orain, alde batera utzia dute eginkizun hori eta ez dute hartara itzultzeko asmorik. «Aitak bere urteak ditu, 72, eta ni beste bi lagunekin talde batean nabil. Diskoa kaleratzeagatik ere ez gara plazetan ibiliko», argitu du alabak. Juanitok hainbat ikasle gazterentzako maisu lanetan jarraitzen du.

Hamazazpi kantutako jaso dituzte disko berrian eta guttiak era tradizionalean joak.



Betiko bideari eutsi dio Kaxianok disko berrian; bolero bat da berrikuntza nagusia. (Argazkia: Xouse Simal).

Trikitixa eta panderoa hutsen entzuteko aukera bakanetakoa da. «Aitak ikasi zuena jotzen dugu, bere estiloa hori da eta ezin zaio aldarazi. Estilo guztiak errespetatzen ditu eta gustatzen zaizkie, baina berak hau egin nahi du. Gainera, denetarik behar da. Modu zabarrak galdu gabe molde berriak landu behar direla uste du, eta hori gure egin-kizuna dela dio», azaldu digu maltzetatar pandero-joleak.

Betiko kantuez gain bals eta rantxera baten bat ere egin dute. Kantuetan Euskal Herria, mendiak eta maitasuna dituzte hizpide. Kantu guztiak Juanito aitak konposatu ditu, herrikoiak diren bi izan ezik.

Maltzeta Neym taldean dabil orain Mari Karmen Garate. Maketa atera berri dute

## «16 urteotan ez dugu grabatu, ezta inork eskatu ere. Orain aitak gogoan zuen» MALTZETA ALABA

eta epe laburrean bi mutil elkartuko zaizkie, bateria-jolea eta baxua. Euren emanaldietan Maltzetatarren hainbat kantu eskainiko dituzte, eurek konposatutakoekin batera.

### Kaxianoren seigarrena

Lizartzako itsuak bere seigarren lana ere udazkenarekin batera argitaratu du. Aurrez, bere akordeoetik ezagunak egin dira Euskal Herri osoan «Itasuntzi batean» eta «Zorionak» kantuak.

Lehenengoaren ospearean zergatiak ez daki Kaxianok: «Nire gusturako hori baino

kantu hobeak baditut, baina ez dago kantu hau eza gutzen ez duenik». Bigarrena aldiz nolabait bilatutako zerbait izan zen. «Irratietan jendeak elkar zoriontzeko eta agurrak emateko kantu gisa prestatu nuen. Helburua lortu nuela uste dut», aipatu du Kaxianok.


Aurreko lanen ildoan lan berriak. Bolero bat da bertako berrikuntza nagusienetarikoa. Bolero honean, ohiko lagun dituen gitarra, baxu, saxofoi eta bateriaz gain perkusioa ere sartu du. Soinu handiaren doinu zaharrei berrikuntzak erantsi dizkio. Baina oraingoan ez du kantu ezaguna

eta entzuna bihurtuko denik prestatu. «Irratien eskutan dago batez ere nire kantuak entzutea edo ez. Ez dakit zein bibur daiteken arrakastatu, ez dut horrelako kanturik prestatu», gaineratu du Kaxianok.

Diskoa prestatzeko orduan buruko minik handiena eragin diona ahotsa izan da. «Hori izan da beti nire arazoa eta orain ere horrekin aurkitu naiz. Gainerakoan gustura ibili naiz».

Zuzeneko emanaldiak ere azken aldiaren gutxitu egin ditu. «Gauetz ez dut kontzerturik eskaintzen orain, bakar-bakarrik bazkalondotan edo arratsalde partean. Zuzeneko emanaldietan batera eta akordeoia baino ez dugu jotzen», dio Lizartzakoak.

JON ABRIL





# erein PROIEKTUA

## DBHn ere erreforma bideratzen


Gure kultur errealitate konkretutik eginak.

Pedagogia aktiboan oinarrituak.


Sare guztietako eskolei eta hizkuntz eredu desberdinetako ikasleei zuzenduak.



BILBO: (94) 413 03 86



DONOSTIA: (943) 21 82 11




## L I B U R U A K



**«JOSE DE ARTECHE ARAMBURU: VIDA Y OBRA DE UN VASCO UNIVERSAL»**

**ANTONIO VILLANUEVA**  
KUTXA, 327 or.  
Jose Artetxe hil zeneko 25. urteurrenean kaleratu da haren biografia jasotzen duen liburua. Urolako bailarako semea, oso gazte zelarik hasi zen atsedetik gabe irakurri eta idazten.

Egileak, Antonio Villanuevak, 1959an ezagutu zuen Artetxe. «Gipuzkoako gauzak» eta San Ignazio, Urdaneta, Elkanoren... biografiak idatzi zituela zekien eta hortik Artetxeren bizitza eta obran gehiago sakontzeari ekin zion. Artetxe euskaldun unibertsala zela dio liburukak●



**«NARRAZIO LABURRA»**  
EGILE BERRIEN  
LITERATUR LEHIAKETAK  
(1988-1994)  
IRUÑEKO UDALA, 147 or.  
Bigarren atal baten babe-

sean dator eskuartearen dugun liburu hau. Lehenengo honetan, 1988 eta 1990 bitarteko edizioetan egile berrien euskarazko literatur lehiaketan Narrazio labur sailean sarituak izan diren idazlanak irakurri ahal dira: Manolo Fontalba, Vicente Gil Balda, F. Javier Mangado Urdaniz, Xanti Begiristain Madotz eta Maddi Amatriain Ormazabalek idatzirikoa.

Ezagunagoak diren idazleak alde batera utzita, gaur egun Nafarroan euskaraz egiten den literaturaren islada argia dira. «Artista gazteak» dio Iruñeko Udalak antolatutako lehiaketak●

## RITXI LIZARTZAREN BEGIETAN

**Irakasleak ere bizitzaren aurrean ikasle**

Bi ipuin ageri dira maliziaz jarririko titulupe horretan, orain hamar bat urte Tene Mujika Lehiaketan irabazle suertatuak. Oso ikuspuntu ezberdinetik abiatzen dira, ikasleen ikuspegia eta besteak irakasleena hurbilduz.

Lehen ipuinak, «Asteazkenez amaitu zen astea», ahalegin polita egiten du gazte mundua euskal mitologiaren hainbat pasarte ezagunekin uztartzeko. Aldez aurretik hainbat gertaera asmatzerik badago ere, oso freskoa da eta gustura irakurtzen da. Pira baten ostean, gazte koadrilak garagardoa erosi eta mendirantz abiatzea erabakitzen du. Bertan, eta seguruenik zurrutaren eraginez, gazte baten amets moduan bidaia mitologiko bat kontatuko zaigu. Ez dugu jakingo zehazki mozkorraldiak bakarrik eragingida den ala beste zer edo zer dagoen; agian horrek jakinmina piztuko du gure mitologia zaharrari jaramon egiten hasteko. Baina ipuinak baditu gorabehera batzuk: batetik, azkarregi kontatuta dago, presaka bukatu beharko balitz bezala. Bestetik, orain urte batzuk idatzia dela sumatzen da; izan


ere, zenbait esapide, aditz eta pasarte urrun baino urrunago baitago gazteen ingurutik eta agian istorioaren lilura ilun dezakete.

Bigarren ipuina, «Kukurik kukura urtea», irakasle baten ikuspegitik kontatua, agian errealagoa, agian fantastikoagoa da, baina dudarik gabe egoera tragikoagoa ekartzen digu. Irakasle batek txorien ohiturak kontatzen dizkie ikasleei, eta hauetako batkukuaren jokaera txarra eragozten saiatzen da; amaiera tragiko bat izango da, nobelagintza errealistaren bidetik hartua. Kontraste bila, irakaslearen azalpenak eta gaztearen sentimenduak aurrez aurre jartzen ditu. Astunegia egiten da irakaslearen azalpenak emateko modua, baina interesgarria da progresio hori, komeni zitekeen luzaroago lantzea.

Orohar, zail da topikoei ihes egitea lortzea sinesmen zaharrak gure mundura hurbildu nahi ditugunean. Badirudi kontaketa mailan Olarrak ardatz hori aurkitu duela, batez ere lehen ipuinean. Apur batean jarraitzeak merezi zuen, lan luzexego batekin edo.



**«ESKOLAN IKASTEN EZ DIRENAK»**  
XABIER OLARRA  
ELKAR.



**«EUSKAL MARGOLARIAK 6»**

KUTXA FUNDAZIOA, 146 or.



Kutxak euskal margolarien lanak erakutsiz osatutako bildumari jarraituz, abstrakzioaren txanda da oraingoa. Margo estilo honen hastapenak eta berehalako garapena dira aztergai 146 orrietan; horretarako, 30 margolari baino gehiagoren obra azalduz.

Mende honen lehen urteetan errealitate estetiko baten bila ibili ondoren sortutako margo abstraktoaren islada ugari ageri dira liburuan. Obraren izenaren alboan hura egokiago ulertzen laguntzen duten testuinguru historikoak ez dira falta. Amaieran, margolarien biografientzat gorde dute lekua.

**«NEMESIO ETXANIZ BIOGRAFIA ETA IDEOLOGIA»**

PAKO SUDUPE ELORZA EUSKALTZAINDIA, BBK, 229 or.

Iazko Euskaltzaindia sarietan, saioa jeneroan onena izendatu zuten liburua da honakoa; Nemesio Etxaniz, gorabehera animikoak ez-kutatzen ez zituen poetaren biografiarekin osatua. Francoren kontrako erresistentzia egin izanagatik zigortua izan zen Etxaniz baina 36ko gerra ondoren ere euskal kulturaren gerraurreko jaikitxoari bere alea ekartzen ahalegindu zen. Biografiaren egileak, Sudupek, Euskal Filologiaren lizentziatua du. Lanbidez euskara irakaske eta zaletasunez euskal kulturaren ikertzaile.



**«ETXEZ ETXE EUSKAL HERRIAN 1996»**

EUSKO JAURLARITZA, 240 or.

Urteko opor hilabete nagusienak igaroak diren arren, beti da eskertzekoa liburu honek dakarren informazioa. Euskal Herri osoko mapa jasota, ostate eta batzuetan janaria ere eskaintzen duten etxe eta babeslekuak ageri dira.


Lurraldeka banatuta, zenbat eta non dauden erakustez gain, aterpe bakoitzaren xehetasun guztiak ageri dira: zenbat pertsonentzat duten kabida, sukalderako aukerarik baden ala ez, logelak zein eratan banatuta dauden, ateak urteko zein sasoi tan zabaltzen dituzten eta noski bakoitzaren telefonoak.

**«LOIOLAKO S. INAZIO PARROKIA»**

FELIX ELEJALDE ALDAMA KUTXA FUNDAZIOA, 247 or.

Joan den mendearen bigarren erdialdea eta bereziki azkeneko hamarkadak oso emankorrak izan ziren eta obra ugari egin ziren Gipuzkoan eta batez ere Donostian. Urte hauetan eraikuntza haietako askoren mendeurrenak bete dira. 1997an izango da San Ignazio elizaren ehungarrena.

Parrokia eta auzoa beraren sorrera garaia azaltzen digu Felix Elejaldek lehen orrietan. Bereziki irakaskuntzara bideratu du bere lana egileak. Eta horrela ulertu behar da liburu honen muina ere.



**Hontza**  
LIBURUDENDA



Okendo kalea, 4  
Tel. 42 82 89 Faxa: 43 12 56  
20 004 DONOSTIA

## Askatasun espazioak sortzen

Uztailaren 28ko gauerdian, Donostiako Jazzaldiaren egitarauari amaiera emanez entzun ahal izan genuen «Zilbor Hestea» ikuskizuna Iñaki Salvadorren azken musika lana dugu, Amaia Zubiria eta bertako jazz-instrumentista nabarmenen laguntzaz osatua.

Salvadorrek, horrelako lanak direla medio, gure/bere herriaren folkloreakin lotuta agertzen den zilbor hestea errespeto handiz haustea du helburu, euskal musika herrikoiaren eta jazzaren elkartzea proposatuz, musikari bakoitzak, bere sustraietatik abiatuz, bere nortasuna gara dezan.

Saio bikain baten aurrean gaude. Gure kantutegi aberatsaren doinuak Iñakiren moldaketen idazketa argitsu eta sentibera baten abiapuntu ditugu. Baina agertokian sortzen den mundu berrian musikari bakoitzaren ekarpenek badute

bere tokirik ere.

Kantu bakoitzaren garapean askatasun giroa nabarmentzen zen baina batasun izugarria lortuz.

Beste zenbait kulturetan ere, asko dira musika herrikoa eta jazz uztartzeko saioak baina gutxitan ikus eta entzun ahal izan dugu «Zilbor hestea»ren parekorik. Iñaki Salvador eta bere taldekideen saioan, musikariak doinuaren barne munduan murgiltzen dira, doinuak berak ematen dituen garapen aukera guztietaz baliatuz.

Batzuetan garapen horiek azken ondorioetaraino iristen dira, jatorrizko melodiarekin duten lotura gero eta antzemanezinago bilakatuz, (Tejadak «Azeri dantza» kontrabaxuz jotzen duenean edota taldeak «O, Pello, Pello» interpretatzean).

Musikari guztien lana da zoragarria: I. Salvador (p), G. Tejada (b), V. Celada (d), J.

Silguero (s), L. Camino (perk), A. Unzu (g) eta Artze anaiak txalapartarekin. Ikuskizuna bestalde ez litzateke posible izango Amaia Zubiriaren eskaintzarik gabe. «Amonaren mengantza» diskoko abeslariaren alderik askatuena dugu berriro oraingoan ere. Ziur estreinaldiaren urduritasuna gaindituta, ikuskizuna ere bere zilbor hestea hautsi eta heltzen joango dela.

Gure folklorea eta gure musikariaren nortasuna bizirik behar ditugu. Txoriari kaiolako atea zabaldu egin behar diogu, sentitzen duen bezala abes dezan. Hegoak ebakiz gero doinu garbiak kantatuko lituzke beti, baina horrela ez zen gehiago txoria izango.

«ZILBOR HESTEA»  
IÑAKI SALVADOR

### «BERTSO-PAPERAK» EGILE BERRIENTZAKO LITERATUR LEHIAKETAK (1988-1994)

IRUÑEKO UDALA, 116 or.  
1990-1994 bitarteko edizioetan parte hartutako egileen bertso-paper sarituak jasotzen ditu liburuak. Ber-

solaritzan aurkezpenik behar ez dutenen idatziak ere badira tartean.

Guztira 11 bertso paper: Pablo Jose Aristorena, Manu Gomez, Bittor Elizagoien, Ricardo Gonzalez de Durana, Mikel Taberna, Estitxu Arozena, Estitxu Fernandez,

Jose Manuel Leitza, Imanol Arzallus eta Txaro Ondarra, berriz, paperen atzean dauden izen-abizenak.


Maitasun hitzetatik hasi eta kontsumoaren aurkako mezuak irakurtzeraino iritsi zaitezke orrialdeak igaro ahala ●



### «NIRE PLATANO NAHI DUT! I WANT MY BANANA»

IBAIZABAL, 25 or.

Haurrek hizkuntzak errazago ikas ditzaten Ibaizabalek kaleratutako bilduman, tximinoa dugu orain protagonista. Gose da baina banana ez da inondik ageri. Oihane-ko gainontzekoek banana aurkitzen lagunduko diotela uste du. Usteak... ●



Argitarapen honen edizioa laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



fundazioa  
fundación



«Arralde»-n aritu ziren Klaudio Landa eta Iñaki Beraetxeri Jon Andueza gehituko zaio «Kale gorria»-n.

## Ausardiaren kalean

**J**on Andueza, Iñaki Beraetxe eta Klaudio Landa uztarri beretik datoz «Kale gorrian» izeneko saioan. Irailaren 12an egingo dute lehen agerpena udazkeneko programazioa aurkezteko eskainiko duten «Euskal Telebista agerian» izeneko saio berezian. Harrez gero asteartero hirukoteak hainbat elkarrizketa, ezusteko, irudi bitxi eta bestelakoak pantailaratuko dituzte. Ausardia dute saioaren lema.

KLAUDIO Landa, Iñaki Beraetxe eta Jon Andueza, hiru izen saio batetarako. «Kale gorrian» izango da hirukotea batuko dituen saioa. Iñaki eta Klaudio «Arralde»-n ere ikusi genituen batera orain hauei Jon gehitu zaie, «*nabasketa lebergarri dibertigarria*» dela diote Euskal Telebistakoek.

Platoan Iñaki Beraetxe eta Klaudio Landa arituko dira eta kaleko grabazioetan

Klaudio eta Jon Andueza. «*Programa arina, ausarta eta bizia*» dela diosku Miren Olabarriak, Manu Gilekin batera zuzendari lanean ari denak. Ez du «Arralde»-ren eduki berdina izango, baina hainbat osagai tankerakoak izango dira, lantaldea antzekoa izango da, saioa zuzenean eskainiko dute, kale inkestak egingo dituzte, zuzeneko telefono deiak izango dituzte, Klaudio

Landa etxez etxe joango da...

Bestelako hainbat atalek ere lekua izango dute: pertsonai ezagunen bizimodua erakutsiko duten atala, euskaldunon pekatuak deritzona, asma ezazu gaur nor datorren afaltzera izenburua duena eta beste horrenbeste, izan ere atal txiki eta motzez osatu nahi izan baitute «Kale gorrian».

Publikoa saioaren osagai

garrantzitsua izan dadin lortu nahi dute «Kale gorrian»-eko arduradunek. Saio bakoitzak publiko berezia izango du, aldiari aldiko talde edo lanbide bati loturik dagoen jendea eramango dute, hala nola monjak, urpekariak, suhiltzaileak... Programara gerturatzen diren hauek ezusteko egoratan harrapatzen saiatuko dira.

Saio biziak halako dekoratua behar eta kolore gorria eta beltzak, neoizko argiak eta orain arte Euskal Telebistan gutxitan ikusi izan diren osagaiak izango ditu, «*saio ausarta lortzea da gure asmoa*» argitzen du Miren Olabarriak.

Euskal Telebistako arduradunek denboraldi honetako sorpresa izatea espero dute. Miren Olabarriak dioenez, «*arrakasta ez dago inoiz ziurtatua, askotan famatuek aurkeztu arren porrotak egon izan dira. Aurkezleak garrantzitsuak izan arren saioak izan behar du irrika egiten duena. Ez dute beldurrik, «euskaldunak nabiko itxiak izan arren, Klaudio moduko aurkezleekin ez dago arazorik. Klaudiok abereei ere hitzegin arazten die» Olabarriaren aburuz.*

Irailaren 17an hasita «Kale gorrian» asteartero izango baldin bada ere, irailaren 12an izango da lehen saioa. Egun horretan ETBk udazkeneko programazioa aurkeztuko du «ETB agerian» izeneko saioan. Saio honek «Kale gorrian»-en formato bera, dekoratu bera, eta aurkezle berak izango ditu, ETBko udazkeneko programazioko aurkezleak ere bertan izango dira.

**ARRITXU ZELAIA**



# Iñaki Imaz: «Erregidorearen lana ez du ezagutzen jendeak»

**B**easaindar hau «Goenkale» eta «Qué pasa pués»eko erregidore da egun. Zortzi urte daramatza ETBn lan horretan. Erregidore lanaz gain bestelakorik egitea ere egokitu zaio, «Bi eta bat»en eta «Goenkale»ko irratian agertu baita aktore lanean.

**Errealizadorea, aktoreak, produkzioa... denen erdian egon obi dira erregidoreak.**

Produkzioa, errealizazioa, kamera eta aktoreen arteko koordinatzaileak gara. Plana kontrolatzea dugu lana batez ere. Errealizadorea kontrolean izaten denez, bere ahotsa bilakatzen gara. Bai aktore eta aurkezleei guk ematen dizkiegu da-

tuak: non jarri behar duten esan, gelditzen zaien denboraren berri eman, publikoak badago txaloak eskatu... eta horrelakoak.

**Publikoari txaloak egin araztea zaila al da?**

Denetarik dago, hemengo publikoak piska bat hotza da eta batzutan nahiko zaila izaten da. Programaren arabera izaten da askotan, lehiaketetako publikoak txaloak errazago jotzen ditu.

Publikoaren lana oso garrantzitsua da, batez ere lehiaketetan, txaloak, oi-huak... horrelakoekin programak irabazten du. Publikoak programaren parte da.

**Erregidorearen lana behar bezain beste azaleratzen al da?**

Piskanaka azaleratzen ari da. Jendeak gure lana ez du ezagutzen kameraren atzean gaudelako, baina izatez oso garrantzitsua da.

**Zuzeneko zirrara edo grabaturikoaren ziurtasuna nabiago?**

Erabat ezberdinak dira grabaturikoa eta zuzenekoak. Zuzenekoak errezagoa da, urduritasunarekin jendeak gehiago ematen baitu. Grabaturikoak guretzat lan gehiago esan nahi du, jendea lasaiaago aritzen baita.

**Korrika eta presaka ibiltzean ezustekorik gertatu zitzazun.**

Duela bi aste, «Gaur Eguna» grabatu ondoren atzeko panela aldatzea ahaztu zitzazun, eta «Teleberri» hastear zegoenean konturatu ginen. Lehenengo planoak hala nola hartu behar izan genituen, atzekoa ahalik eta gutxien ikusi zedin eta gero bideo baten tartean aldatu genuen.

**TXORI BATEK**

**ESAN DIGU**


**Aldaketak ETB-2ko informatiboetan**

Irailaren 9an ETB-2ko eguerdietako «Teleberri»n aurkezle aldaketa izango da. Orain arte aurkezten zuen Uxue Barkosez ordez Luis Barreiro izango da hemendik aurrera saioaren aurkezle. Uxue Barkos pantailan ikusiko ez badugu ere eguerdiko informatiboaren editore modura jarraituko du.

Bestalde, Luis Barreirok orain arte aurkezten zuen gaueko «Teleberri»n utzi duen hutsunea Julio Ibarrek beteko du. Julio Ibarrek informatibo hau aurkezteaz gain, ordu bereko albistegiaren editore izaten jarraituko du.

**Gernika Gudarosteari buruzko dokumentala**

Urriaren pantailaratuko dute «Gernika Gudarostea» izeneko dokumentala. ETBk ekoiztu du dokumentala urriaren gudarostearen ehungarren urteurrena beteko dela eta. Jose Maria Tuduri zinemagileak zuzendu duen dokumental honek guda talde horren bizipenak eta agertuko ditu. Horretarako gudarostean parte hartu zuten Deunoro Totorica, Loren Burgoa, eta Andres Prietoren laguntza izan du.



Iñaki Imaz zortzi urtez ari da erregidore lanean. (A: G. Garaialde).

**NAGORE GOIBURU**



### ■ Lekeitioko antzarrak eta Hondarribiko alardea

Sanferminetako txupinazoarekin eta Zeledonon jaietsierarekin egin zuten legez beste bi herrietako festetako ekitaldiak zuzenean emango dituzte. Oraingoan gure artean ezaguna den Lekeitioko Antzar Eguna eta Hondarribiko Alardea izango dira. Antzar Festa irailaren 5ean izango da, arratsaldeko

15:00etan eta Hondarribiko Alardea irailaren 8an, 14:25ean.



### ■ Oskorriren zilarrezko ezteiak zuzenean

Irailaren 7an ETBk zuzenean emango du Oskorriren 25 urtebetetzeko kontzetua. Getxoko Fadura pilotalekuan izango dira Oskorriekin batera, honen kantuak abestuko dituen adiskide talde zabala. Kepa Junkera,

Mikel Laboa, Ruper Ordorika, Joseba Tapia, Jon Sarasua... eta atzerriko nahiz Euskal Herriko beste hainbat abeslarik hartuko dute parte, orotara Oskorriren urteak bezain beste izango dira, 25 talde. Kantaldi hau telebistaz gain, disko bikoitz batean ere jasota geratuko da. Larunbata 7an, 22:25ean.

### ■ Open USAko finala igandean

Open USA edo EEBBko Irekiko azken aurreko partidua arratsaldeko 17:15ean eskainiko ditu Euskal Telebistak irailaren 5ean eta 6an. Grand Slameko laugarrena den hau, istilutsua izan da aurten. E. Kafelnikovek lehiaketatik aldegin ondoren, P. Sampras eta A. Agassi dira igandeko finalerako faborito nagusiak. Gizonezkoen finala diferituan emango dute, irailaren 8an gaueko 21:30ean.

### ■ «Bosteko familia»ren lehen atala

Astelehenean hasiko da «Bosteko familia» izeneko telesail berria. Bertan 11 hilabete eta 24 urte bitarteko bost neba-arreben bizimodua kontatzen du. Gurasoak hil ondoren, neba-arrebe arteko nagusia ordura arteko bizimodua alde batera utzi eta bere neba-arreben ardura hartuko du bere gain. Astelehenean «Umezain bila» izeneko lehenengo atala eskainiko dute. Irailak 9an, 16:00etan.

### ■ «Euskaraokea» astelehenean

«Euskaraokea» hasiko da astelehenean ETBn. Gazte txoenei zuzenduriko karaoke lehiaketa hau Ixiar Oreja eta Iñaki Urdanpilleta aurkezten dute. Baleukok ekoizturiko sioa irailaren 9an arratsaldeko 20:00etan izango da.

## Z A P P I N G

### Urnieta Telebista oporrak amaitu ondoren ohiko programazioarekin bueltan

IRAILAREN 3an hasiko dira berriro ere emanaldiekin Urnieta Telebista-koak abuztua oporretan igaro ondoren. Informatiboetan abuztuan herrian gertatutako berri eta bitxikeriak kontatuko dituzte. Irailaren 29an Urnieta festak izango direnez, herrian izango dutenaren berri aurreratu dute.

Informatiboez gain joan zen ikasturtean izan zituzten programa berdinak izango dituzte. «Kirol Saltsa» saioan, kirol denboraldiaren hasiera dela eta kirolariek egun hauetan duten entrenamenduz arituko dira.

Saio hauen emanaldi egunak asteartean, ostiralean eta igandean dira.

Asteartean, eguerdiko 14:00etan eta arratsaldeko 20:00etan izaten dira saioak. Saio hauen osagarri astero erreportaia bat ere eskaintzen dute Urnieta Telebistan. Ostiraletako errepikapenari «Butaca Cero» saioa eskaintzen da. «Butaca Cero» saioan, zinema karteldegaren azterteta egingo dute inguruko herrietan dauden filmeen berri emanez. Horrez gain astebukerak dakarren agenda ere mintzagai izango dute. Saroben kultur-guneko Aula de Cinek zinemari buruzko ikastaroak antolatu ditu, horri buruz arduradunarekin hitzegiteko parada izango dute. Trikitixari buruzko saioak ere lekua izango du.

Igandean ere ohiko saioez gain eguerdiko 12:00etan meza nagusia eskaintzen dute. Larunbatero gaueko zortziretan Urnieta San Miguel parrokiako meza grabatzen dute ondoren igandean emateko.

### Arrasate Telebistan urriko programazioa prestatze lanean

Arrasate Telebista-koak irailean, uda partean egin duten legez eguneroko informatiboak soilik emango dituzte. Hilabete honetan arratsaldeko zortziretan zuzeneko informatibo saioa eskainiko dute, ondoren saio hau 20:30etan eta 21:30etan errepikatuko dute.

Urriari hasiko dira programazio berriarekin Arrasate Telebista-koak, bitartean hilabete honetan ikasturte berriko izango dituzten saioak prestatzen arituko dira.

## Zirika Irratia urteetan taxututako iblilbidea

**I**diazabalgo herritarrek larunbatero bertako albisteak entzuteko parada dute Zirika irratian. Orain dela ia zortzi urte sortu zen, eta herri eskola eta udaletxearen ekimenez. Udalak materialea ordaindu zuen eta dirua publizitatearen bitartez lortzen dute.

ZORTZIGARREN urtea betetzen du irailean Goierriko Zirika Irratiak. Irailetik ekainera egiten duten emanaldia aurrera atera ahal izateko 10 lagun ari dira lanean. Xabier Urteaga kazetariak azaldu digu irratiaren sorrera, «Udala eta herri eskolaren artean buruturiko ideia izan zen. Mintzamena lantzeko herri eskolak irratia bat antolatu nahi zuen. Udalak kultur-etxean jartzea proposatu zuen. Irratiaz baliatuz, deialdi

bat egin zen irratiar arduratuko zirenak biltzeko. Ondorioz talde bat sortu zen. Udalak muntaia egin zuen eta diru aldetik laguntzen badigute ere ez daukagu lotura haundirik udalarekin». Irratia aurrera atera ahal izateko, Udaleko dirulaguntzaz gain herriko dendari eta tabernariak ere ematen diete ere dirua.

«Saioa larunbat eguerditan egiten dugu 13:00etan hasi eta bi ordu edo bi ordu terdiko saioa izaten dugu.



**Zortzi urte bete ditu irailean Idiazabalgo Zirika Irratiak. (Argazkia: Alberto Elosegia).**

Herri eskolak asteazkenetan izaten du saioa. Asteburuan, astean zehar bildutako herriko informazioa kaleratzen dugu. Horrez gain abalegintzen gara herriko norbait astero elkarriketatzen. Lehiaketa pare bat ere egin obi ditugu jendeak dei dezan. Eskainitako diskoen tartea ere izaten

ditugu» dio Xabierrek. Berriek eginiko irrati nobela ere badute.

«Zenbat jendeak entzuten duen ez dakigu baina jendeak parte hartzen duenez entzule talde handia dugula uste dugu, agian guk uste baino gehiago».

**NAGORE GOIBURU**

## B A G A K

### ■ Euskalerrria Irratian udako programazioarekin oraindik

Euskalerrria Irratiak oraindik beste bi astez udako programazio berarekin jarraituko du. Goizeko informatiboak izango dira protagonista. Goizeko 8:30ean izango dute lehenengo informatiboa eta eguerdian 13:30ean bigarrena. Bi informatiboetan Nafarroa osoko berriak emango dituzte.

Goizero duten magazinan festen txokoak jarraituko du. Egun hauetan Nafarroako hainbat herri txikitant festak ospatzen dituzte, Euskalerrria Irratikoak Otsagi eta Artaxonakoetara gerturatuko dira. Iruñean iraitlean diren beste hainbat

kultur ekitaldiren berri ere emango dute.

Bestalde iraileko eskolara itzultzea dela eta hainbat ikastetxetara hurbilduko dira. Aurtengo matrikulazioaren jarraipena egingo dute eta era berean ikasturte hasieraren nondik norakoak aztertuko dituzte Euskalerrria Irratiko lankideek.

### ■ Euskadi Irratian programazio berria

Udako programazioa amaitu ondoren Euskadi Irratiak ikasturte berriari ekin dio. Orain arte bezala goizero izango dira Jaime Otamendi eta Arantxa Iturbe «Goizean behin» irratsaioan. Zortzi urte hauetan egin duten legez hainbat gai jorratuko dituzte astero irratsaioan.



**Rakel Goñi (Xorroxin Irratia)**

Gazterik hasi zen Xorroxin Irratian, zazpi urterekin egin zuen lehen irratsaioa Rakel Goñik. Baina gero zazpi urteko etenaldiaren ondoren, 14 urterekin heldu zion berriro irrati lanari, la-

runbatero «Nola soñu ala dantza» zeritzon bi ordu terdiko saioarekin.

Duela bi urte Leioan Kazetaritza ikasketak egiten hasi zen eta hurrezkeroko uda garaiko irratsaioak egiten ditu Xorroxinen. «Xorroxinek eragin handia izan du nik Kazetaritzako ikasketak egin izanak. Lehen ezagutzen ez nuen mundu bat ezagutzeko aukera ematen dit».

Uda parteko saioek hainbat gaietaz aritzeko aukera eskaini diote. Hala ere, aukera izanez gero kirolen arloko irratsaioa gustora egingo luke.

## AURPEGIA

## Luzapen kirurgikoa izan daiteke soluzioa

EVA Lopez 21 urteko klinika-laguntzailea da, eta azkenaldion bere bizitzak aldaketa itzela jasan du, mesederako gainera, kirurgiaren ondorioz. Akondroplasiak jota egonik, Evak 'hazteko' aukera eduki du, gorputzadarren luzapen kirurgikoari esker; eta teknika horren ondotik egun 1,49 metro neuritzen du, tratamenduarekin hasi zenean baino 31 zentimetro gehiago.

Akondroplasia kartilagoaren alterazio genetiko bat da, hazkundera zuzentzen duten kartilagoak erasaten dituen; gutxi gora-behera, 20.000 pertsonatik batek jasaten du trastorno hau

tzen duten kartilagoak erasaten dituen. 20.000 pertsonatik batek jasaten du gutxi gora-behera akondroplasia, hazkunderaren hormonaren defizitarekin zerikusirik ez duen trastornoa.


Bartzelonako Dexeus eritextean, Traumatologia eta Kirol Medikuntzako Institutu Katalaneko Jose Maria Vilarrubias eta Ignacio Ginebreda doktoreek beren taldean erabili dute aurreneko aldiz gure artean teknika hori, beste herrialde batzuetan (Estatu Batuetan

edo Japonian adibidez) duela urte asko aplikatzen den bera.

Luzapen prozesua zangoetan hasten da (tibia hezurretan), gero besoetara pasatzen (besahezur edo humeroetara) eta azkenik izterretara (izterrezur edo femurrak). «Itzeak jartzen dira bezurraren parterik goikoenean eta behekoenean. Ebaki txiki bat egiten da bezurra hausteko eta ondoren bezurra luzarazten duen aparatua ezarri, azaldu du Ginebreda doktoreak.

Tratamendua hasteko adinik egokiena 10 urte ingurukoa da, eta bere muga 25 bat urtekoa. Esate baterako, Cuca Baibas 21 urteko ikaslea zortzi urterekin hasi zen tratamenduarekin; beldurtua agian, baina aurrera jarraitzeko prest, medikuek eskainitako garrantiekin. Berak eta Evak aitortu dute azken urteok ez direla batere errazak izan, baina «emaitza zoragarria izan da, dudarik gabe», gaineratu dute ■

JABIER AGIRRE



L A N D A R E A K

## Txertaketa edo mentaketa

AURREKO batean berdetan egiten den inausketaz aritu ginen. Landarearen izerdialdia aukera egokia da ez inausketako bakarrik, baita beste lan ugari gauzatzeko ere. Hauetako lan bat frutartolen txertaketa da. Txertaketa bi landareekin bat egitea da. Normalean espezie bereko bi bariatetarekin egiten da (sagarra sagarrari), baina badira espezie ezberdinak lotzeko egiten diren txertuak ere (udarea iransagarrari, mizpira elorri zuritari...). Txertaketaren helburua da bariatate batzuk lur-baldintzetara egokitu eta beste batzuk fruta emateko duten egokiera aprobeztatuz etekin hobekak lortzea.

Txertaketa hauek egiteko, negu beltzaren bihotza zen ohiko garai ba-

karra. Neguko txertu honek bere alde on eta txarrak ditu. Txarrenak, mentatzen diren landareak helduak izaki, aurrez urtetan ondo planifikatutako lana izan eta tresneria eta bitarteko gehiago behar izatea.

Hau dela eta, txertatze-era erosoago bat zabaltzen ari dela urte batzuk badira. Txertaketa hau berdetan egiten da, eta *begiko txertua* deitzen da.

Begiko txertua abuztuan egiten da. Abuztuan landarearen zikloak geldialdi antzeko bat izaten du. Udaberria eta uda-hasierako hazkundera, beroa eta ur eskasia medio, apaldu egiten da. Honek izerdiaren gora-beherako ibilaldia, neguko ezerezeraino eraman gabe, eskasten duenez, txertatzen den



beste landarearen begia itsatsi eta 'beregantzeko' aukera bikaina da.

Abuztuan txertatu begiak datorren udaberrian puja berria botako du eta soilik hau hazten utziz gero, horra landare berria. Aurten, inoiz baino fresko eta hezeagoa doan udarekin, ez da erraza izango txertua egiteko izerdi apalaldia aurkitzen, alajaina ■

JAKOBA ERREKONDO

# Andoaindik Leitzara «Trentxiki» zaharraren bidea jarraituz

M

ende erdira arte Donostia eta Iruñea arteko bidaia egiten zuen «Trentxiki» edo Plazaola zaharra igarotzen zen bide beretik, lauzpabost orduko irteera egin daiteke bizikletaz Andoaindik Leitzara, zailtasun handiegirik ez duen pista batetik barrena. Arreta berezia ezarri beharko dugu, ordea, pistan topatuko ditugun 30 tuneletan; horietatik batzuk, guztiz itsuak.

IBILALDIA Andoaingo Goiko Plazatik hasiko dugu. La Salle auzora doan errepidea hartu eta 50 bat metrora eskuin aldera hartuko dugu Urigain Kultur Etxearen albotik. Kilometro erdi egin baino lehen, ezkerrera doan adreiluzko errepidetxo batean gora egin behar da, iturri batera iritsi arte. Hemen, Plazaolako trenbidearen pistarekin egingo dugu bat, eta ez dugu utziko Leitzara hurbildu arte. Pista ez da Leitzaraino iristen, bertotik hiru kilometrora dagoen Areso inguruetaraino baizik. Hemen, Tolosatik datorren errepidea hartu behar da.

Ibilaldiak 50 kilometro inguruko luzera du, eta lasai ibiliz gero, goiz edo arratsalde batean amaitu daiteke. Joaneko bidaia itzulerakoa baino zailagoa egiten da, Leitzarainoko bideak goruntz egiten duelako etengabe. Txirrindularia ez da ohartzen aldapa dagoenik itzulera egin arte, Leitzatik Andoaineraino abiadura handia hartzen dela ohartu arte hain zuzen. Horregatik, komenigarria da astiro joatea. Gogoan izan Andoain 75 metroko altueran ko-

katurik dagoela eta Leitzara, berriz, 495 metrora.

Ibilaldian 30 tunel eta 16 zubi daude. Tunel pare bat itsuak dira guztiz, eta meatzariiek buruan ezartzen duten linterna antzeko bat eramatea beharrezkoa da. Andoaindik hurbil arrain-haztegi bat aurkituko dugu, eta bailararen




Goiko argazkian hiru gazte atseden hartzen, Leitzatik Andoainera bueltan. Erdialdeko argazkian, berriz, bailaran aurki dezakegun baserri bakanetako bat. Bakardadea nabaria da ibilaldi osoan zehar. Eskuinaldean, aldiz, ibilbidean topa ditzakegun 30 tuneletako bat.



erdialdera hurbiltzen garen heinean, inguruko mendiak ikusten hasiko gara, horien artean Urdelar (849 metro) eta Adarra ezaguna (824 metro). Pista amaitzeko bi kilometro falta direnean, Plazaolako geltokia topatuko dugu. Ondoren, Leitzaraino joan eta bertan hamaiketako ederra egin genezake.

Txangoa erropa zaharrarekin egitea komenigarria da oso, pistan, eta batez ere tuneletan, ura eta lokatza sobera baitago. Azken urteotan, eta kamioiek egurra basotik ateratzeko egindako sartu-irtenaldien ondorioz, zulo askotxo osatu dira pistan. Oinez eta bizikletaz ibiltzen direnak ere gero eta gehiago dira, eta ondorioz, arreta handiarekin ibili beharra dago ■

ANDONI URBISTONDO  
MIKEL EGAÑA



**BERTSOLARITZA**

**6** ● **Bunuzen bertso-afaria** izango da gaur bertsozaleen gozamenerako. 19:00etan Intxauzetan marmitakoa afaldu ondoren, 21:00etatik aurrera **Alkat, Irazu, Mendizabal, Murua eta Xanpun** arituko dira bertsoan. Gai-jartzaile lanetan Pantzo Hirigarai.

● Arrateko jaiak direla eta, bertso afaria izango dugu **Kantabria jatetxean**. 21:00etan hasiko den saioan, **Jose Luis Gorrotxategi, Imanol Lazkano, Mañukorta eta Peñagarikano** bertsolariak hartuko dute parte. Jai Batzordeak eta «...eta kitto!» Euskara Elkarteak antolatutako bertso-afarian bikain afaltzeko modua izango dute bertaratutakoek. **Prezioa 2.600 pezetakoa da**, eta sarrerak ondoko tokiotan erosi behar dira: Kantabrian, Kulturalen, Deportibon, Sagar-Bitzan edota Balkoin.

**7** ● Ordiziako Herri Antzokian, **Amurizak, Euzkitzek, Gorrotxategik, Mendizabalek, Munduatek eta Sorozabalek bertso saioa** eskainiko dute gaueko 22:30ean hasita. Saio hau, Argi-Berri Elkarteak antolatuta du, eta Goierriko Bertso Eskolakoak arituko dira aurkezle lanetan.

● **Mutrikuko Ederrena zinema aretoan** bertsolariok izango ditugu entzungai gaur: **Egaña, Lizaso, Mañu-**



**Irailaren 8an, igandearekin, Trebiño Eguna burutuko da La Puebla de Arganzonen.** Trebiño Euskal Herria dela aldarrikatzeko, milaka lagun bilduko dira bertan. Eta

**Iruñeko Ortzadar Euskal Folklore Taldeak «Folklore eta Kultura Tradizionalari Buruzko Jardunaldiak»** antolatu ditu. «Herri antzezpenean» izenburuarekin, dantza, musika, jantziak, mitoak, sineskeriak, Sanferminak, herri medikuntza... aztertuko dituzte jardunaldiotan. Honetarako zenbait ikergai proposatu dituzte: pastoralak, toberak, karrozak, galarrosak, asto lasterketak, maskaradak eta bestelako ihauteri antzezpeneak. Izen ematea dohainik izanen da. Honi guztiari buruzko lana aurkeztu nahi duenak, irailaren 15erako aurkeztu behar du. Lanarekin batera 20 lerro luzerako



laburpena igorri behar da, euskaraz gain beste bi hizkuntzatan idatzia. Lan-talde zientifiko batek hartuko du komunikazioen egokitasuna baloratu eta euren onarpena erabakitzeko ardura.

**korta, Azpilaga eta Aitor Mendiluze.** Helduentzako sarrerak 500 pezeta (20 libera) balio ditu, eta 18 urtez azpikoentzakoak 100 pezeta.

**11** ● **Saran**, bertso saioa izango 16:00etan. Bertsolariak: **Ezponda, Xanpun, Alkat, Amorena eta Josetxo.** Bertsolarien saioa amaitu ostean, **Erramun Martikorenaren** kantaldia entzun ahalko dugu.

**ERAKUSKETAK**

**11** ● Gipuzkoako Argazkilari Elkartearen eskutik, **Javier Brizuelaren paisaien erakusketaz** gozatzeko modua izan dugu Donostiako San Juan

horrelakoetan izan ohi den legez, La Puebla de Arganzonen ere bertaratutako guztien nahiak asetzeko moduko ekitaldiak prestatu dituzte antolatzaileek. Txosnak egongo diren eremuan, musika izango da protagonista nagusia: 14:30ean hasita, Maixa eta Itziar, Betegarri, Reverendo Parker, Bizkar Hezurra eta Su Ta Gar taldeen doinuak izango ditugu entzungai. Horrez gain, eguerdi parterako aldarrikapen-kalejira deitu dute «Trebiño Araba da» lelopean. Kalejiraren ostean, bazkari herrikoia egingo da. Egun osoan zehar animazioa sobera izango da, trikitixaren, gaiteroen, bertsolarien eta fanfarreen eskutik.

kaleko 27. zenbakian. Gaurkoa du azken eguna zabalik.

**IBILALDIAK**

**8** ● Oargi Troskaeta eta Ataun kirol elkartearen eskutik, **Ataunen ibilaldi neurtua** antolatu dute. Irteeraren asmoa, kirola eta natura uztertzeaz gain, Euskal Herriko paraje eder bat ezagutzea da. **Aurtengo ibilaldian, Aralarko Parke Naturala ezagutuko dute.** Bost bat orduko ibilbidea izango da. Horretarako, **Aiako plazara** hurbildu gaur goizeko 08:00etarako.

**IKUSKIZUNAK**

**8** ● **Sarako** jaiak direla eta, arratsaldeko 16:00etatik igandea aurrera **Ahate-Jokoa** jokatuko da gaur. Ondoren, Iruñeko erraldoiek eta joaldunek festagiroa alaituko dute. Horrez gain, **Indar-Jokoak** ere burutuko dira.

**JAIALDIAK**

**7** ● **Baigorriko trinketean Hats Berri haurtzaindegiaren festa** izanen da gaur. Euskal Kantu Txapelketan parte hartutako baxenabartar kantari batzuen emanaldiaz gozatuko dugu, eta baita pilota partiduez ere.

## LEHIAKETAK

6

Ostirala

● **Literatura, komiki, pintura eta argazki lehiaketak antolatu dituzte Zumarragako eta Urretxuko udalek.**

Nahi duen orok har dezake parte, lehiaketa batean zein beste. Aurkeztu beharreko lanek beste inon saritu gabeak behar dute izan. Lanak Urretxuko Kultur Etxean edo Zumarragako Udaletxean aurkeztu behar dira **irailaren 13a baino lehen**. Argibideak ere bertan topatuko kdituzue.

● **Abentura eta misteriozko Igartza Nobela Saria** antolatu du Beasaingo Udalak. Elkar argitaletxeak lan saritua argitaratuko du. Nahi duten guztiek har dezakete parte. Lanak euskaraz idatzia behar du izan, inoiz argitaratu gabea, eta inolako sariketetan parte hartu gabekoa. **Partaide bakoitzak nahi adina idazlan aurkez ditzake. Lanak gutxienez 50 orrialdekoa** izan behar du. Helbide honetara bidali behar dira idazkiak **irailaren 13a baino lehen**: Igartza saria, Beasaingo Udaletxea (Euskara Zerbitzua), Loinazko San Martin plaza z/g, 20.200 Beasain.

## MUSIKA

6

Ostirala

● Santurtziko plazan, gaueko 23:00etan hasita, **Os Diplomaticos do Monte Alto** talde galiziarrek kontzertua eskainiko du.



«**Komikiak 100**» erakusketa **ibiltariak aurrera darrai bere ibilbidean. Oraingoan Getxora hurbilduko da**, eta bertan izango dugu irailaren 6tik 22ra bitarte. Komikiaren mendeurrena dela eta antolatu duten ekimen honek, makina bat ikuskizun bildu ditu bere baitan. Komikien hizkuntza, komikiaren ofizioa eta komikia eta euskara lantzeaz gain, komikiaren historiako pertsonaia mitikoenen irudiak eta euskal komikilarien irudiak ezagutzeko aukera ederra eskaintzen du. Honetaz gain, erakusketak badu alderdi didaktiko bat ere. Bere helburua komikiarekiko zaletasuna zuzpertztea da.

**Antiguako XIII. Musikaldia burutuko da hurrengo aste hauetan Antiguako ermitan.**

Hodeiertz abesbatzak irailaren 7an, arratsaldeko 19:30etik aurrera, eskainiko duen emanaldiarekin hasiko da musikaldia. Irailaren 14an, eta ordu berean, The King's Consort taldearen doinuekin gozatzeko modua izango dugu. Erresuma Batuko talde honek antzinako musika-tresnekiko duen zaletasuna aurkeztuko du. Irailaren 21ean, Claudio MTZ Menerren eskutik iritsiko zaigu musika. Arratsaldeko 19:30ean hasita eskainiko du piano kontzertua. Eta azkenik, irailaren 28an,



Trio de Maderas Daxa taldearen emanaldiaz gozatu ahalko dugu. Azken emanaldi hau ere 19:30ean hasiko da.

● Donibane Garaziko elizan, **Nekazari taldearen kantaldia** izango dugu entzungai gaur gaueko 21:00etatik aurrera. **Senegaleko giza-laguntzaren alde** antolatu dute kantaldi hau.

● **Muskildin**, herriko jaiak direla eta, **Mixel Ducau eta Caroline Phillipsen** kantaldia izango da entzungai gaur gaueko 22:00etatik aurrera. Ostera, bihar, **Barricadaren** txanda izango da. Nafarrek 22:00etan ekingo diote emanaldiari. Drogas eta gainerako taldekiek amaitu ostean, **Sustraiak** taldearen doinuekin dantzan egiteko modua izango dugu goizaldera arte.

● **Getxoko XII. Folk Jaialdia** burutzen ari da egunotan. Gaur, **Misia** por-

tugaldarrak eta Venezuelako **Soledad Bravo** izango ditugu entzungai Fadrako pilotalekuan. Bihar, aldiz, **Oskorri eta hauen gonbidatuak** (Martin Carthy, Mikel Laboa, Gwendal, Pedro Guerra...) toki berean. Eta azkenik, etzi, aurtengo Euskal Kantu Txapelketan lehenengo bi postuak lortu dituzten **Kattalin Habans eta Joxemi Martis** Algortako San Nikolas plazan.

7

Larunbata

● **Bizkar Hezurra** taldeak, gaueko 23:00etan hasita, Lekeitioko enparantzan kontzertua eskainiko du.

Beste planik egin ez baduzue, badakizue nora jo.

● **Sarako jaien barruan, Exkixu** taldeak kontzertua eskainiko du 22:30tik aurrera. Ondoren, oinak dantzan asintzeko parada izango dugu **Zanpa** taldearen eskutik.

10

Asteartea

● **Anje Duhaldek Hondarribiko** Santiago plazan kantaldia eskainiko du gaur 22:30ean. Ostera, kantari lapurtarra eta bere taldea **Santurtziko plazara** gerturatuko dira bihar, 23:00etan hasita kontzertua emateko.


12

Osteguna

● Uda honetan egiten ari den biraren barruan, **Joaquin Sabina** musikari espainiar sonatua Euskal Herrira etorriko da gaur. Kontzertua Bilboko zezen plazan izanen da.

# Denborapasa

## Gurutzegram



**EZKERESKUIN:** 1.- Eskaera. 2.- Pluralean, landare mota. 3.- Alkoholen bukaeran. Jaki gozoa. Tona. 4.- Euskal sindikatoa. Beste euskal sindikato bat. Baldintzetan. 5.- Arrain mota. 6.- Su. Poztu. 7.- Zikira. Bostehun. Röntgen. Kontsonantea. 8.- Musika nota. Asegabeko hidrokarburua. 9.- Ibilgailu akorazatuak. Alderantziz, gauero egiten dugu. 10.- Nor, pluralean. Herri berekoa.

**GOITIK BEHERA:** 1.- Higukunde ekologistako partaide. 2.- Salaketak egiten dituztenak. 3.- Modu atzizkia. Lasai. Nitrogenoa. 4.- Alderantziz, zintzoa. Kontsonantea. Nekadura. 5.- Elizako atala. Gironako ibaia. 6.- Txangoak. 7.- Laua. Alderdi troskista. 8.- Oinarrizko edaria. Ene. Kontsonantea. 9.- Sodioa. Lehen bakoitia. Bibliako pertsonaia. 10.- Agiri mota. Gipuzkoako ibaia.

## Kate hitzak

Letra kopuru desberdineko hitzak ageri zaizkizu ondoan. Helburua zera da, eskuineko taula osatzea, puzzlea bailitzan. Pasa ezazu hitz bakoitza dagokion lekura, kontuan harturik hitzok ezker eskuin eta goitik behera joan daitezkeela.



### 8 letra

Arrastoa  
Gabiraia  
Salatari  
Sartalde

### 7 letra

Arabiar  
Dialisi  
Ekilore  
Koitadu

### 4 letra

Ahoa  
Ardo  
Aroa  
Arre  
Asia  
Atea  
Data  
Egin  
Gako  
Gose  
Iaio  
Idia

Iran  
Istu  
Laga  
Lema  
Leze  
Noan  
Oren  
Orno  
Oste  
Piko  
Ukan  
Zoru

### 3 letra

Iaz  
Ihi  
Ink  
Ogi

### 2 letra

Aa  
Ar  
Ea  
Iz  
Mo  
No  
Od  
Rd





# Inkisizio zaletasuna

**EGIA** eratua denean, errealitatea berorren interpretazio esparruari makurtu behar zaio. Hauxe litzateke inkisidoreen arau eragile edo operatiboa. Gazte gerlariak berezko arazotzat dauzkate, horien *modus operandi* edo jokabideak zuzenki ekiten baitio, praktikan bertan ukatuz, inkisidoreek egia ziur eta higiezintzat finkatua duten orori.

Egia da, bai -tamalez eta lehenbizikoz arrazoa eman beharrean naiz Elzori-badirela Euskal Herrian «*bi gizarte paralelo modukoak*». Bata, EHa erdibitzen duten estatuek ezarritako estatus zatitzailean eroso (gutxi-asko) dabilzanena. Bestea, sekula onartuko ez duena gizarte bezala askatasunez (burujabetasunez) aritzeari eta mintzatzeari. Ikuspegi honetatik, gazte gerlarien garrantzi politikoa edo polemiko-mediatikoa bigarren mailakoa da, *de facto*-ko egoeraren ondorio soil.

**GAZTE** gerlari matxinatuen aurka-ko neurri polizialak ez dira inongo nobedadea zeren eta, oraingoan ere (gehienetan bezala) justizia makurtu egin baitzaio aurrez ezarritako egiari, egiaren definizio inkisitorialari. Aspaldikoa ez den adibide bat aipatzearen, hamar urte baino gehiago badira sasoi hartan gazteak ginenok *susmagarri* izendatu gintuela ZEN plan antimatxino hark. Ordu luze egin genituen paretari begira. Plan haren segidan etorri zen disuasio eta pribatizazio neurri sorta, esparru publikoen kontrola. Ados jarriak ziren horretarako udalak, bere buruari abertzale deitzen dion burgesia eta espainiako boterearen ordezkariak.

Kontrainsurgentziak, dena den, bereizgarritzat ditu honakook: irudimen eskasia; auzia



JAKUE PASCUAL

Soziologoa

konponbideratzeko batere borondaterik ez -jakina baita murriztu egiten duela horrek egoera kontrolpean izateko ahalmena- eta baliabide asko, bai gizakitan (teknologoak eta militarrek) bai teknologian (bideoinformatika eta armamentua). Honenbestez, eta egia zer den alde zehaztua dutenez, aurreikusteko modukoa eta logikoa da (zentzugabea aurkako ikuspegitik) egia hori finkatzeko tresnak sendotzea; hortik sortzen da Gazteriantzako Lege Penalaren hipotesia. Ez da sortzen auziaren zergatiaren prebentzio modura, ez, kontrako edozein ekimenen gaitzespen erabatekotik baizik. Boteretik esaten ari zaizkiguna zera da, Euskal Herria mamu bikoitza izango dela gerora ere: herrialde erdibitua, batetik; gizartearen zenbait sektore gero eta zokoratuagoak

izango dituen, bestetik. Ez da harriztekoa, beraz, gaztediaren puska izugarri bati ekitea botereak; barrenak aginduta bada ere EZ! dioen gaztediari, iragartzen zaion etorkizun nazional eta soziala onesten ez duenari, herri izatea galerazten diola susmatzen baitu.

**NERABEZARORA** heldu eta kalera jotzen duen gazte gerlarien laugarren belaunaldia da oraingo hau -nik gogoan dudanez-, komunitate bateko partaide sentituz eta gizartearen ezagutzaren (onespenaren) bila, horixe baitu bultzagarri nagusia. Litekeena da, Elzok dioen bezala, egun gizartearen bi gizarte izatea eta gazte gerlariak horietako baten partaide sentitzea. Horregatik, hona hemen nire gomendioa inkisidoreei: egin BEHAR dutena da 'besteak' suntsitu, triskantza erabatekoa. Ez gerlariak soilik, «*jaioko dira berriak*» esaera gauzatzeko arriskua ez baita desagertuko mendeak agortu arte. Hots, Mendebaldeko kapitalismoa, Estatu zentral gisara eratua, desagertu arte. Nolanahi ere, beldur naiz ez ote den alferrikakoa nire gomendioa, holo-kaustoaren aukera alegia, orain arteko bitartekoak ikusirik. Izan ere, heriotzaren erabilera kuantitatiboa (subjeliboa: banakakoa zein soziala) berezko osagaia du beren irabazpide sistemak: zenbat eta gutxiagoren artean banatu, herri zein pertsonen artean, orduan eta gehiago daukate eurek.

Negrik honako hau zioen: «*Berehalakoan sentitzen dut nigan elkartasun proletarioaren ('euskal' erantsiko genioke hemen) berotasuna, pasamontaña janzten dudana bakoitzean*». Zerk, bada, harritzen ote ditu.



**Basakabi**  
Betirako



**Laja eta Landakanda**  
Gure oroitgari



**Andoni Egña**  
Tximeletak sabelean




**Txakun & Lau Behi**  
Merke & Ona



**Su Ta Gar**  
Jaiotze Basatia




**Txotxongilo**  
25 Urte




**Carl G. Jung**  
Gizakia bere arimaren bila (I)



**Isaac Asimov**  
Oinarriko ehun galdera zientziari buruz



**Elikadura eta Osasuna**  
Gaiak



**Euskal Historiaren 15 Gertaera Nagusi**  
Gaiak



**Gazteak eta Sexualitatea**  
Gaiak



**Sarda Taldea**  
Pirinotako sumendiak, hartzak, mendi-gidariak eta beste hamaika istorio



**Martxel Aizpurua**  
Erleen bizitza ezkututa



**Harkaitz Cano**  
Beluna Jazz



**Koldo Izagirre**  
Ez duk erraza, konpai!




**Itxaro Borda**  
Bizi nizano munduan



**Jon Alonso**  
Katebegi Galdua



**Zenbaki bidez**  
Didaktikar



**Euskal Gramatika osoa**  
Didaktikar



**Imanol Murua eta Humberto Unzueta**  
Suetena Belfasten



**Benetan Euskaraz 1. maila**  
Didaktikar



**Egan**  
Meta Eginez



**Drindots**  
Made in Plaza

✓ Klean baino askoz merkeago  
✓ Bidalketa gasturik gabe

\* Hautatz gain, GAIK eta SUSA argialetxeen, IZ disketearen eta DIDAKTIKER-en katalogoetako titulu ugari ditugu. Eskaiguzu zerrenda eta berehala eskuratuko duzu.

## ESKARI ORRIA

Izenburua	Prezioa	Aleak	Guztira

Kobratu beharreko kopurua

Transferentzia: Euskadiko Kutxa 3035 - 0036 - 19 - 0360030651 Ondorengo datuekin batera ingresoaren agiriaren kopia bidali behar da.

IZEN - DEITURAK

KALEA

TFNOA

HERRIALDEA

KONTUTIK

TITULARRAREN IZEN ABIZENAK

BANKU EDO AURREZKI KUTXA

KONTU KORRONTEA/LIBRETA

ZBKIA.

SOLAIRUA

ESKUA

POSTA KODEA

HARPIDETZA ZBKIA.

SINADURA

HARPIDETZA ZBKIA.

SUKURTSAL HELBIDEA

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Kontu zenbakia

SINADURA

# Euskal Kulturaren Agenda



**ZURE ORDENADORERAKO PREST**

**DISKETE BAKAR BATEAN**

Euskal Kulturaren Agenda  
Agenda de la Culture Basque

Agenda de la Cultura Vasca  
Resource Guide to Basque Culture

Eskari erietako: Tel. 043 37 15 45 • Faxa 043 36 10 48